



Eskola Antzerkia



47

Euskara Zerbitzua
Zabalkunde-lanak

211.69-8
ESK

ESKOLA ANTZERKIA 7-



katalogoa
Eibarko Hezkuntza Esparrua
943.20.27.48
20600 EIBAR

91480

SA 475
891.69-2
ESK

47

Euskara Zerbitzua
Zabalkunde-lanak

ESKOLA ANTZERKIA 7



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

eima
katalogoa
Eibarko Hezkuntza Esparrua
943.20.27.48
20600 EIBAR



Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 1999

R^o 1 4 4 6 0

FITXA CIP

Eskola Antzerkia 7 / [prestatzaileak, Iñaki Artola, Santos Izagirre, Joxe Mari Berasategi]. — 1. argit. — Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 1999


or. ; cm. — (Zabalkunde-lanak ; 47)

ISBN: 84-457-1419-8

1. Euskal haur antzerkia-XX. mendea. I. Artola, Iñaki. II. Izagirre, Santos. III. Berasategi, Joxe Mari. IV. Euskadi. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. IV. Bilduma.

087.5:891.69-2"19"

- Argitaraldia: 1.a, 1999ko uztaila
- Ale-kopurua: 2.000
- © Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioa
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
- Internet: www.euskadi.net
- Prestatzaileak: Iñaki Artola, Santos Izagirre, Joxe Mari Berasategi
- Azala: Jesus Iturriza
- Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Wellingtongo dukea, 2 - 01010 Vitoria-Gasteiz
- Fotokonposizioa: Ipar, S. Coop.
Particular de Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbo
- Inprimategia: RGM, S.A.
Padre Larramendi, 4 - 48012 Bilbao
- ISBN: 84-457-1419-8
- Lege Gordailua: BI - 1.637-99



801460

AURKIBIDEA

HITZAURREA	7
ERRONKA	
Lukas Dorronsoro	9
EMOZIO, AMETS ETA BIZIPENAK “BIZIARAZIZ”	
Lurdes Intxausti	15
ANTZEZLANAK	
Asteburu aztoratua	
Komedia. Donostiako Arantzazuko Ama institutua	19
Dena izango da izan behar duen bezala	
Komedia. Ibarako Uzturpe Ikastola	45
Diruak sendatu du	
Komedia. Amezketako Zumadi herri ikastetxea	65
Esne-saltzaileak	
Komedia. Bilboko Karmelo-Solokoetxe institutua	79
Izen gabekoa	
Drama. Ordiziako Oianguren institutua	87
Kaixo, zer moduz? Lapurketa arraroa	
Itzalak. Zestoako herri ikastetxea	117
Lagun zauritua	
Drama. Aizarnako herri ikastetxea	129

Mireni laguntzen	
Komedia. Zegamako Aitxuri herri ikastetxea	145
Nonbait, ez oso urrutian	
Ikuskizuna. Hernaniko Langile Ikastola.	159
Ramontxu herensugea	
Ipuin antzeztua. Arrasateko Erguin herri ikastetxea.	179
Sei anaiak	
Ipuin antzeztua. Eibarko La Salle- Isasi ikastetxea	187
Sorgina baserrian	
Ipuin antzeztua. Usurbilgo San Esteban herri ikastetxea	199
Txin, txin, txin, txin, diruaren hotsa	
Komedia. Ordiziako La Milagrosa ikastetxea.	207
Urrestillako musiketeroak	
Ipuin antzeztua. Arrasateko Erguin herri ikastetxea.	225
Urrezko arrosondo	
Ipuin antzeztua. Amorotoko herri ikastetxea.	231
ESKOLA ANTZERKIA 1-7: ANTZEZLAN GUZTIEN ZERRENDA	241

HITZAURREA

Hamalau urte egin ditu, 1998-99 ikasturtearekin, Eskola Antzerkigintza laguntzeko Hezkuntza Sailak egiten duen deialdiak. Deialdi horretan parte hartu duten ikastetxeen, eta batez ere ikastetxe horietan antzezlanak taxutzen eta lantzen hainbeste ahalegindu diren irakasle eta ikasleen fruitu da liburu hau. *Eskola Antzerkia 7* du izenburua; aurretik argitaratutako beste seiren segida da, beraz. 15 antzezlan bildu dira liburu honetan: neurri, molde eta tankera desberdinetakoak. Adin eta maila desberdinetan egin, landu eta antzeztuak. Bakoitzaren hasierako aurkezpen orrian azaltzen dira zehaztasunak, gaiaren laburpenarekin batera.

Ikastetxeetako taldeei, laguntza eskuratzekotan, hauxe eskatzen zaie: eskabidearekin batera antzezlanaren testua Hezkuntza Sailera bidaltzea (beraiek asmatua denean Aste Santua arte luza daiteke epe hori); euskara landuz antzezlanak prestatzea eta gutxienez hiru emanaldi egitea, lehena norbere ikastetxean eta beste biak inguruko beste bi ikastetxetan. Ikasturte amaierarako, antzerki lanketa nola egin den azaltzeko galdekizuna eta emanaldi bakoitzeko ebaluaketa fitxa bat bete eta bidali behar izaten da Hezkuntza Sailera. Deialdi honen inguruan ikastetxe eta talde asko dabil. Zehatz esanda, 1998-99 ikasturtean 215 ikastetxe eta 525 talde. Deialdiaren helburuez edo jardupideaz gehiago jakin nahi duenak jo beza urtero EHAAn argitaratzen den Agindura, eskola-antzerki liburuen sail honetako beste seietara edota *Euskararen Irakaskuntza: 10 urte* argitalpena.

Eskoletatik jasotako antzezlanak ez dira Hezkuntza Sailean gordeta geratzen. Eskoletan horien premia badagoela aipatzen dute irakasleek, behin eta berriz. Premia horri erantzun nahirik egiten da jasotakoen artean aukeraketa eta, ondoren, argitalpena. Argitaratzeko aukeratu ez diren antzezla-

nak ere, alfabeto ordenan eta aurretik laburpen fitxa dutela, 17 karpeta osatutako 4 bildumatan daude jasoak. Lehen karpeta aurkibide orokorra da eta bilduma handitu ahala berritzen da. Bilduma hauek ere ikastetxeen eskura daude eskualdeetako PATetan.

Eskola Antzerkiaren saileko zazpigarren ale honetan jasotako antzezlanak 1995-96 eta 1996-97 ikasturteetan jasotakoen artetik hautatuak dira eta alfabeto ordenan agertzen dira, ez beste inolako lehentasuni begira. 1997-98 ikasturteko lanak eta hurrengo urteetakoak lanketa fasean daude eta horiek izango dira sail honetako hurrengo aleetarako oinarri.

Liburu honetako antzezlanak lagungarri gertatuko zaizkio, ziurrenera, ikasleekin batera edo bere kasa berriak sortzeko beta edo aukerarik ez duen irakasleari. Beta, modua eta gogoia duenarentzat, ordea, pizgarri izan nahi lukete. Polita ateraz gero, hurrengo liburuetan argitaratua izateko aukera izan dezake. Hartara, beste eskoletara zabalduko da eta seguruenera behin eta berriz antzeztua izango da. Argitaratzen ez bada ere, Bilduman jaso eta beste eskolen eskura jarriko da PATetan.

Eskerrik asko antzezlanen egile, itzultzaile, moldatzaile... guztiei, argitalpen hau gauzatzeko eman dizkiguten erraztasunengatik. Esker mila, halaber, Xabier Ansola, Lukas Dorronsoro, Lurdes Intxausti eta Izaskun Lopetegiri, antzezlanak hautatzen eta prestatzen egindako lanagatik. Hitzaurre honen ondoren, "Erronka" izenburua dramatik idazlanean Lukas Dorronsoro saiatu da "Eskola Antzerkia 6" argitalpenean "Testua eta itxura: Hamaika galdera eskura!" izenburupean plazaratu ziren galderetako batzuei erantzuna aurkitzen. "Emozio, Amets eta Bizipenak, Biziaraziz" izenburuko idatziarekin Lurdes Intxaustik esku artean duzun argitalpenari egiten dio sarrrera. Bihoazkie honegatik ere gure eskerrak. Beste hainbeste, azkenik, prestakuntzan lagundu diguten lankide guztiei, bereziki Blanca Castaño, M. Lurdes Lizaso eta Itziar Lizarralderi.

EUSKARA ZERBITZUA

ERRONKA

Lukas Dorronsoro

“Eskola Antzerkia 6” liburuko “TESTUA ETA ITXURA: HAMAIKA GALDERA ESKURA!” hausnarketaren “Nola egin testua biziago?” lehen atalak jaso duen erantzuna.

Hitzaurre, aintzin solas, atariko benetako liburua irakurtzen hasi aurretik, gutxienez, gainbegiratu behar izaten dituzun orri bakan edo mordo hori inor gutxik irakurri eta gutxiagok aintzat hartzen duen uste sendoa dudan arren, eta agian horretxengatik, masokahaizeren apurren baten eraginez hor nonbait, hasi eta buka irakurtzen ditut nik denak.

Bada, atariko bakarra gutxi etsirik, bi edo hiru dakartzan libururik. Auskalo zertarako.

Hiru dakartza **ESKOLA ANTZERKIA 6** deritzanak ere, eta esku artetik erauzi ezinik darabilkit, oraintxe hartu eta oraintxe utzi. Izan ere, bigarren atarikoan erronka kutsu nabarmena ageri du, izenburu daraman

TESTUA ETA ITXURA: HAMAIKA GALDERA ESKURA!

koplatik hasi eta,

“Zeinek eta noiz erantzungo die 11 omen ziren, eta benetan 50 diren galdera hauei guztiei?” azken galderaraino.

Era honetako galderek urduri gorri jartzen naute beti. Galderak irakurri orduko konturatzen da antzerkiaren ingurumari aski hedatuan dabilen edonor, idatzi dituenak ongi ezaguna duela arloa, eta beraz, galderei legozkien erantzunak ere bai, ingurune bereziek eskatzen dituzten aldagarri alternatiiboak eta guzti. Zeren bila ote dabil xaxpiki arraio hori?

Agian ez du, irakasle artean, hanhemenka, jaso dituen galderak zehaztu eta guri itzuliz, gure hausnarketa eta tokian tokiko erantzuna probokatzea beste asmorik.

Dena dela nire kaskoari eragin dio ederki behintzat eta, ESKOLA ANTZERKIA 7 laster agertzekotan omen dabilenez, lehenbiziko galdera multzoari erantzuten saiatzera noa. Ea itxurazko zerbait esaten asmatzen dugun!

“Nola egin testua biziago?”

Bizitasuna gora eta bizitasuna behera dabil galdera multzo osoan zehar. Eskoletan antzerki mottelak sortzen ditugula adierazi nahi digu dudarik gabe. *Izango da, bizia hari batean daukan goseti, ezinase, argal, hezurhutsen bat!*, esan nion neure buruari, lehenengoz irakurri nuenean. Baina, bai zera, bazenekite nolakoa den! Lasaitu hadi, ene buru eta ekiok lanari.

Gramatika, Euskaltzaindiaren arauak... antzerkiaren kalitatea eta bizitasuna ... Zer zeren gainera?

Gramatika, hizkuntza arauak, jakin gabe edo aintzat hartu gabe antzerkia idazten hastea, oinez jakin gabe aureskua dantzatu nahi izatea bezalatsu da.

Tokian tokiko hizkera, euskalkiak, euskara batua eta bizitasuna?

Galdera honek erantzun bat baino gehiago eskatzen dizkit.

Lehen galderari erantzuterakoan esandakoa gogoan harturik, hizkuntza arauak betetzea, alegia, tokian tokiko hizkerak ere bere arau jatorrak horizaten baititu, nork bere herrian soilik ematekoa denean, etxeagoa, goxagoa, barnekoiagoa, ulergarriagoa, ... gertatuko zaizu **tokian tokiko hizkera** jatorrean idazten baduzu.

Bakoitzaren bailaratik kanpo, baina, euskalkiaren eremutik nekez urrutiratzekoa denean, nork bere **euskalkian** idaztea litzateke egokiena, esanak esan.

Noranahirakoa denean, jar ezazu **batua** lanean. Eta, ba al dakizu zer erantzungo niokeen nik, “Aizu, *antzerki polit bat aukeratu dugu eskolan egiteko; baina, batuan dago idatzia.*” esanaz letorkidakeen irakasleari? Hauxe: Ez dakizu zein eginkizun atsegina den antzerki lan polit bat nork bere etxeko hizkerara edo euskalkira moldatzen saiatzea. Eta ez iezadazu esan ez zarela horretarako gauza. Hori alperraren aitzakia da, aizu. Ez al zara, ba, irakaslea?

Tokian tokiko hori nonahi ote dugun Euskal herrian?

A, bai. Noski. Zer uste zenuen,ba?

Badakit nik herrixka bat, hiru auzo izan eta hiruretako bakoitzean hizkera bereizia duena, doinuan eta aditz laguntzailearen erabileran. Eta hori, Euskal Herrian ez ezik, gaineruntzeko laterri eta hizkuntzetan ere berdintsu gertatuko delakoan nago ni.

Euskarara batutik sartu direnak nagusi diren lekuetan, zein neurritan da baliabide egokia inguruan, hurbil antzean, bizi-bizirik dagoen hizkera moldea?

Barka biezat galdera hauek bere buru ederrean egosi dituen dena delakoak, baina, oraingo hau benetan traketsa atera zaio. Hainbeste hitz erabili ezkerro, argixeago edo zehatzago egin zezakeen, ba! Gazteago nintzela azterketa-orriaren aurrean ohi bezala sentiarazi nau. **Euskarara batutik sartu...** Esamolde orijinala atera zaio behintzat. Bai, baina, zeintzu ote dira.?

Erdaldun jaio eta ikastetxean euskaldundu direnak? Ala, euskaldun berriengandik euskara batudun jaio direnak? Bigarren sail hau ere geroz eta mardulago bilakatzen baitihoakigu azken urteotan. Biengatik ariko al da! Nik behintzat halatzat hartuko dut galdera.

Motzean erantzungo dut. Hara: Berebiziko mesedea egingo dio jende horri, **hurbil antzean, bizibizirik dagoen hizkera molde** horrekin ahalik eta harremanik estuenean bizitzeak, sustraietatik elikatzen den landarearen freskura eta edertasun mardula lortzeko bidean jarriko baita.

Zenbait euskal fonema **ahozkatzerakoan euskara batuak** bailara bartzuetan aurkitu **dituen arazoak** edo ebaketa ezberdinak **direla eta, Euskaltzaindia lehen araugomendioak laster ematekotan** baldin badabil, auzia esku onetan dagoela eta lasai itxaroteko esatearekin aski litzaidake, noski. Alta, bitartean eta gero ere, nork berean ikasi duen ebakera jatorra erabiltzeko inork ez luke lotsarik behar, nahiz eta Euskaltzaindiaren zehaztapenak aintzat hartu eta jarraitzeko gai izan gaitezen ahaleginak egitea ere beharrezkotzat jotzen dudana.

Hauek honela, ez da batere eskasagoa doinuari dagokion eta eskola-euskarak ekarri digun arazoa. Baina, **8. liburuari** utziko diogu honen erantzuna. Izango al du nork emanik!

EMOZIO, AMETS ETA BIZIPENAK “BIZIARAZIZ”

Lurdes Intxausti

Dagoeneko bide dexente urratu du “Eskola Antzerkigintza” proiektu honek, gure ikastetxeetako hizkuntza nahiz hezkuntzaren aberasgarri. Hori- xe da, nire ustez egitasmoaren funtsa, zuen esku geratuz gainerantzekoa. Asko zarete hala sinesturik, langintza oparoa burutu duzuenak: emaitza begi-bistakoa da. Bejondeizuela!

Liburuxka honetan agertzen diren antzezlanen atzetik, ilusioz burututa- ko lan mardula dago dudarik gabe. Baina ez da inondik inora ispilu baka- rra, izan ere, ugari dira argitalpenaren mugak eraginda, aukeraketa lanean aritzen garenok urtez-urte atzean utzi behar izaten ditugunak. Ikastaroetako partaidetza berak, irakasleriaren kezka eta prestakizun gosea adierazten ditu. Era berean, ugari zarete jada antzezlanak hautatzen, moldatzen, itzul- tzen edota sortzen nahiz ikasleekin lantzen gure aldean ordu asko sartuta- koak. Bejondeizuela berriro ere!

Bitarteko lagungarriak eskaintzen saiatu izan gara eta lortu dugulakoan nago. Poz honek eraginda ausartu naiz sarreratxo hau prestatzera. Eginki- zun zaila suertatu zait ordea oso. Asko eta oso ondo esan da, oro har, an- tzerkigintzari buruz nola eskuartean duzuen bide horietatik hala bibliografi mailan ziurrenik ezagutuko duzuen zerrenda luzean.

Antzerkia omen dugu arterik zaharrena! Grekoen garaietara itzuli be- har alajaina!

Antzezten den gertakariaren hariari jarraikiz, jokalariek jende aurrean ematen duten ikuskizuna bezala definitzen digu hiztegiak.

Hizkuntza nahiz hezkuntzaren lanketarako prestutasuna erantsi dizkiot hasieran antzerkiari. Ikus-entzunezkoen garaian, informatika munduak es-

kaintzen digun onuragarritasuna ahaztu gabe ere, arte zahar bezain berria den antzerkiaren alde apustu egiteko gonbitea luzatu nahi dizuet.

Jaun-andreok, inoiz bitarteko bizirik izan badugu hezkuntza lanetan, horixe dugu antzerkia. Bizia bai, bizi egiteko delako, bakoitzak bere barruan, antzezle nahiz ikusle, emozioak, sentimenduak, bizi izaten dituelako.

Estetikak joka dezakeen paper eraginkorra baino are sakonago dira esperientzia kolektibo honen ondorioak. Antzerkiak isladatzen du hizkuntza-ren esku dagoen intentsitate sinboliko guztia, emozio, amets eta bizipenak “bizaraziz”.

Zuen barnean guzti hau inoiz sentitu izan baduzue, haurrak kutsatuko dituzue eta hori, gurpil zoro gera ezin bilakatuko da, ze, horretan behintzat, haurrak beraiek maisu dira: inongo teorizaziorik gabe, jolas bat baizik, antzerkiaz gozaten dute; agian guk baino hobeki eta, horrekin, jorraturik duzue bidearen erdia. Ekin eta jarrai!

“ASTE BURU AZTORATUA”

Josune Otxotorena eta
DBH 1. mailako ikasleak
Komedia
Arantzazuko Ama institutua
Donostia
1997

GAIA

Anai-arreba batzuk Amonaren etxera joan beharrean aurkitzen dira, gurasoak kanpora doazelako. Amonaren etxean bihurrikeriak egiten dituzte. Hurrengo egunean, katekesian, beste hainbeste. Gerora izebarenean ere gorabeherak dituzte. Azkenean berriro Amonarenera. Gurasoak itzuli eta haurrak jasotzen dituzte.

PERTSONAIAK

Nerea

Andoni

Amona

Xerapio (1. bertsolari aurkezlea)

Antton (2. bertsolari aurkezlea)

Apaiza

1. aingerua

2. aingerua

Beste bi aingeru

Izeba

Burusoila

Karioko

Bi mozkor

Udaltzaina

Ama

Aita

2. Amona

Xerapio:

Egunon denoi, neska mutilok,
hemen gara antzezleok.

Zuentzat zer bait prestatu dugu.

Arantzazuko Anarkook

une eder bat igarotzeko,

itzal itzazue argiok.

«Asteburu bat aztoratua»

ikusteko presta denok.

Antton Ikasle onak gerade eta hor gabiltza jira-bira. Irakaslea atzetik xaxan beti txapadan ari da. Gure antzerkian nagusiena bihurrikeriak dira; oraintxe bertan jar zaitetze ba, ume hauexei begira.

I. EKITALDIA

(Dekoraturua: Amonaren baserrian, mahaia mantelaz estalita, aulkia kojinarekin, marrazkiak hormetan, armairua, leihoak)

1. agerraldia

(Atea jotzen dute. Amona atera inguratzen da eta, irekitzean, zarata entzuten da. Ilobak, neska mutilak, sartzen dira)

Nerea Kaixo, amona!

Andoni Aupi, amona!

Amona Kaixo, nire bi pottokoak! Ai, aspaldian ikusi gabekoak! Zenbat hazi zareten! Bai handiak egin zaretela!

Nerea Bai, amona, bai, Coca Cola edaten dugu eta oso martxo-soak gara.

Amona Ai, nire pottokoak... Zer dela eta bisita zoragarri hau? Nora joan ote dira oraingoan zuen gurasoak?

Andoni Haiek «hortik-porahi», eta gu propina bila. *(Behatzez diruaren keinua eginez. Nereak ukondoarekin jotzen du, disimuluz joka dezan)*

- Amona** Zer propina, hemen ez dago propinarik, hemen propinak lortzeko lan egin behar da!
- Nerea** Baaaaai, gu laguntzera etorri gara, e! Zer uste zenuen, ba?
- Andoni** Gu, hasten garenean, langile onak gara!
- Nerea** (*Farrez*) Hastea falta.
- Amona** E? Zer esan duzu?
- Andoni** Ez, ezer ez, gure gauzak...
- Amona** A, beno! Zuek ez zarete geldirik egotekoak eta honez gero, goseak izango zarete, ez da?
- Umeak** (*Sabela eskuaz igurtziz, bueltaka*) Uf! Ez dakizu zuk ondo! Kontzertu ederra daukagu sabelean!
- Nerea** Andoni, entzun, entzun (*Belarria sabelean jartzera gonbidatuz*). Krooooo!
- Andoni** Kriiii, hori bibolina. Nirearekin duoa egin dezake.
- Amona** Beno ba, tortilatxo bat prestatuko dizuet. Ui! Ez dago arrautzarik.
- Nerea** Lasai, amona, joango gara geu oilategira.
- Amona** Oilategira? Ez gero niri harrotu oilategirik, e!
- Andoni** Ez amona! Hemengo oiloak lasaiak dira eta arrautza mor-
doia erruten dute.
- Amona** (*Poltsatxo bat ematen die*) Zoazte, kontuz ibili eta zaindu oiloak! Kontuz arrautzak puskatu gabe gero!
- Andoni** Bai, oso kontuz ibiliko gara. (*Umeak joan egiten dira. Amona sukaldea txukuntzen geratzen da*)

Amona Ai, bitartean gona gorria josiko dut. (*Trasteak hartu eta josten hasten da, baita kantari ere*)

Nerea (*Irtetean*) Zuk hartu arrautzak, nik poltsan sartuko ditut eta!

(*Kanpora irten direnean, oilo zarata entzuten da, oilategia gertu balego bezala. Geroago Nerea, arrautzekin datorrella, ateko koskan estropezu egin eta erori egiten da*)

2. agerraldia

Nerea (*Lurretik*) Koska madarikatua. (*Arrautza puskatuak Andoniri erakutsiz*) Hara gure arrautzak!

Andoni Baina zenbat puskatu dituzu?

Nerea Ez dakit, denak tortillarako moduan daude!

Andoni Goazen amonarengana.

(*Umeak lumaz eta hautsez beterik sartzen dira*)

Andoni (*Arropa astinduz*) Iepa, amonatxo! Hementxe gara arrautzak eta gu. (*Arrautzak ere astinduz*)

Nerea (*Poltsa erakutsi egiten dio*) Begira? Nik ekarri dizkizut arrautzak, e! Andonik jaso bakarrik egin ditu.

Amona Ai zer iloba txintxoak ditudan, ez besteak bezalakoak. E!!! (*Harrituta*) Hor al daude arrautzak?

Andoni Arrautzak bai, nola? (*Zalantza adieraziz*)

Amona E? Zer ba? (*Begiratu eta higuin aurpegia jartzen du*) Hauek al dira nire oilo politek jarritako arrautzak?

Andoni Lasai amona! «Lotite»rekin pegatuko ditugu. (*Amona, amorru bizian, oihuka hasten da*)

Andoni Zeuden arrautza guztiak ekarri eta horrela ematen al dizkiguzu eskerrak?

Amona Denak ziren gainera? Nik zer egin dut hau merezi izateko. Jesukristo, Amabirjina, zu zara zeruko erregina!

Nerea Ui, errima eta guzti! Bertsolaria dugu guk amona.

Amona Nik ditut bi iloba
Andoni, Nerea
bisitan etorri ta
suerte nirea.
Ondo zaindu nahi nitun
iloba pareta
kristona egin didate
oiloak marea
kanpora botako itut
harturik sardea.

(Umeak txaloka hasten dira)

Amona Alde, alde agudo nire begien bistatik! Ea mendi aldean, animalien artean, lasaitzen zareten eta errespetatzen ikasten duzuen! Animaliak errespetatzen, eta batez ere amona.

(Umeak beldur aurpegiarekin)

Nerea Uuuf! amona honek...

Andoni Uuuf! Nola haserretu den! Kea dariola dabil! Bertsolari txapelketara joan beharko luke lasaitzera.

Nerea Ea ba zer animalia topatzen dugun! Zuk ezagutzen al duzu alerik?

Andoni Bai horixe! Txerria, zaldia, behia, oiloa, erlea, txinaurria, Nerea...

Nerea Andoni, Andonitxo, Andonitegi, Andonitza, Andoninea...

Andoni Beno, beno, aski da! (*Bat-batean arratoia ikusten du*)
Hara hor, arratoia. (*Atzetik Antton dator korrika aitzurra eskuan*)

Antton Kendu, kendu! (*Aitzur kolpea lurrean*)

Andoni Atentatu bat! Goazen hemendik, Nerea!

Nerea Begiak ireki, koldarra!

Antton Satorrik ikusi al duzue?

Nerea Zer da satorra, arratoi antzeko hori?

Antton Lurpetik zuloa eginez joaten den animalia. Hori gutxi non-bait eta, gero, lur ttonttorrak uzten dituen.

Andoni A, zizareak!

Antton Zer galaxiatan bizi zara zu?

Andoni Coca Cola-renean (*Nereari begiratzen dio*)

**Nerea eta
Andoni**

Zer gara gu?
Nor gara gu?
Coca Cola zaleak
Zer gara gu?
Nor gara gu?
Coca Cola zale gara gu!

(*Eszenatokiaren alde batetik irteten dira*)

Antton *(Satorrak bilatzen hasten da)* Zer arraroak diren ume hauek! *(Alde batetik ezkutatu egiten da eta berehalako batean ateratzen)* Ai nire burua! Zer egin didate ume arraro hauek? *(Negar eginez)* Orain baja hartu beharko dut, ea buruko kolpe hau sendatzen zaidan! Kattalinengana joango naiz kexatzera.

3. agerraldia

(Antton sartzen da amonaren sukaldean, orru bizian)

Antton Kattalin!

Amona Zer duzu, Antton? Zer da?

Antton Zer dudan, buruan min eta barruan ernegazio galanta!

Amona Zergatik?

Antton Zergatik? Hargatik!

Amona Baina, zer gertatu da? Esan behingoz.

Antton Gertatu ez, zer egin didaten...!

Amona Nork egin dizu?

Antton Nork? Zure bi iloba maite horiek, deabru, Satanas txikitxo horiek! Ez dira ba satorra akabatzen hasi! Eta ia - ia ni akabatzen naute.

Amona Ondo guapoa zaude, ba!

Antton Begira, lehenengo nire buruan danba! Eta gero nire baratza guztia, apurtuta. Letxugarik gabe zer egin behar dut nik?

Amona A, horregatik dituzu letxuga hosto apurrak belarrietan.

- Antton** Demonio kalamidadeak!
- Amona** Ez da hainbesterakooo! (*Beste aldera begiratu*). Zer egingo dugu, ba? Zer egin genezake bikote hau pixkat xuxentzeko?
- Antton** Bi belarrietatik hartu eta xuxen-xuxenean letxugak aldatzera!
- Amona** Horiekin ez duzu letxuga askorik aldatuko. Hobe izango dut Kristau Ikasbidera bidaltzea.
- Antton** Ea zerbait egiten duen Don Luisek! Ala, emaidazu Jainkoaren izenean baso bat ur aspirina batekin.
- Amona** Oraintxe!

(*Teloia ixten da*)
- Xerapio** Antton laguna izorratuta
geratu zaigu baratzen
baja hartuta etxera joan da
haruntz honunzka balantzen
ume alprojak jarriko ditu
bere doinuz laster dantzen
aspirina bat hartu du eta
ohean gustura etzan
- Antton** Hemen nauzue, kaskarrekoa
harturik daukat buruan
ganbaratikan jota nagola
sufri beharra munduan
bihurri horiek zuzentzekotan
bi kankateko kaskuan
edo bestela mirariren bat
apaiz horrexen albu

II. EKITALDIA

(Dekoratua: elizako sakristian, gurutzetxo bat zintzilik erdian. Parean besaulki bat, banku luze bat alde batean zapi batez estalia; beste aldean atrila, liburu eta mikroarekin. Atzean poster bat)

1. agerraldia

- Nerea** *(Andonirekin agertuz)* Ui, Andoni, zer leku polita! Gainera, aldagela bat dirudi; sakristia dela esatea ere...
- Andoni** Leku polita, leku polita. Edozein leku da polita zuretzako!
- Nerea** Edozein ez, baina hau interesgarria da, ziur arte erromanikoa dela.
- Andoni** Erromanikoa ez, gotikoa.
- Nerea** Gotikoa, erromanikoa, mudejarra edo dena delakoa... puskatzen da ala ez da puskatzen?.
- Andoni** Goazen probatzera!
- Nerea** Ez, Andoni, nahikoa arazoa izan dugu eta. Egia esaten badizut... egarriak nago.
- Andoni** Ea badagoen hemen zerbait... *(Behatzarekin keinu eginez)* Ui, botila bat! Alkoholik gabeko ardoa izango da, apaizak ez dira mozkortzen eta.
- Nerea** Ekarri ba. Ea badaukagun bizkotxorik.
- Andoni** *(Miaketan hasten da. Mezetako ostia antzekoak topatzen ditu).* Honek balio al dizu?
- Nerea** Bai, edozer gauza. *(Tragoxka bat ematen dio)* Zer ondo?

Andoni Zer, goxoa?

Nerea Bai, bai. (*Beste trago bat, beste bat eta beste bat, nahikoa egin arte*)

Andoni Zuk zenuen egarria, zuk!

Nerea Andoni, ondo al zaude? Bi zatitan ikusten zaitut. Hau logura!

Andoni Ez zinen ba mozkortuko, ez?

Nerea Eeeez (*Begiak itxi eta lokartu egiten da*)

2. agerraldia

Xerapio (*Agertuz*) Baina zer gertatu da hemen?

Andoni Ezer ez, Nereak logura pixkat duela, besterik ez.

Nerea Hori, hori (*Mozkorturik*)

Xerapio Zer da? Mozkorra ala ingelesa?

Andoni Euskalduna eta mozkor xamarra. Egarriak zegoen, apaizaren ardotik edan du eta...

Xerapio Apaizaren ardotik....(*Gurutze santua eginez, kaxan begiratzera joaten da*) horrek balio duenarekin, eta begira zenbat gradu dituen. Umeez ezin dute alkoholik edan, horrek egiten duen kaltearekin. Eman diezaiogun ura! Eta ur be-deinkatua bada, hobe!

Andoni Ba, nire iritziz, kanila azpian jarriko bagenu, hobe!

Xerapio Ala, goazen laguntzera. (*Hirurak joan eta, berehalakoan, Andoni sartu eta bazterrak miatzen hasten da. Liburuen artean bat aurkitu du orri inguruak urrez margotuak dituenak*)

- Andoni** Ui, ez dut ezer ulertzen. Zer liburu arraroa!
- Xerapio** (*Sartzen da*) Ekarri hori hona! Ez dakizu hemen dena datorrela?
- Andoni** A, bai, orain... «Orrialde horiak»
- Xerapio** (*Ernegaturik*) Hamar manamenduen liburu sakratua da hau, Ebanjelioena, Salmoena, Epistolena,... (*Besoak altxata dituela. Alboetako argiak piztu egiten dira eta aingeruak sartzen koru modura eginez*) Aaaa, hau da liburu honetan dagoena! (*Linboan dago oraindik, baina bat-batean lurra hartzen hasten da*) Ui, zertan ari naiz? Mutiko, non zaude? (*Efektu guztiak desagertu egiten dira eta ...*)
- Andoni** Hemen nago, zure ondoan (*Eskuak begi aurretik pasatzen dizkio*) Zer mundutan zaude zu?
- Xerapio** (*Burua astinduz*) Aingeruen lurralderaino joan naizela ustedut, baina orain hemen nago, eta zure arreba nola dagoen ikustera noa.
- Andoni** (*Liburuari begiratzuz*) Hemen dena dator. Ea ikus dezagun, hurrengo etsamina... Mate, ez dator, Natur ere ez dator, ea Curro non dagoen...
- Xerapio** (*Nerea berarekin dakarrela*) Hau hobeto dago behintzat.
- Nerea** Andoni, apañero, zer gertatzen da?
- Andoni** Aibala, Nerea, egarria pasa al zaizu? Orain kazkarreko min ederra izango duzu, ze.. kriston zepelina harrapatu duzu. Hobeto zaude? Bestela, liburu honetan dena datorrenez, soluzio...
- Xerapio** (*Liburua eskuetatik kentzen dio*) Ekarri hona, liburu honetan dena dator eta.

- Nerea** Orrialde horiak?
- Xerapio** Aaaa! Eeeez! Hau nire inspirazioa da. (*Begiak okertu eta efektu bereziak aingeru eta guzti berriro ere. Nerea eta Andoni harrituta*)
- Andoni** (*Biblia hartzen du eta aingeruak jaitsi egiten dira*) Ea ba, nola egiten duzu? Erakutsi!
- Xerapio** Liburu hau sakratua da (*Aingeruak altxa eta kantari*)
- Andoni** Ea, ea (*Aingeruak behera*)
- Xerapio** Sinetsi egin behar da (*Aingeruak gora. Ernegaturik*) Hamar manamenduen liburu sakratua da hau, Ebanjelioena, salmoena, epistolena,... (*Besoak altxata dituela. Alboetako argiak piztu egiten dira eta aingeruak sartzen koru modura eginez*)
- Aingeruak** Aingeruak gera
Kanpaitik behera
Xerapio honentzat
laguntza ematera!
- (*Aingeruen erlojuetako batek alarma jotzen du*)
- 1. Aingerua** Mugi, Logroñora joan behar dugu eta!
- 2. Aingerua** (*Erlojuari belarria jarriaz*) Ixo... (*Denak inguratzen dira*) Gooool! Beno, gu bagoaz, Xerapio, aingeru musika behar baduzu, kaset honetan daukazu grabatua.
- Xerapio** Zoazte, zoazte, Jaunaren bakean.

3. agerraldia

(Apaiza sartzen da. alkandora alderantziz jantzia eta masailan muxu arrastoak dituela)

- Apaiza** Zer gertatzen da hemen, Xerapio? Dotrinak bukatu al dituzu?
- Xerapio** Ez, ez naiz hasi. Arazo batzuk izan ditut eta... *(Umeak alde batean txintxo aurpegiz, ezer egin ez balute bezala. Xerapio haserre)*
- Apaiza** Eta zer arazo, Xerapio? Zuk sortzen dituzun horietakoren bat?
- Xerapio** Egia esan, ni ez naiz izan, ni aingeruekin ari nintzen hizketan.
- Apaiza** Ai Xerapio, beti zure mundu horretan! Noiz jaitsiko zara lurrera?
- Xerapio** Gehiago? Ba al dakizu umetxo hauek gure Ebangelio liburuari «Orrialde Horiak» deitzen diotela?
- Apaiza** Hauek, Kattalinen ilobok ez zekiten hori? Maizago etorri beharko dute dotrinara!
- Xerapio** Ez, ez, ez, nirekin ez behintzat.
- Nerea** Bai, bai, bai, zurekin ez bada Don Luisekin, gainera muxu arrastoak dauzka masailetan. *(Xerapiok harriturik begiratzeko dio)*
- Andoni** Zer, andregaiarekin egon al zara?
- Apaiza** *(Eskuekin masailak igurtziz)* Nik ez dut andregairik. Ni zure amona Kattalinekin egon naiz.

- Nerea** A, gure amonarekin ibiltzen zara?
- Apaiza** Hori ere galdetu behar? Pentsatzea ere.
- Andoni** Ba, alkandora ere alderantziz jantzia ekarri duzu (*Xerapio Gurutze Santuaren eginez*)
- Apaiza** Hau moda berria da eta!
- Nerea** (*Ironikoki*) Eta muxuena ere bai?
- Apaiza** Aski da. Zuen amonarekin egon naiz, eta zer?
- Andoni** Amonarekin ibiltzen daaaa! (*Kantari bezala*)
- Apaiza** (*Oihuka*) Hitz egiten egon naiz!
- Nerea** Ez, ezkontzea espero dut, bestela...
- Andoni** Amonarekin ibiltzen daaaa! Amonarekin ibiltzen daaaa! (*Apaiza jarraika hasten zaie*)
- Apaiza** Ume demonioak! Etorri hona! (*Desesperatuta*)
- Xerapio** Non daude nire aingeruak, kasetea jarri beharko dut!

(*Umeak halako batean soka batetik zintzilikatzen dira eta kanpai hotsa entzuten da*).
- Xerapio** Oraingoan, aingeruen ordeztu, kanpai hotsa.

(*Umeek alde eginik, apaiza desesperaturik agertzen da*)
- Apaiza** Hau ere bai! Orain kanpai joka. Ai ene, herriko atso guztiak etorriko dira!
- Xerapio** Gutxienez alkandora ongi jarri eta muxu arrastoak ken itzazu.

Apaiza (Urduri) A, bai. Baina hau ez dut nik konponduko, bi deabru txiki horiek konpondu beharko dute.

4. agerraldia

(Jendea sartzen da eta umeak alde batean daude)

Jendea Gaur meza aurreratu al duzue?

Xerapio Ez, baina hemen zaudetenez gero, azalduko dizuegu zer gertatu den. Zatozte umeak! Esaiezue zer gertatu den!

Andoni Ba, Xerapiorekin gu txintxo ari ginen portatzen, ez da? Baina bat-batean apaiza agertu da alkandora alderantziz jantzita eta masailetan bi muxu eder hartuta zituela. Gero deskubritu dugu gure amonarekin egon dela.

Nerea Ezagutzen duzue gure amona, Kattalin izenekoa. Senargaia apaiza du!

Jendea *(Harriturik)* Aaaa! Nola liteke hori? Egia al da?

Kattalin Hori gezurra da, gezur galanta, gainera! Bururatzea ere! Etxean laguntzen aritu zait. Horretarako kendu du alkandora, baina, galtzak ez, e! Eta eskertzeko bi muxu eman dizkiot. Hori da dena. Argi al dago?

Andoni Orduan hanka sartuko genuen.

Apaiza Eta ez bat, baizik eta biak!

Nerea Barkatu...

Andoni Bai, bai, barkatu...

Apaiza Ala, Kattalin, hartu ume hauek eta eraman itzazu etxera, sartu logelan, itxi giltzaz eta giltza, harrika bota. Ez ditut nire begien aurrean ikusi nahi eta.

**Andoni
eta Nerea**

Baina guk ez dugu ezer egin. Eeeee! (*Amonak belarritik heldu eta kalera eramaten ditu. Jendea ere joan egiten da*)

Xerapio

Ai, azkenean bakea. Berriro ere bakea! (*Liburua hartzen du eta baita aingeruen kaseta ere. Teloia ixten da*)

Antton

Ikusi behar ikustekoak
Xerapio burutik jota
pena ematen zun, egia esan
aingeruekin dago ta
«hoi» esaten du, hori sinisten
dena gezur izango da
baina umeak bistatik galduz
suertea diot nik opa

Xerapio

Ni ondo nago burutik sano
hori bakarrik egia
aingeruekin pake ederra
umeekin sofrikaria
joan dira behintzat asko pozten naiz
ume bihurri paria
ea Currokin elkartzen diren
eginez ibilaldia.

III. EKITALDIA

(*Dekoratua: kalean. Erdi-erdian, izebaren etxe zabalaren irudia, azpian paperez estalitako bi mahai dituela; gaintik kartoizko leihoak gortina eta guzti, atzean toalla bat; albo batean amona baten etxea, mahai batekin; beste aldean beste etxe bat, zuhaitz bik inguraturik*)

1. agerraldia

(*Andonik eta Nereak baserritik ihes egiten dute eta kalean pilotarekin jolasten hari dira. Ertz batean bi mozkor dau-de, lurrean eserita*)

- Nerea.** Zer egin genezake orain?
- Andoni** Jolasen bat asma dezakegu.
- Nerea** Eta tinbreak joko bagenitu?
- Andoni** Ideia on bat izan duzu behingoagatik
- Nerea** Utzi berriketari eta goazen tinbreak jotzera! (*Horretan hasten dira*)
- 2. amona** (*Leihora joaten da begiratzera. Ez da inor ageri. Nerea eta Andoni ondoko portalean ezkutatu dira*) Nik ateko tinbre-hotsa entzun dut, ba! (*Sartu eta leihoa ixten du*).
- Andoni** Beste itzuli bat egingo al duzu?
- Nerea** Bale! (*Bigarren aldiz Amonatxoaren etxean txirrina jotzen dute*)
- 2. amona** (*Txirrinak jo orduko, leihoan agertuz*) Lotsagabe horiek! Alde hemendik, orain ikusiko duzue, ume mukizuok!
- Andoni eta Nerea** Amona, sorgina, zimurrez betea...
- 2. amona** (*Balde bat ur botatzen die*) Ea eskarmenturako balio dizuen!
- Andoni** Atso zahar horrek blai eginda utzi gaitu!
- Nerea** Nora joan gaitezke piura honekin?
- Andoni** Izebaren etxera joan gaitezke lehortzera.
- Nerea** Hara hor dator izeba!
- Izeba** Non busti zarete horrela?

- Andoni** Lagunekin ibili gara, urez betetako puxikak elkarri botatzen.
- Izeba** Lehortu horko toalla horiekin.
- Nerea** Arratsaldea «txafatu» zaigu.
- Andoni** Oraindik ez, beste zerbait asmatuko dugu.
- Izeba** Meriendatu nahi al duzue?
- Nerea eta Andoni** Bai, bai. Geuk prestatuko dugu.
- Andoni** Arrautzarik ba al duzu, izeba?
- Izeba** Zertarako?
- Andoni** Patata tortila prestatzeko.
- Izeba** Arrautzak baditut. Baina patatarik ez. Ondoko goxotegira joango naiz txokolate bila. Gustatzen al zaizue txokolatea?
- Nerea** Bai, baino nahiago dugu «Bollicao» bat.
- Izeba** Ez, horrelako zikinkeriarik ez duzue nire etxean jango. Txorizo pixkat ekarriko dizuet.
- (Izeba, txakurra hartuta, kalera joaten da. Nerea eta Andoni leihoez barruko aldera pasatzen dira.)*

2. agerraldia

- Andoni** Nerea, hartu hozkailutik arrautza batzuk, eta, ekarri itzazu. *(Lasterka joaten da Nerea)*
- Nerea** *(Arrautzak ekarri eta erakutsiz)* Zer egin behar dugu hauekin?

Andoni Zu ixo eta ikusi. (*Momentu horretan, burusoil bat pasatzen hasten da eta Andonik arrautza botatzen dio*)

Burusoila Zer da hau? Arrautza hondakinak! (*Burusoila gora begira dago ea norbait ikusten ote duen. Geroxeago, norbait agertzen da kale-kantoitik*)

3. agerraldia

Andoni Begira Nerea nor datorren hor.

Nerea Gure gelako Karioko da. (*Karioko kalean gora doa ilea apainduz eta txupa atonduz; Andonik arrautza pare bat jaurtikitzen dizkio leiho parera iritsi denean*)

Karioko Nor ausartu da niri ilea harrotzen eta txupa zikintzen? (*Go-rantz begira hasten da ea inor ikusten duen leihoan. Andoni eta Nerea ikusten ditu barrez.*) Zuek izan behar zenuten! Udaltzainari deitzera noa! Sakelako telefonoa ateratzen du eta udaltzainari deitzen dio) Udaltzaina? Porru kaleko 27. atarian nago eta leihoetatik arrautzak botatzen ari dira. Etor zaitez, lehenbailehen!

(*Berehalakoan udaltzaina agertzen da*)

Karioko Pisu horretako eskuinetako leihoan, Nerea eta Andoni ize-neko bi ume bihurri horiek, ezagutuko dituzu, noski, bi arrautza bota dizkidate eta begira zer itxura dudan orain. Zerbait egin behar duzu!

Udaltzaina Bai, ezagutzen ditut, baina ba al duzu testigurik?

(*Kalearen beste aldean bi mozkor agertzen dira, gertaeran parte hartu nahian*)

Mozkorrak Ba...i, gu hemen, hip, geunden hori, hoo...ri, hip, ger...tatu denean eta aurre...rago, hip, buru, buru...soil bat...i bot....a diote arrautza, hip.

(Halako batean, izeba agertzen da txakurrarekin)

Izeba Zer gertatzen da hemen hainbeste jende egoteko?

Udaltzaina Zu al zara bi ume horien ama?

Izeba Ez, izeba naiz.

Udaltzaina Jendeari arrautzak botatzen ibili dira.

Izeba Nik konponduko ditut!

Udaltzaina Orduan, zure kontu utziko dugu dena. *(Udaltzainek eta besteek aldegin bezate)*

Izeba Andoni, Nerea! Jaitsi zaitezte berehala, ziztu bizian!!!

Andoni Barkatu, izeba!

Izeba Ezin zaituztet bakarrik utzi, ez eta ordu-erditxo bat ere. Edozein astakeria egiteko gauza baitzarete. Hoberena zeuen amonarengana eramatea izango dut. Ea hark zer dioen!

(Nerea eta Andoni, buru makur, amonaren etxera abiatzen dira)

Mozkorrak

Guk ikusi deu eder-ederra
jo diotela buruan
arrautzaz bete kalparra eta
proteinak inguruan
txanpu ederra bota diote
buruan erdi-erdian
hoi haserrea hartu duena
Kariokok barrenean.

Karioko

Kexatzera joan eta alkateak
Atea itxi dit danba
mundu honetan justizi gutxi
arrautzak bai zanba-zanba

Udaltzaina

Karioko jauna, ez jarri horrela
errespeturik pittin bat
nik agintzen dut kale honetan
zoaz etxera karanba!

IV. EKITALDIA

(Amonaren etxean)

1. agerraldia

(Izeba bi umeekin amonaren etxera iristen da)

Izeba Har itzazu zuretzako; denboraldi luze batetarako bisitaldia egin didate.

Amona *(Ernegaturik)* Orain ere egin al duzue zuenetakoren bat? Zuen gurasoei deitzera noa, honez gero etorriak izango dira eta.

**Andoni
eta Nerea** Ez, ez amona! Txintxoak izango gara!

Izeba Txintxoak!

Amona *(Etsita)* Oso nekagarriak zarete, eta nire adinarekin ezin dut gehiago zuen kargu egin.

Izeba Eta nire adinerako ere bai. Beraz, banoa, agur! *(Bihoa)*

**Amona
eta umeak** Agur!

Amona *(Ilobei)* Eseri hemen eta txintxo egon, telebistari begira, ni zuen gurasoei deitzera noa eta.

2. agerraldia

(Ustekabean gurasoak sartzen dira)

- Aita** Kaixo, ama. *(Muxu ematen dio)* Kaixo nire txintxoak!
- Amona** Bai, hori batez ere! *(Haserre)* Ixilik egongo naiz, e! Hemen ez baitago hitzik gertatutako guztiaren berri taxuz emateko!
- Ama** *(Sartuaz)* Ai amatxo maitea, ume zoragarri hauekin ondo pasako zenuen, ez da?
- Amona** Ez dakizu ondo, oso dibertigarria izan da, baina orain zuei tokatzen zaizue. Eraman nire begien bistatik. Eta lehenbailen. *(Belarrietatik heldu eta biak gurasoei ematen dizkie)*
- Aita** Beno ba, bagoaz ziztu bizian. Deskantsatzen utziko dizugu. Ea, umeak eman muxu amonari. *(Belarriak estaliz abiatzen dira)*
- Ama** Zeren beldurrez zabilzate, belarriak tapatuta?
- Umeak** *(Buruarekin ukazioa, inuxente aurpegia)* Gu beldurrez? Ke ba, haize handia dabil eta horrexegatik da.
- Ama** Orduan, *(Amona agurtuaz)* joan egingo gara.
- Aita** Bai, ama, zerua utziko dizugu.
- Amona** Ez dakizu zuk ondo, gaztainondo horrek! *(Gurasoak eta umeak joan egiten dira)*

3. agerraldia

- Amona** Azkenean bake santua! *(Aingeruak agertzen dira. Giro mistikoa. Argiak, kantak, amona linboan. Bat-batean Andoni sartzen da eta efektu guztiak desagertu egiten dira).*

- Andoni** Jertsea ahaztu zait, amona.
- Amona** (*Erori egiten da, hankan min hartzen du*) Ai, nire hanka.
- Andoni** Zer duzu, amona?
- Amona** Zu ikusteko gogorik bat ere ez. Agur!!!
- Andoni** Agur, ba (*Joan egiten da*)
- (*Berriro efektu mistikoak, amona linboan*)
- Amona** Hau bai zerua, aingeru eta guzti nagoela ematen du. Umeak beren gurasoentzat eta aingeruak niretzat! (*Aingeruak aurreratu egiten dira eta amona inguratzen dute*) Asteburu hau bukatu da behintzat, hurrengoan nire aingeru eta guzti Fiterora edo Arnedillora, edo nork daki, agian Caribera, Currorekin!
- Denak** Pasadizoak bukatu dira
gure antzerkia ere bai
Amona onak merezi du ta
orain eman beharko jai.
- Amona** A zer bake eta lasaitasuna,
orain bai nago ni lasai
eskerrik asko zuek denori
jator eta zintzo jarrai.

DENA IZANGO DA IZAN BEHAR DUEN BEZALA

Izaskun Elizaran eta
DBH 1-2. mailako ikasleak
Komedia
Uzturpe Ikastola
Ibarra
1996

GAIA

Gaztelu batean bizi den familia original baten gorabeherak.

PERTSONAIAK

Yussepe (gazteluko jabea)
Sofia (koadroan dagoena)
Orion (konkorduna)
Anette (neskamea)
Zotz (mamua)
Ziztrin (mamua)
Ernestina (lehengusina)
Benito (lehengusinaren senarra)
Kattalin (alaba)
Xokrates (semea)

I. EKITALDIA

1. eszena

(Gaztelua. Gazteluko saloia. Hemengo bizimodu normala agertzen da. Saloia, ez oso dotorea baina tira. Koadro eder bat. Azpian, tximinia suaz edo armairu baxu bat. Sila handi pare bat, terziopeloz tapatuta. Alfonbrak lurrean. Gramofonoa, teleskopioa edo pergaminoak, liburu zaharrak. Verdiren musika jarrita)

- Yussepe** *(Keinuak eginez, erdi kantari erdi teleskopiotik begira)* La, la ra la ... Ui, ui.ui, izar hori, izar hori ez dut inoiz ikusi, zein ote da! *(Liburu potolo batetan begiratzen hasten da).* Ea, ea, hemen...
- Anette** *(Verdiren musika jaisten da eta luma eskuan duela sartzen da, kantari)* Si yo tuvierrrra una eskoba, si yo tuvierrrra una eskoba *(Nagusiaren gosaria mahai gainean dago oraindik)* Baina, Nagusi jauna! O! Monsieur! Ez al duzu gosarrrrria jan orrrraindik! Ai mon Dieu, mon Dieu! Zerrrrr egingo dut nik honekin!!!
- Yussepe** *(Bere gauzetan dago)* Zer? Zer? Utzi, utzi! *(Bere pergami-noei begira)* Ez al duzu ikusten lanean ari naizela!!!
- Anette** *(Eskuak gerrian jarriaz)* Bai, lanean! Merrrrde!! Eta gosarrrrria zerrrrr? Nik harrrrrtu beharrrr al dut? *(Mahairantz)* Oh la la, *(Eta kantari)* Qué familia más orrrriginal!!! *(Dantzan bueltatxo bat lumarekin eta pixkanaka bandeja eramaten du)*
- Zotz (mamua)** *(Goiko aldeko panel baten atzetik agertzen da eta, maindi-rea astinduz, sustoa ematen dio neskameari)* UAUUU!!!!!!!!!!
- Anette** AIIII!!!! *(Bandejako gauza batzuk erortzen zaizkio, bera ere lurrera erortzen da)* Ze zuuuzzzztoooaaa!!! *(Altxa eta joan egiten da)*
- Ziztrin (mamua)** *(Anette doan lekuan agertzen da eta berak ere)* UAUUU!!!!!!!!!!
- Anette** *(Lumarekin joaz)* Kendu, kendu! Beti pailazzzzzoarena egiten! *(Irten egiten da)*
- Ziztrin** Aii, ai!!! Pailazo esan dit! Pailazoa ez!. Fantasma!! Fantasma naiz ni!!

Zotz (Goitik barrez) Ja, ja ja ja ja pailazo!!! Ja ja ja (*Desagertu egiten dira*)

Sofia
(koadroan dagoena) A zer zarata eta desmadrea dagoen hemen! Eta zu berriz, izarrak gora eta izarrak behera (*Gorputza mugituz, keinuak eginaz, berari zuzenduaz*) Zu bai zaudela izarretan! Begira zer itxura daukazun! Eta sorgin horrek gosari guztia eram du, seguru berak jango duela! Oh la la la eta Oh la la la... nik bai esango nizkiokela lau hitz ondo esanda!

Yussepe HEMENTXE! Hementxe dago! Hauxe da! Andromeda konstelazioan dagoen izarra da! (*Verdiren zati bat kantatzen eta erdi dantzan hasten da, pozik dagoelako. Verdiren musika hasten da*)

Sofia
(koadroan dagoena) “Basta ya!” Nahikoa da! Ixildu! Ixilik egoteko!!! (*Azkeanean makila luze batekin buruan jotzen du. Nagusia erori egiten da eta neskamea sartzen da. Sofia bere tokian jartzen da.*)

Anette (*Nagusia lurtean ikustean, korrika berarengana joaten da*) Nagusi! Nagusi! Zerrrr gerrrrtatu zaizu!!! Oh la la marreoa, txorrrabiatu egin zarrrra!!! (*Lurtean, nagusiaren burua besoetan duela, bizkarra eta ipurdia koadroaren aldera*) Oh! mon amourrrr!, nerrre nagusi maitea!!! Ahoz ahokoa egin beharrrrrko dizut! (*Makurtzen hasten denean koadrokoak ipurdikoa eman edo atximurka egiten dio*) Ai, ai!!! Nagusia! (*Nagusiaren burua lurtean utzi eta altxa egiten da, bitartean koadrokoa keinuak egiten eta Yussepe lurtean esnatzen edo mugitzen*) Atximurrrrrrka ipurrrrrrdian!!! Lotsagabea!!! (*Alde egiten du*)

Sofia Lotsagabea! Sinberguentza!! Ahoz ahokoa, eta, nire maitea, eta... horri emango dizkiot nik oh la lak eta oh lo lok.

Zu altxa zaitez hortik, bestela beste makilkada bat emango dizut eta!

Orion

(konkorduna) *(Hanka arrastaka eta eskutan liburua duela sartzean, aita lurrean ikusten du). Baina aita! Aita! (Aita jaikitzen hasten da. Semea laguntzera joaten zaio) Zer gertatu zaizu!! (Aulki handian esertzen laguntzen dio)*

Yussepe

(Erdi txorabiotuta, zodiakoko ikurrak kantatzen hasten da) Capricornio, Leo, Cancer, Aries, Libra, Virgo, Gemi... Ai! O! Seme Orion (Koadrokoak, arkuxun!., eta berak ere, arkuxun!.) Zer esango dizut ba! Arkuxun!!! Etxe honetan sorgin asko gelditzen dira oraindik eta!!! Arkuxun!!! (Koadrokoak ere arkuxun guztiak egiten ditu)

Orion

(Bere ondoan jarrita) Beno aita, lasai ibili zaitez! Orain animaliei janaria ematera noa. Zu ere presta zaitez, laster bazkaltzeko garaia da eta zu oraindik amantalarekin zaudede!

Yussepe

Zer? Amantalarekin? A bai! Izan ere,... banoa, banoa aldatzera! *(Verdiren musika jartzen da)*

2. eszena

(Orgatxo batetan mantela, serbiletak. platerak, basoak, kubiertoak)

Anette

(Pixka bat sentituta bezala, erdi negarrez) Atximurrrrra egin dit nurrre nagusiak....

Zotz

(Anetteren ondoan jartzen da eta bestean Ziztrin, maindi-rearekin mugimenduak eginaz, poliki eta berarekin jolastu nahian) Anetteri zein gustatzen zaio? Anettek nor maite du?

- Ziztrin** *(Zotzek esandakoa errepikatu nahian) Anettek nor maite? Nor maite? Ni. ni, ni mait... (maindirearekin estropozu egin eta lurrera erortzen da)*
- Anette** *(Mahaia jartzen ari da; batzuetan ipurdia koadrokoaren ingurura hurbiltzen du, eta honek mazo batekin jo nahi du, mugimendu exageratuak eginaz, baina ez du asmatzen. Anette ez da konturatzen) Bai, maite dut eta zerrrrr!!! (Mamuek laguntzen diote platerak jartzen. Ziztrinek bat hausten du eta plast!!)*
- Zotz** *(Maindirearekin astinduak eginaz) Zer egin duk? Zer egin duk? Alde egin ezak. hemendik, babalorea!!!!*
- (Ziztrin, maindirepean, burua erdi makurtuta, publikoaren ganantz joaten da eta han esertzen da. Fruta saski bat dago. Hartu eta beste aldera eramaten du maindirearekin erdi tapatuaz, denak ixiltzeko adieraziaz)*
- Zotz** *(Mahai inguruan, Anetterekin) Zer dugu gaur bazkaltzeko?*
- Anette** *Bazkaltzeko? Sukaldean ez dago ia ezerrrrr!!! (Poliki) Bi lenteja, lau patata eta zorrtzi ilarrrr, denon arrrrtean banatzeko! Mon Dieu! Mon Dieu!*
- Zotz** *Beno, beno, ea zerbait aurkitzen dudan! (Musika misterioitsu xamarra hasten da. Maindirea mugituaz, umeengana hurbiltzen da, baina ez du ezer aurkitzen. Bitartean Ziztrin fruta saskiarekin Anetterengana joaten da. Zotzek bilatzen jarraitzen du Anetteren ahotsa entzun arte)*
- Anette** *Ai! Ziztrrrrrin, Ziztrrrrrin, nirrrre kuttuna! (Berarengana hurbilduaz) Merrrrci! Merrrrci beaucoup!!! Mila eskerrrrrr! Mua!! (Muxua ematen dio. Ziztrinek fruta mahai gainean uzten du eta maindirearekin poza adierazten du)*
- Zotz** *(Haserre xamar Ziztrinengana hurbiltzen da; bestea, bitartean, sila baten gainean esertzen da, poz pozik) Zeerr???*

Anette Ui! Zer ondo ari den ikasten! Eskerrak zuei, bestela!

(Orion eta aita sartzen dira. Orion arto ale batzuk botatzen, txoriek jan ditzaten eta aita erdi jantzita)

Anette Bon! Bazkaltzerrrra!!!! *(Nagusiarengana hurbilduaz)* Oh la la nagusia!! Lazotxo hau! *(Txukuntzen eta ondo jartzen hasten da)*

(Denak esertzen dira. Musika alai bat jartzen da. Ziztrini sagar bat erortzen zaio eta haren bila joaten da, estropozu eginez. Bat-batean ate hotsa)

DAUN DAUN DAUN

(salto txiki bat egiten dute eta berriro, fuerteago)

DAUN DAUN DAUN!!!

II. EKITALDIA

1. eszena

(Orion eta Anette aulkitik altxatu dira, pixka bat beldurtuta. Yussepek mahaian jarraitzen du. Mamuak desagertu egiten dira)

Anette *(Dardarka)* Zerrrr, zerrrr izan da horrrri?

Yussepe *(Mahaian oraindik)* Haizea edo...

Orion Ez, haizea ez da. *(Berriro)* DAUN, DAUN, DAUN *(Yussepe ere altxatu egin da; koadrokoa keinuka ari zaio)* Benga, Anette, ireki ezazu atea behingoz!

Anette Ba banoa. Mon Dieu! *(Aterantz joaten da)*

(Andre bat, Ernestina, mundua jatera balihoa bezala. Benito, senarra, atzetik, maleta hartuta. Seme-alabak ere saloian sartzen dira. Xocrates dena miatuz eta Kattalin aspertu aurpegiarekin)

- Ernestina** (*Altu eta lotsarik gabe*) Bazen garaia! Ia izoztu ginen hor kanpoan! (*Aurpegia aldatuz*) O! Yussep! Gure lehengusu ttikia! (*Berarengana joaten eta bi muxu ematen dizkio*) Zer moduz? (*Esku batez senarrari eta seme alabei agurtzera joateko esaten die. Senarra joaten da. Semea, teleskopio inguruan dabil zer ote den jakin nahian. Alaba, walkmana jarrita, dena miazten, interes handiegirik gabe. Koadroaren aurrean jarri eta*)
- Katalina** (*Walkmana jaitsiaz*) Eta hau izango da hilda dagoen lehengusina, sabelotodo edo... esaten zenuena ez da? (*Anettek irribarre, je je, je, eskuarekin disimulatuz. Orion hurbiltzen da*)
- Orion** (*Solemnidadez*) Hori nire ama zen, (*koadroa seinalatuz*) gaztelu honetako anderea!
- Ernestina** (*Orionengana hurbilduz eta koadroari begira, tonozertxobait despektiboan*) Bai, nire lehengusina txikia. Bere ama eta nire ama... biak amak! Je, je (*Suabe*) Beraz, zu Zorion edo Motion edo... (*Nazka pixkat emango balio bezala.*) izango zara?
- Orion** Orion, anderea, Orion (*Kaparekin erreberentzia eginez*)
- Xokrates** (*Berarengana hurbilduaz*) Aibala! Eta motxila eta guzti! Zer, Everestera igotzeko asmotan, ala? (*Konkorra ukitu nahian*)
- Benito** Xokrates! Nahikoa da! Errespeto pixka bat! (*Berarengana joanaz*)
- Orion** (*Benitori*) Eta nortzuk zarete zuek, ez zaituztegu ezagutzen eta...
- Benito** Ba gu zure ama... (*Ernestina sartzen da*)
- Ernestina** (*Altu eta bestearen ahotsa tapatu nahian*) Gu zure amaren lehengusu txikiak gara, gaztelu honetako ja... gaztelu honetakoak, beraz!

- Benito** Bai, (*Berriro hitz egin nahian*) zuek ez zintuztegun ezagutzen eta...(*andreari begira*)
- Ernestina** Eta egun batzuk pasatzera etorri gara!
- Katalina** A zer rolloa!!! Nire lagun guztiak guai del paraguai pasatzen eta ni hemen, gaztelu zatar honetan!!!

(*Yussepe teleskopiotik begira. Anette ate atzetik begira. Kattalin maleta gainean eserita. Xokrates tiratxina batekin ea zerbaiti ematen dio. Orion, Benito eta Ernestina*)
- Ernestina** Zaude ixilik!!! Eta goazen gure geletara! Gelak egongo dira ez da? (*Orioni begira*)
- Orion** Bai, bai noski! Anettek erakutsiko dizkizue, eta gure lehengusu txikiak zaretenez, ongi etorriak gure gaztelura!
- Anette** (*Atzetik ateratzen da eta*) Madame, monsieur, mademoiselle... (*Denei erreberentziak eginez. Irten egiten dira*)

2. eszena

- Sofia** (*Koadrotik haserre, bere senar ohiari*) Habrase visto! Iku-si al duzu! Falta zitzaiguna! Lehengusu txikiak omen gara! Nik dakidanez, ez lehengusu eta ez familia artekorik ez daukagu! Beraz... erne ibili beharko dugu!!! Yussepe entzuten al didazu! Zotz, Ziztrin!! non zaudete? Zuen laguntza behar dut! Mozolo honekin ez dut ezer lortuko!

(*Zotz eta Ziztrin bi bizikleta txikiren gainean agertzen dira, bozina joaz; buelta bat eman eta koadroaren aurrean jartzen dira*)
- Sofia** Zer iskanbila da hori! Ez al dakizue ixilago ibiltzen, benetako fantasmak bezala? (*Zotzek fantasmaren keinua egiten du eta Ziztrin berdin egiten hasten denean, Sofiak eskuarekin bale esatean, zaplaztakoa bezala ematen dio*) Beno,

ikusi duzue bisitariak ditugula. Susmo txarrak ditut eta ea denon artean izutzen ditugun!

Anette

(Kantari eta erratza pasatzen) Frere Jacques, Frere Jacques, dormez vous? Dormez vous? Sonnent les matines, sonnent les matines. Din dan don. Din dan don. *(Eszenatoki erdian, erratzean apoiatuta)* Lehendik lan gutxi daukaldala eta orrrain, oh la la, etorrerri dirren guzti hauekin! Dantza egiteko denborra gutxiago izango dut! *(Alde batera eta bestera begiratzen du. Inor ez du ikusten. Bakarrik Yussepe, baina lotan eta, musika jarriaz, dantzan hasten da. Saio txiki bat egin ondoren, Orion agertzen da. Denbora apur batean begira egon ondoren, bera ere, bere eran, dantzan hasten da)*

Kattalin

Aibala! Zer guai! *(Bera ere dantzan hasten da. Hirurak pozik dabilta)*

Ernestina

(Sartzen da) Falta zitzaiguna! *(Musika jaisten joaten da)* Nire alaba neskamearekin *(Mesprexuz)* eta jiboxo honekin dantzan! “Vale ya!” *(Besotik heltzen dio)*

Kattalin

(Besoa askatu nahian) Utzi bakean! Zer nahi duzu, koadroko atso hori bezala egotea, ala?

Ernestina

“Venga ya!” Berandu da eta ohera joateko garaia. Anaia eta lo daude dagoeneko. *(Pixka bat bultzaka, kanporantz eramaten du)*

Orion

Bai, guk ere oherantz joan beharko dugu! *(Pentsati, gora begira)*

Anette

Zerrrrrtaz arri zarrra pentsatzen? O!

Orion

Neska panpoxa horrek ondo egiten zuen dantzan ez da?

Anette

Nik errrrre bai!!!!

Orion Eta ze izen polita duen!! Kattalin, Kattalin! (*Kantari hasten da*)

Anette Bah!!! Nirrrrea bai trres joli, polit-polita!!! Benga espabilatu, zurre aita erraman dezagun oherra!

(Orion eta Anettek, Yussep hartzen dute eta, Kattalin kantatuz, irten egiten dira)

3. eszena

(Argiak itzali edo jaitsi, ahal bada, musika misteriotsu xamarra, Ernestina eta Benito kamisoi luzeekin. Benito, lo egiteko gorroarekin eta Ernestinak ruloak, sarea eta kremaz egindako maskara daramatzala. Koadrokoa ere erdi lotan)

Ernestina (*Senarrari, ez oso fuerte*) Kosta zaizu esnatzea! Ez al ginen honetan gelditu, ala?

Benito Bai, baina beharrezkoa al da hau egitea! (*Koadrokoa orduantxe ari da bere tokian jartzen. Ordurako Benito kandelarekin argia ematen ari zaio eta mugimendu hori ikusi egiten du. Izututa*) Er-Er-Er-Ernestiiiiinaaaaaaaaa... (*Pixka bat atzeraka eginez*) ko ko ko koadrokoa mugitu egin da! (*Koadroa seinalatuz eta atzeraka*)

Ernestina Bai eta ni naiz Juana de Arco. Zu bai mugitu egin zarela! Betaurreko horiekin ez duzu tutik ere ikusten!! Benga, utzi txorakeria horiek eta hasi miatzen!

(Kajoietan, apaletan... Koadroaren azpian dagoenean, koadrokoak eraztunarekin ura botatzen dio)

Ernestina Jesus, Maria eta Jose! Euria hasi al du? Benito, hemen biziitzen jartzen garenean aurreneko gauza itute horiek konpontzea! (*Gora begira*)

Benito *(Hurbildu egiten da eta koadrokoak ura botatzen dio. Kandela itzali egiten da. Dardarka hasten da)* Iku-ku-kusi al du-duzu-zu-zu! Hemen zerbait a-a-arraro-roa ger-ger-gertatze-tze-tzen ari da! Txistua bota al didazu? *(Berriro ura botatzen die eta biak, beldurrez, alde batera joaten dira)*

Ernestina Bueno! *(Fundamentuz eta ozenki)* Nahikoa dugu! Itute bat dagoela eta hainbeste istorio! Benga! Jarrai dezagun paper horien bila, ea behingoz aurkitzen ditugun!

(Jarraitzen dute bila, eta)

Benito *(Karpeta, paper batzuekin, eskuetan duela. Paperak aurpegitik gertu, urruntxoago, gertu ... jarriaz. Astiro eta ozenki)* GAZTELUKO ES-ES-ESKRITURAK

Ernestina *(Berarengana hurbilduz)* Zer? Zer? Zer esan duzu? *(Paperak hartzen dizkio)* Hauexek, hauexek dira! *(Muxu emanaz paperei)* Hauxek dira gaztelu honetako jabe izateko behar genituen paperak! *(Paperak eskuetan, gorputzaren kontra estutuz, muxu emanaz, dantza pixkat eginez)*

Benito Baina Ernestina! Hori ez da legezkoa! Hori ez dago ondo!

Ernestina Zaude ixilik, mozolo hori!

(Bat-batean, bi mamuak, bakoitza alde banatatik, txotxon-gilo modura agertzen dira, beraiek izutu nahian)

Zotz-Ziztrin UUUUUUUUUU!!!!!!!!!!!!UUUUUUUUAAAAAA!!!!!!!!!!!!U
UUUUUUUUUUUUUUUUUU!!!!!!!!!!!!

(Senar-emazteak erabat izaturik, alde batera eta bestera dabilta, atzetik antasmak ditumamuak dituztela. Ernestinak gorputzari itsatsiak daramatza paperak)

- Benito** (*Karraxika, izuturik*) Mamuak! mamuak!
- Ernestina** (*Paperak askatu gabe, izuturik*) Goazen! Goazen hemen-
dik! (*Irtten egiten dira. Mamuak atzetik. Geroxeago, toki*
beretik, mamuak agertzen dira, baina oinez)
- Ziztrin** Ufffff! Nekatu naiz ederki!
- Zotz** (*Bere atzetik*) Nik berriro nahi dut! Nik berriro nahi dut!
- Sofia** (*Ahotsa txolinduta*) Nik berriro nahi dut, nik berriro nahi
dut!!! Txotxoloak! Eta non egon zarete orain arte? Ez al
ginen gelditu, erne ibili behar genuela eta astindu ederra
ematekotan! Kaka zaharra!
- Zotz** Baina, baina, izutu ditugu eta!
- Ziztrin** Nik gainera ia-ia ipurdian jo nuen! (*Keinu hori eginez*)
- Sofia** Bai, izutu bai, baina beranduegi! Ordurako gazteluko es-
kiturak hartuta zeuzkaten! Lapur horiek! Mala madreko
horiek... (*Orain erdi negarrez, pena handia sentituaz*) eta
orain... zer egin behar dugu orain? (*Erdi negarrez*) Gazte-
lurik gabe geldituko gara! Denok hemendik kanpora joan
beharko dugu! (*Haserre antzean*) Zuek ere bai noski,
moski, troski! Ai ene! Ai ene! Zerbait bururatu beharko
zait!

4. eszena

(*Goiza iritsi da. Anette sartzen da, aurreko mantala janz-
ten, jaiki berria egongo balitz bezala. Kajoiak irekita dau-
de, zenbait paper lurean*)

- Anette** Oh la la la ! Qui est qui passe ici? Zerrrrr gerrrrtatu da he-
men? Zer dezaazztrrrre!.Norrrrrbait ibili da kajoiak mia-
tzen! Oh mon Dieu, mon Dieu!

(Begira ari dela, Yussep sartzen da, bata jantzita, buruan gorro luze bat duela, nagiak ateratzen eta Verdiren kanta bat kantatuz)

Anette *(Kezkatuta)* Yussep jauna! Begira nola dauden kajoi guztiak, dena desmadrerratuta!

Yussepe Kojo... zer? Baina Anette, gurre gazteluan ez dira horrelako hitzak esaten! Beno, beno lasai... jarraitu lanean, ikusten denez, gaur garbitasun orokorra egiten ari zara! *(Verdiren kanta entonatu, teleskopiorantz abiatzen da)*

Anette Oh mon Dieu! Ez dit ezerrrr ulerrrrtu! *(Paperak biltzen hasten da)*

Orion *(Jantzita eta kantari, ahal bada puzten den plastikozko bihotz batekin)* O Kattalin! Kattalin!! Kattalin!!! Nire Kattalin maitea!!! Oooo!!! Kattalin! Kattalin!!! Pottoka!!! *(Salto batzuk eginaz)* Egunon, Anette!!

Anette *(Eskuak gerrian jarrita, grazi handirik egingo ez balio bezala)* Egunon, Orrrrion!!! Zerrrr, pozik gaude, ez da?

Orion Bai Anette, bai! pozik eta Kattalin horrekin txorabiatuta!

Anette Ba begirrrra zerrrr kuxidarrrrrre dagoen hemen!

Orion Zer, garbitasun orokorra egiten, ala?

Anette *(Haserre samar)* Zerrr garrrrrbitasuna eta zerrrr istorrrria! Ni etorrri naizenean horrrrela zegoen, dena botata. *(Orionek ez dio gehiago kasurik egiten)*

Orion Ba badaukazu, zer eginik. Ni banao animalitxoei janari pixka bat botatzera! Kattalin, Kattalin... *(Kantari eta arto pixka bat boteaz joaten da kanpo aldera. Orduantxe sartzen da Kattalin. Anette, bitartean, dena txukuntzen hasten da)*

- Kattalin** *(Orionekin topo egiten du)* Iepa Orion! Zer, paseatzen?
- Orion** Beno! *(Eta buelta hartzen du)*
- Kattalin** Zer egin daiteke, gaurkoa bezalako egun batean, hemen, gazteluan? Ez al duzue festarik antolatzen? Gazteluko festa dotore horietakorik?
- Orion** Lehen, garai batetan, mozorroen festa antolatzen zen. Denak mozorrotuta.
- Kattalin** Zu nahiko mozorrotuta egongo zinen, ez da? *(Barre pixka bat eginez. Orionek burua makurtzen du)* Beno, barkatu, broma bat izan da! Benga, tio! *(Paseatzen hasten da batera eta bestera, keinuak eginez dantzarako bezala)* Aizu, mozorroen festa! Zergatik ez duzue berriro antolatzen?
- Orion** Ba, gure ama hil zenetik, ez dugu egin *(Koadroari begira)* Bera zen antolatzailea!
- Anette** *(Makurtuta zebilen eta altxa egiten da)* Eta moi! Ni errrrre bai!
- Kattalin** Ba, zergatik ez dugu bat antolatzen? Niri, asko gustatuko litzaidake! *(Mimosa aurpegia jarriaz)*
- Orion** Ba, aurrera! Oraintxe bertan hasiko gara prestaketekin!
- Kattalin** Iupi! *(Eta muxu bat ematen dio buru soilean. Orionek salto txiki bat egiten du, pozik, eta biak irteten dira. Kattalinek konkoretik heltzen dio)*
- Zotz** *(Goitik)* Anette jeloskor dago, Anette jeloskor dago! *(Erdi kantari)*
- Ziztrin** *(Beste aldetik eta goitik hau ere, erdi kantari)* Anette pirula dago, Anette pirula dago!

- Zotz** Zer esaten ari zara!
- Ziztrin** Atera zaidana! Ez nekien zer esan eta! (*Zozo ahotsarekin*)
- Anette** Bon! Nahikoa da! Silence! S'il vous plait! Ixilik mesedez! (*Musika entzuten da eta dantzan hasten da. Gelditu eta*) Ba ez dut atsegin, neska horrrek eta Orrrrrionek duten harrremana! (*Berriro dantzan hasten da kanporantz joanaz*)
- Sofia** (*Koadroan mugituaz*) Zer ikusteko jaiok garen! Yussep! Yussep!
- Yussepe** Zer, zer gertatzen da? (*Alde batera eta bestera begiratuaz*)
- Sofia** Zer gertatuko da ba! Ez zarela ezertaz enteratzen! Utzi izar, planeta, konstelazio horiek eta kasu egidazu, arren!
- Yussepe** Baina orain zer dugu, ba? Ez al gara pozik bizi horrela? (*Berarengana hurbilduz*)
- Sofia** Pozik? Horixe! Eskriturak lapurtu dizkigute, lehenbailehen zerbait egiten ez badugu, alde egin beharko dugu hemen-dik. Eta gure semeak, berriz, mozorroen festa antolatu behar omen du. Eta zuk, pozik bizi garela! Astoaren putza!
- Yussepe** Hori besterik ez bada, lasai; dena atera behar duen bezala aterako da! No problem!
- Sofia** No problem! Horixe! Zuk behintzat ez!
- (*Ernestina, Benito eta Xokrates sartzen dira*)
- Ernestina** (*Pozik eta gustura*) Egunon, egunon denoi! Zer moduz, Yussep? (*Bizkarretik helduaz*)
- Yussepe** Dena, izan behar duen bezala izango da! (*Keinuak eginaz. Gero, (teleskopiora hurbilduz)*) Izar berri bat aurkitu dut eta non kokatua dagoen ikusten ari naiz.

- Benito** *(Bere atzetik) Izar berri bat? Nik ere ikusi nahi dut Ea, ea...
(Biak teleskopioan gelditzen dira)*
- Xokrates** *(Tiratxina bat eskuan duela sartzen da, leku desberdinetara
apuntatuz, Gatxeten doinua kantatuz) Tira lira lira, Gatxet,
Gatxet, tira lira lira, pon pon.... (Halako batean koadrora
apuntatzen du) Tira lira lin, tan tan, sudurrean emango diot!
(Bota behar duenean, koadrokoa mugitu egiten da, jo ez de-
zaten. Xokrates harrিতuta gelditzen da) Eeeee! (Badaezpada
ere beste bat botatzen dio. Berriro berdin gertatzen zaio.
Oihuka) Ama! Ama! Ama! Koadrokoa mugitu egin da!*
- Ernestina** Zure aita bezala, hasi al zara? Ez esan txorakeriarik! Nola
mugituko da ba! Koadro bat besterik ez da eta! Por zierto,
nahiko itsusia! Je, je je .
- (Xokratesek, harritu samar, koadrokoari begira eta begira
jarraitzen du, ez oso konbenzituta. Kattalin eta Orion sar-
tzen dira)*
- Kattalin** Ama! Ama! Mozorroen dantza antolatzen ari gara! Zer
guai, ez da?
- Ernestina** Mozorroen dantza? Bai, bai! Bakar batzuek hartuko duten
sustoarekin, zerbait beharko dute! Ja Ja Ja! *(Hau dena gaiz-
to aurpegiarekin)*
- Kattalin** Eta gainera, gazteluarekin zer ikusia duen zerbaitekin mo-
zorrotu behar da.
- Ernestina** Goazen ba mozorroak prestatzera!

III. EKITALDIA

1. eszena

*(Denak joaten dira eta Zotzek eta Ziztrinek, Anetterekin
batera, zerbait apaintzen dute. Bitartean musika hasten*

da. Handik pixka batera Ernestina eta Benito sartzen dira, mozorroturik)

Benito *(Aiztoa buruan duela, jantzi zatar batekin)* Benetan mozorrotu zarela? Ez dirudi. Nik beti bezala ikusten zaitut!

Ernestina *(Sorginez jantzita, eskrituren karpeta besopean duela)* Iku-si? Zerbait ikusten al duzu ba? Beno, beno *(Karpeta eskuan hartzen du)* Eskriturak koadroaren azpian utziko ditugu. Zuk ondo zaindu, eta dantzaren bukaeran *(Handiki)* esango diegu nortzuk diren hemengo jabeak. *(Algaraz)*

Benito Baina hau dena beharrezkoa al da?

Ernestina Bai! Eta hortxe geldi! *(Eskriturak koadroaren azpian jartzen ditu, eta Benito zaintzen geratzen da. Ernestina irten egiten da. Koadrokoak betaurrekoak jantzi eta karpeta hartu nahi du, baina ezin du. Azkenean, beste karpeta berdina ateratzen du eta Benito despistatuta dagoen unean aldatu egiten du. Koadrokoak, irrifartsu, lasai geratzen da)*

(Musika alaia jotzen du eta bi aldetatik sartzen hasten dira: Yussepe, magoz, izarrez beteta; Orion, printzez; Katalin printzesaz; Xokrates bufoiez; Anette maitagarritz; mamuak, mamuz antifazekin. Denak bikoteka dantzan hasten dira, Benito ezik. Bikoteak aldatu, eta saio bat egin ondoren, musika jaitsi eta)

Ernestina *(Eztula eginez, atentzioa bereganatu nahian)* Ejem! ejem! Gaurkoa egun historikoa da gaztelu honentzako! Gaurtik aurrera jabe berriak izango baititu!

Orion Zertaz ari zara andere! Nortzuk dira ba, jabe berri horiek?

Ernestina Gu, geu! Eta gu geu bakarrik geldituko gara hemen! Beraz, badakizue zer egin! Ospa! Ospa hemendik!

- Orion** Baina zer froga duzu hori esateko!
- Ernestina** Hauxe! (*Karpeta erakutsiz*) Ja! Ja! Ja!!! Gaztelu honetako eskriturak! Hauetan gure izenak jarri eta gazteluko jabeak izango gara (*Algaraz*)
- Orion** Erakutsiko al dizkiguzu axola ez bazaizu?
- Ernestina** (*Algaraz*) Erakutsi? Nahi duzun guztia! (*Karpeta irekitzen du eta komuneko papera, tirak eta tirak. Aurpegia aldatu egiten zaio*) Zer da hau? Non daude eskriturak? Benito, hau komuneko papera da! (*Benito, Ernestina eta seme-alabak joaten dira, lotsa-lotsa eginda ,eta mamuak haien atzetik*)
- Orion** Susto ederra eman didate! Momentu batean benetan ari zela iruditu zait!
- Yussepe** Izan behar zuen bezala izan da!, atera behar zuen bezala atera da!
- Anette** Oh mon Dieu! Mon Dieu! Quelle fête! Ederrrrrrra antolatu da! Oh la la la...
- Orion** (*Anetterengana hurbilduz dantza eskatzen dio erreberentzia eginez. Organiloiz jotako musika frantsesa hasten da. Biak maiteminduta daude. Anettek muxu bat ematen dio, eta magia, bastidoreen atzetik edo, printze eder bihurturik agertzen da*) O Anette!
- Anette** Orrrrrion mon amourrrrr!!!!
- (*Mamuak eta Yussepe beraien inguruan dantzan*)

DIRUAK SENDATU DU

Agustin Amiano eta
LMH 6. mailako ikasleak
Komedia
Zumadi herri ikastetxea
Amezketan
1996

GAIA

Baserri batetako sukaldean dauden tirabira eta istorio xebreak
kontatzen dira. Zapatari trakets bat eta diru-kontuak ederki adi-
tzen dituen aiton gor baten artekoak batez ere.

PERTSONAIAK

Aita
Ama
Aitona
Amona
Izeba
Alaba
Umea
Emakumea
Koplaria
Josetxo
Apaiza
Kontxixi

(Sukalde zahar batetan aitona-amonak, gurasoak eta izeba ari dira lanean: aitona artoa aletzen; amona eta izeba irakurtzen; aita zapataria zapatak konpontzen; eta ama gal-tzerdiak konpontzen)

Amona Egunero jaisten nintzen ni herrira, egunero, marmitak hartuta. Baita jai egunetan ere.

Ama Horregatik zaude orain hain okertuta.

Amona Okerra bai, baina burua zuzen, e, zuzen.

Aitona Zer, gizen?

Amona Gizen ez, zuzen, zuzen.

Aitona A! Goizen.

Aita Ni ere okertuko naiz martxa honetan.

Ama Bai, egunean oinetako pare bat ere ez duzu konpontzen eta.

Aita Zuk zer uste duzu, oinetakoak konpontzea taloak erretzea dela?

Ama Ez, errazagoa.

Aita Errazagoa?

Ama Noski. Zuk utzitakoak nik bukatu izan ditut behin baino gehiagotan.

(Alaba sartzen da soinekoa eskuetan duela)

Izeba Nora zoaz orain, Iñaxi?

Alaba Festara, izeba; ez al dakizu Orexako festak direla? Ama, hau plantxatzen denbora asko behar al duzu?

Ama Ez, baina hik ere ez dun asko behar eta nik baino sasoi hobe daukan.

Amona Horixe, hartu plantxa eta hasi! Jesus, Maria eta Jose, nik plantxatu ditudan arropa pilak.

Aita Baita nik ere.

Amona Hik, hik plantxatu? Bai, ipurdi azpiko kojina.

Aitona Ze., mina?

Amona Mina ez, kojina, kojina.

Aitona A! Fina.

(Umea sartzen da sukaldean)

Umea Aita, propina emango al didazu kontu bat esaten badizut?

Aita Zer kontu? Tira, tira, esan azkar.

Umea Josetxo neska batekin ikusi dudala.

Amona San Donato! Dagoeneko neska batekin.

Aita Josetxo, hire anaia? Eta non ikusi dituk?

Umea Herriko plazan, Iturraldeko Ramonarekin.

Amona San Donato! Herriko plazan gainera. Zer zurrumurru ote daude herrian.

Alaba Tira Amona, orain ez da lehengo konturik eta.

Umea Propina, aita.

Aita Zer propina eta zer arraio. Hoa kalera hemendik.

Izeba Lotsak ez du behintzat galduko ume hau.

Umea Joe, hurrengo batean ez dizut ezer kontatuko.

(Atera egiten da)

Amona Lotsagabea.

- Aitona** Zer, labea?
- Amona** Labea ez, lotsagabea, lotsagabea.
- Aitona** A! Loa baino hobea.
(*Atea jo dute*)
- Emakumea** Egunon denoi.
- Denak** Bai, egunon zuri ere, Joakina.
- Emakumea** Erabat kezkatuta natorkizue gaurkoan, ikusitakoa ikusi ondoren.
- Ama** Eta zer ikusi duzu ba, Joakina?
- Emakumea** Gure garaian ez zen holako konturik, gaur egun berriz
- Izeba** Gaur zer?
- Aita** Txakurren bat ikusi al duzu zapatak jantzita?
- Emakumea** Ez, txakurra ez, zuen seme Josetxo.
- Aita** Gure semeak ez du zapata faltarik izan, horretarako nago ni.
- Emakumea** Zapatak bazituen bai, baina neska bat ere bai bere inguruan.
- Amona** San Donato! Herri osoa guri begira.
- Aitona** Zer, mendira?
- Amona** Mendira ez, begira, begira.
- Aitona** A! Sokatira.

- Alaba** Eta zer gertatzen da? Bi gazte elkarrekin ikusi dituzulako
arnasa hartu ezinik jarrita.
- Ama** Ez zaitetz kezkatu horregatik, Joakina. Zer kalte ikusten
duzu bi gazte hizketan egotean?
- Alaba** Zulo guztietatik begira zaude zer ikusiko zain.
- Emakumea** Beno, zuek jakin beharreko kontua zela iruditu zait eta ho-
rregatik kontatu dizuet. Konpondu al dituzu nire zapatak?
- Aita** Bai, hementxe dituzu.
- Emakumea** Mila esker, Jainkoak ordainduko dizkizu.

(Joan egiten da)
- Aita** Jainkoak ordaindu? Jainkoak konpondu al dizkio zapatak
honi?
- Alaba** *(Haserre)* Dena gaizki ikusten du horrek. *(Amak soineko
plantxatua ematen dio eta janztera joaten da)*
- Koplaría** Besteen inbiritan
herriko gaiak kontari
etxez-etxe nahasten ditu
kontu txoro ugari.

(Kontxitxi agertzen da)
- Kontxixi** Ai, ai, ai, ai! Hau ere niri egokitu behar zitzaidan.
- Izeba** Zer duzu Kontxixi, min hartu al duzu?
- Ama** Etxeko txakurrak ez zizun ba helduko?
- Kontxixi** Ez, ez, zuen txakurrak asko maite nau, gaur ere ogi kozkor
bat eman diot.

- Ama** Ba nengoen ba ni.
- Izeba** Jakiteko gogoz nago oraintxe. Zer gertatu zaizu?
- Kontxixi** Ez zenuke berehalakoan asmatuko.
- Aita** Ibili dantzan, hamabi urte dituzulakoan.
- Kontxixi** Zaude isilik, alferrontzi arraioa, erru osoa zurea da eta.
- Aita** Hara, berriz. Isilik egon izan banintz...
- Kontxixi** Gogoratuko zarete goizean nola eraman dudan zapata pare-a ustez konponduta.
- Denak** Bai, bai.
- Kontxixi** Ba, ikusi orain denok. Hau al da oinetakoak konpontzea?
(Iltzea erakusten die)
- Amona** Nolako iltzetzarra, zorrotza gainera.
- Aitona** Zer, niñera?
- Amona** Niñera ez, gainera, gainera.
- Aitona** A!, bainera.
- Aita** Tira, tira, hori kolpe batekin konponduko dut nik.
- Kontxixi** Zapata bai, eta nire hanka? Ai, ai...
- Aita** Kitto! Barkatu, emakume, ez da horrenbesterako izango.
- Kontxixi** Beste zapataririk herrian balego... *(Badoa herrenka)*

Izeba Kontxixi honek beti du zerbait. Jakin nolakoa den eta il-tzea utzi zuk berriz.

(Josetxo txistua joaz sartzen da)

Josetxo Iepa!

Aita Gustora dator gure mutil hau gaur.

Izeba Bai, ez dituk egun guztiak berdinak izaten.

Aita Zer, ondo, plaza inguruan paseatuaz?

Josetxo Beno, izan da mingainluzeren bat hemen.

Aita Lan piska bat egin beharko duk bada.

Josetxo Ez aita, ogi puska bat hartu eta banoa.

Aita Etxetik kanpo aurkitu al duk lana?

Josetxo Bai, bokadiloa jaten

Amona Oraingo gazteak jan eta paseatu.

Aitona Zer, gosetu?

Amona Gosetu ez, paseatu, paseatu.

Aitona A!, haixetu.

(Semea joaten da eta alaba etortzen da)

Alaba Zer moduz nago, ama?

Ama Apaina, oso apaina. Dotore hago soineko honekin.

Izeba Oso polita hago, Iñaxi.

- Alaba** Banoa, e!
(Ate aldera abiatzen da)
- Aita** Bederatzietarako etorri, e!
- Alaba** Bederatzietarako? Zer egin behar dut bederatzietarako etorrita, oiloak perratu?
- Ama** Egia. Gizona, zaude isilik eta utz ezazu alaba bakean.
- Alaba** Zaude lasai, etorriko naiz.
(Joan egiten da)
- Amona** Ene! Ni, gaztetan, inoiz berandu etxeratu banintz, akabo hilabete osoko festak.
- Aitona** Zer, peztak?
- Amona** Peztak ez, festak, festak.
- Aitona** A! Gaztak.
- Koplariak** Zuen seme-alabok
egun batez nork kenduko
lasai utzi, ez beldur izan
ez baitira galduko
- Ama** Ea nolako pastela atera zaigun gaurkoan.
(Labetik pastel ederra ateratzen du)
- Izeba** Ño, itxura ederra zeukan. A zer nolako pusketa jan behar dudan gaur gauean.
- Ama** Orain txokolate pixka bat bota gainetik eta lixto!

(Atea jotzen dute eta apaiza agertzen da)

- Apaiza** Arratsaldeon denoi.
- Amona** Arratsaldeon zuri ere, On Kandido.
- Aita** Beno! Falta zena.
- Amona** Gazta ta ogi piska bat nahiko duzu, ba? *(Bila joaten da)*
- Apaiza** Ez, ez, estimatua dago, baina ez dut batere goserik.
- Aita** *(Berekiko)* Ezetz esan eta gero gazta erdia jango du.
- Amona** Eseri, eseri hementxe. Ardo piska baten bila noa *(Ardo bila joaten da)*
- Aita** *(Berekiko)* Beno, akabo botila ardoa.
- Amona** Holaxe, holaxe. Hartu gazta eta ogia lasai. *(Amak ematen dion bitartean)*
- Apaiza** Holako etxeak ez dira asko geratzen.
- Aita** Holako apaizak ere ez.
- Amona** *(Aitonari)* Ikusi al duzu On Kandido?
- Aitona** Zer, bandido?
- Amona** Bandido ez, Kandido, Kandido.
- Aita** Nahiko bandido bai.
- Apaiza** Ba bisitatxo bat egitea pentsatu dut prozesioko argazkiak erakutsiz.
- Denak** Ia, ikusi *(inguratzen dira denak)*

(Bitartean lapur bat sartzen da hanka puntetan eta tarta eramaten du)

Izeba Begira hemen zer ondo atera naizen.

Aita Hemen ere edaten ari zinen, On Kandido.

Apaiza Hi ere ez hintzen urruti izango.

(Akolitoa presaka sartzen da)

Akolitoa On Kandido, on Kandido, Bidegoinetako Anttonio etorri dela gurdia bedeinkatzeko asmotan.

Aita Eskerrak, gaztarik gabe geratzen ari ginen eta.

Izeba Zaude isilik, gizona.

Apaiza Ordainetarako zerbait ekarri ote du?

Akolitoa Baietz uste dut, zaku bat ageri du behintzat gurdi gainean.

Apaiza Goazen orduan. Beno, mila esker, argazkiak hemen utziko ditut egun batzutan. *(Joaten da)*

Denak Agur, bai, agur.

Aita Argazkien bila etortzen denerako merienda prestatu.

Izeba Ez duzu behintzat bakean utziko.

(Argazkiak ikusi ondoren beren lekutara joaten dira)

Ama Nola liteke?

Aita Zer duzu orain?

Ama Zer dudan? Nork eraman du hemendik txokolatzeko tarta?

Aita Azkenean ez gazta eta ez tarta. Esaten dizuet nik jende gehiegi sartzen dela etxe honetan.

(Umea agertzen da eskuan biletea duela)

Umea Begira ama, mila pezetako biletea aurkitu dut.

Aitona Nirea, nire biletea.

Amona San Donato! Diru kontuak ederki aditzen dituzu zuk.

Aitona Goizean galdu zaizkit.

Umea Tira, tira, aitona. Azken hamar egun hauetan ez zara etxetik atera eta.

Aita Hara, diruak sendatu du aitona.

Ama Hau diruzalea! Nola garbitu zaizkion orain belarriak.

Koplariak Diruaren usainak
sendatu digu aitona
berak ondo bereizten ditu
gauza txarra ta ona.

Aita Diru hori nik zuretzako utzi dudana propina izango da.

Umea Zure propinaren zain banengo!

Ama Diru horrekin zergatik ez duzu txokolatezko tarta bat ekartzen?

Izeba Horixe egin behar zenuke.

Umea Jooo... Beno, ondo da. Gero nik jan besterik ez dudala egi-ten esango didazue.

(Joan egiten da)

- Amona** Ai, zer mutiko txintxo.
- Aitona** Zer, pintxo?
- Amona** Pintxo ez, bitxo, zu bai zarela bitxo.
- Koplariak** Famili arrunt batek
duen bizitzeko era
kantu honek erakusten du
ipuinaren bukaera.

AMAIERA

ESNE-SALTZAILEAK

Yolanda Fdez Padilla
DBH 1. mailako ikasleak
Komedia
Karmelo-Solokoetxe institutua
Bilbo
1996

GAIA

Esne-saltzaileak gaztelura joaten dira esnea saltzeko asmoz, baina gazteluko jabea ez da oso pertsona arrunta.

PERTSONAIAK

Narratzailea (itsua)

Patxi

Patxo

Drakula

1. gasolina saltzaile

2. gasolina saltzaile

(Itsuak bertso bat kantatzen du historia aurkeztuz)

Patxo eta

Patxi

(Publikoaren artean agertzen dira oihu egiten)

Esnea, esne freskue!

Munduko esnerik gozoena!

Ur tantarik gabeko esnea!

Konfidantza osoko esnea!

Esnea, esne gozoa!

Esne freskue!

Esne fresku-freskue!

*(Ez dute batere esnerik saltzen. Eszenatokiaren eskailereta-
tara heldu eta beraien artean hitz egiten dute)*

Patxo

Zer edo zer saldu duzu, Patxi?

- Patxi** Batere ez Patxo. Eta zuk?
- Patxo** Zurearen erdia saldu dut nik
- Patxi** Hau desastrea, aste osoan ez dugu esne tantarik ere saldu!
- Patxo** Bai, herri honetan ez dago zer eginik. Beste leku batera joan beharko genuke
- Patxi** Zergatik ez goaz gaztelura?
- Patxo** Oso ideia ona. Kotxez joango gara. Badaukagu gasolarik?
- Patxi** Hara heltzeko adina baietz uste dut.
- Patxo** Goazen ba!
- (Kotxea hartu eta publikoaren arteko pasilutik gora eta behera ibiltzen dira. Gasolina amaitu egiten zaie)*
- Patxo** Gasolina amaitu egin da, Patxi.
- Patxi** Bai, Patxo, ikusten dut. Jaitsi eta bultza!
- Patxo** Jo! Beti niri tokatzen zait!
- (Bultza eginez, eszenatokira igotzen dira kotxe eta guzti. Eszenatokian gazteluko atea ikusten da)*
- Patxi** Heldu gara behingoz!
- Patxo** Bai, eta ez dakit zelan bueltatuko garen, gasolarik ez badaukagu!
- Patxi** Tira! Goazen barrura. Esnea saltzen badugu izango dugu dirua gasolina erosteko behinik behin

(Barrura sartzen dira eta aretoko pasiloan aurrera abiatzen dira)

Patxo Uf! Zer ilun dagoen!

Patxi Goazen pasilu honetatik. Nonbait aurkituko dugu gazteluaren jabea.

(Drakula agertzen da. Armairu edo zerraldo baten barruan zegoen, edo horma baten atzean besterik gabe)

Drakula Um! Odol freskuaren usaina hartzen dut. Odol fresku-freskue. Banoa haien atzetik.

(Patxi eta Patxo gela batera heltzen dira: Eszenatokira, orain gela bihurtua baitago)

Patxi Uf! Leher eginda nago!

Patxi Neu ere bai. Tira! Hementxe egingo dugu lo eta bihar ikusiko dugu zer egin.

Drakula Ederto! Eta nik... lo egiten duten bitartean... odola zurrupatuko diet *(Algaraz)*

(Odola zurrupatzekotan dagoenean, telefonoak jotzen du eta esnatu egiten dira. Drakula ezkutatu egiten da arrapaladan)

Patxi Zer izan da hori?

Patxo Zer izango da ba! Telefonoa

Patxi Telefonoa hemen? Ederto! Deitu gasolindegira eta eskatu gasolina.

Patxo Ez daukagu dirurik, baina! Zelan ordainduko dugu

- Patxi** Ba! Konponduko gara! Ekar dezatela eta gero ikusiko dugu.
- Patxo** *(Telefonoz)* Kaixo! Gasolindegia da? Mesedez, ekarri gaztelura 20 litro gasolina super euro star guai. Bai, gaztelura, eta azkar mesedez.
- Patxi** Ederto! Gasolina ekarri arte lo-kuluska bat egingo dugu.
- Drakula** Orain bai. Oraingoan ez dute ihes egingo!
- (Haien gainean dagoenean atea jotzen dute. PUM! PUM!. Drakula zabaltzera joaten da, korrika, Patxi eta Patxo esna ez daitezten. Atean bi gasolina saltzaile daude)*
- 1. gasolina saltzailea** Gasolina ekarri dugu
- Drakula** Zer gasolina? Nik ez dut gasolarik eskatu. Zoazte hemendik.
- 2. gasolina saltzailea** Adarrik ez jo guri e! Honaino igo dugu gasolina eta ez gara dirurik gabe bueltatuko. Zuk erabaki: Guk kobratu edo zuk KOB RATU *(Makila batez mehatxuka)*
- Drakula** Ondo da, ondo da. Zenbat da?
- 1. gasolina saltzailea** Hamar mila
- Drakula** Hamar mila! Hori lapurreta da. Diru zurrupatzaileak zarete zuek!
- 2. gasolina saltzailea** Zuk zeuk erabaki! *(Makilarekin mehatxuka berriro)*
- Drakula** Tira ba. Ondo da. Har ezazue dirua eta ospa hemendik, banpiroak halakoak!

(Bitartean Patxi eta Patxo esnatu dira eta Drakula aurkitzen dute gasolina-bidoia daramala. Drakula gasolina saltzailea dela pentsatzen dute)

Patxo Gasolina saltzailea! Bai azkar etorri zarela.

Patxi Eskerrik asko. *(Gasolina hartzen du)* Ah! Arazo txiki bat dago. Ez daukagu dirurik, baina esne hau eraman dezakezu gasolinaren truke.

Patxo Bai, pozik egon zaitezke, oso esne gozoa da, fresku-freskue. Eta merke-merkea ere bai, mila pezetetan litroa. Agur.

Patxi Agur

(Korrika joaten dira, Drakula harriturik eta zer esan ez dakiela geratzen da. Poltsiko hutsari begiratu eta hasperen bat eginez)

Drakula Modaz kanpo nago. Gaur egun odola zurrupatzea guztiz modaz kanpo dago

Itsua *(Ipuinaren moraleja kantatzen du)*

.....
.....
.....

odol-zurrupatzaile baino
hobe diru-zurrupatzaile
(edo horrelako zerbait)

Drakula *(Esne ontzia hartzen du, eta oihuka joaten da publikoaren artean)* Esnea, esne freskue! Mila pezetetan litroa!

IZEN GABEKOA

Iñaki Agirrezabala, Nekane Zubeldia, Amaia Garmendia
eta BBB 2. mailako ikasleak

Drama
Oianguren institutua
Ordizia
1995

GAIA

Mutil gazte bat elbarriturik suertatzen da, eta poliki-poliki lagunak bere bizitzatik desagertu egiten dira, bakarrik geratu arte. Bere aitak, mutila jaio zen egunean, aldatu zuen zuhaitza da geratzen zaion lagun eta itxaropen bakarra.

PERTSONAIAK

Aitor
Ama
Aita
Jon
Jone
Nekane
Xabi
Haritz
Aitzol
Agurea
Anderea
Zuhaitzaren Arima

I. EKITALDIA

1. eszena

(Parke bat ikusten da. Ezkerraldean eliza eta etxe baten tartean kale estu bat. Etxeko atea ireki daiteke eta leihoa ere bai. Eskubialdean beste kale bat bi etxetxoeren tartean. Etxetxo horren leihoa zabalik. Atzekaldeko dekoratuan margotuta iturri bat bere putzuarekin eta urrutian men-

diak. Atrezzoak: parke erdian zuhaitza, eta iturriaren alboan banku bat. Bankuan eserita agure bat, egunkaria irakurtzen, eta Aitor, gure protagonista, bere alboan, kromo batzuekin jolasean. Eszena honetan Aitorrek 10 bat urte ditu eta azaltzen joango diren bere lagunak ere bai. Batean Aitor, kromoak utzi eta, saskibaloian hasten da. Aitor jolasean ari dela, agurea hizketan hasten da berekin)

Agurea

Kaguen sos! Mundu hau geroz eta okerrago.

(Aitor, une batez bere jolasa eteten du eta, agureari begira gelditzen da. Baloiari boteak ematen jarraitzen du, eta, halako batean, nahigabe, baloiak ihes egiten dio, agurea joz)

Agurea

(Oso haserre eta egunkaria albo batera botaz) Zer Kristo. Gazte eta zahar ezin al dugu elkarrekin egon?

Aitor

(Kupiturik) Barkatu...

Agurea

(Ozenki, haserre bizian) Beti berdin gabiltza. Egunkaria ere ezin dugu lasai irakurri!

Aitor

Barkatu, barkatu, nahi gabe izan da.

Agurea

Ostras! Jode!

(Agureak egunkaria berreskuratu eta irakurtzen jarraitzen du. Aitor bere baloiarekin aitonarengandik urrutiratzen doa, jolasari utzi gabe)

2. eszena

(Haritz sartzen da eskubialdetik)

Haritz

Epa, Aitor!

- Aitor** Bota (*Eta jolasean hasten dira elkarrekin*)
- Haritz** Epa! (*Baloia pasatzeko keinua egiten dio*)
- Aitor** Eta besteak?
(*Une hortantxe Nekane eta Jone sartzen dira eskubialde-
tik. Besoetan, panpin bana dutela*)
- Jone** Hemen gaude!
- Aitor** (*Mutur beltza jarriaz*) Neskak...
(*Neska biak agurearen alboan esertzen dira bultzakada
txiki bat eginaz. Agurea marmarka hasten da. Neskek bere
kontutxoekin solasean jarraitzen duten bitartean, Haritzek
hartzen du hitza*)
- Haritz** Zer egiten duzu hemen?
- Aitor** Saskibaloian jolasten...
(*Baloiarekin bueltaka segitzen dute hizketari eten txiki bat
eginez*)
- Aitor** Non dira besteak?
- Haritz** Plazan zeudela uste diat...
(*Beste etentxo txiki bat*)
- Aitor** (*Neskengana zuzenduaz baina interes handiz*) Zer, jolasten
duzue?
- Nekane** (*Gogo handiz*) Bai (*Bere panpina eserlekuan utzi eta biz-
kor bere ingurura hurbiltzen da*)
- Jone** (*Jone ere badoa, geldoago*) Ni ere bai, itxoin piskat. (*Pan-
pinari*) Nñññ..., politte, hemen gelditu eta egin lolitos,

bale? (*Musu bat ematen dio eta banku gainean uzten du ardura handiz*)

Haritz (*Iseka*) Nñññ..., politte, egin lotitos, bale?

(*Laurak baloiarekin hasten dira jolasean*)

Nekane (*Maleziz*) Aitor, zer moduz eskolan?

Jone (*Irainkor*) A, bai! Nekane, zergaitik ez zara gaur eskolan azaldu?

Nekane Ez, agineko minez nengoen eta amak esan dit eskolara ez joateko. (*Teman*) Eta bihar ere ez dut joan behar; dentista-rengana eraman behar nau.

Jone Jo, ze morro! Bi egun klase gabe!.

Nekane (*Berriro koketa eta aurpegi liraina jarriz, Aitorri*) A, Aitor, gaur saskibaloiko partiduan irabaziko zenuten, ez da?

Aitor (*Garrantzi gutxi emanaz bezala*) Bai. Ez dut partidu onik egin, baina, beno...

Jone (*Segidan, batere malezi gabe*) Zenbat puntu sartu dituzu ba?

Aitor (*Arroska*) Berrogeita bat, eta hauetatik bost hiruko.

**Jone eta
Nekane** Joe!

Nekane (*Koketa*) Eta gutxi iruditzen zaizu?

3. eszena

(*Aitorrek jesto txiki bat egiten du buruarekin, garrantzia kendua., eta bat-batean ezkerraldetik Xabi, Jon eta Aitzol*)

azaltzen dira bata besteari segika eta eszenatokian zeuden haurren jolasa etenaz. Aitor eta Jon elkarri kromoak trukatzeko ari diren bitartean, gainontzekoak jolaserako prestatzen dira)

Xabi Ni lenengo...!

Jon Ni bigarren...!

Aitzol *(Haserre)* Horrek ez du balio, tranpa egin duzue!

Jone Zer! Jolasten dugu?

Nekane Zertan?

Aitzol Saskibaloian.

Nekane *(Aginkor)* Ez, sakibaloia gehiagorik ez.

Jone *(Baikor)* "Zubiri, zubiri".

Aitzol *(Ezkor)* Ba! Hori neska jokua da..

Xabi *(Eraginkor eta maleziaz)* Eta zer! Ala, goazen jolastera.

(Mutilak, marmarrean, amore ematen dute eta neskek segituan prestatzen dira jolaserako)

Nekane Ni gelditzen naiz.

Jone Ni ere bai.

(Biak, eskutik helduta, besazpitik pasarazten dituzte beste gainontzeko haur guztiak "Zubiri, zubiri" abesten duten bitartean. Bat-batean mutiletako batek bankuan eserita dagoen agurearekin estropezu egiten du)

Agurea *(Haserre bizi-bizian)* Ostias! Nazkatu naiz ume mukizu hauekin.

(Agurea, haserre, ezkerraldetik alde egiten du eta haurrak, batere jaramonik egin gabe, bere jolasari ekiten diote berriro. Xabi harrapatzen dute lehenbizikoz eta publikorantz hurbiltzen dira)

**Nekane
eta Jone**

(Apartean eta aho batez, baina ixilka) Marrubi ala txokolatea?

Xabi

(Ixilka) Txokolatea.

(Eszenatokiko erdialdera bueltatzen dira eta Nekane bere atzealdean Xabi jartzen du, eskuak gerritik helduta. Jokua jarraitzen duen bitartean Xabik Nekaneri zirri egiten dio. Jon da bigarren saio honetan harrapatzen dutena. Xabirekin bezala, publikorantz hurbiltzen dira)

**Nekane
eta Jone**

Marrubi ala txokolatea?

Jon

Marrubi.

(Eszenatokiko erdialdera bueltatzen ari direla)

Nekane

Zer ordu da?

Aitor

Zazpiak.

Nekane

(Larri) Zazpiak? Goazen, Haritz, ama haserretu egingo da.

Haritz

(Haserre) Ixilik egon hadi!

Nekane

Ama haserretuko dela!

Haritz

Ixilik egoteko!

Nekane

(Haserre bizian) Haritz!

Haritz

Utzi bakean, bale?

- Nekane** *(Apalxeago eta besoetatik tiraka)* Benga, Haritz, goazen, bestela amari esango diot.
- Haritz** Eta zer?
- Nekane** “Goku” ikusi gabe geratuko zara
- Haritz** *(Aurpegia aldatzen hasten zaio)* Ba! Betiko tontakeriak...
- Nekane** Ba ni, banoa.
- Haritz** *(Besteei begira, etsipenaz)* Neskak...
(Nekane bere panpina banku gaineratik hartzen du)
- Nekane** Beno, agur.
- Haritz** Itxoin pixkat.
- Denak** Agur!

(Nekane eta Haritz eskubialdetik alde egiten dute eta bitartean besteak berriro korroan hasten dira. Bat-batean esbubialdeko etxe bateko leihotik andere batek dei egiten du)
- Anderea** *(Garraxika)* Jooonnnn!
- Jon** *(Garraxika ere)* Banoaaa! *(Lasaiago)* Beno, ni ere banoa.
- Jone** Itxoin, Jon, zurekin noa.
- Xabi** Kontuz, ea zer egiten duzuen kaminutik, e?
- Jon** “Graciosillo”.
- Jone** Zuk telebista asko ikusten duzu, ez da?
- Jon** Goazen, Jone.

- Jone** Bai, Jon, goazen.
(Alde egiten dute)
- Aitor** *(Berriro jolaserako prest)* Beno...
- Aitzol** *(Moztuaz)* Ba ni ere, banoa.
- Xabi** Ba ni ere bai... Etxera zoaz, ez da?
- Aitzol** Bai, bai. *(Baloia hartzen du)*
- Xabi** *(Irripartsu)* Beno, Aitor, bakarrik gelditzen zara zure zuhaitz xelebrea horrekin.
- Aitor** Bale, agur.
- Aitzol** Agur, Aitor.
(Aitzol eta Xabi ezkerraldeetik alde egiten dute)

4. eszena

(Aitor bakarrik geratzen da. Kromoak hartzen ditu banku gaineratik eta zuhaitzaren alboan eseritzen da. Tarteka bere buruarekin hitz egiten du)

- Aitor** *(Xabik esandako iseka hitzak gogoan, zuhaitzari)* Xelebrea, xelebrea...*(Serio)* Ba, agian zerbait berezia badago gu bion artean... Ez dakit, baina zure ondoan beti sentitu naiz ondo... Nik ere beti zaindu zaitut ondo, eta nere lagunengandik babestu, ez da?

*(Aitor zuhaitzarekin solasean ari den bitartean, **Zuhaitzaren Arima** irteten da zuhaitzaren atzealdetik. Aitorrek ez du Arima ez ikusten ez aditzen. Arima, ordea, haurrarekin elkarrizketan sartzen da, Aitorren bakarkako hitzen tarte-*

ko isiluneaz baliatuaz. Tarteak ondo markatuko dira, Arimak esandakoaren atzetik eten nabarmena eginez)

- Z. Arima** *(Aitor laztanduaz)* Bai, noski.
- Aitor** Dagoeneko hamar urte. *(Pozik)* Hamaika datorren hilean...
- Z. Arima** Eta ni zure parre, algara eta kontu guztien lekuko izan naiz txikitatik. *(Eszenatokian hasten da bueltaka)*
- Aitor** *(Zuhaitzari begira eta Z. Arimari jaramonik egin gabe)* Ez dakit, zerbait berezia dago, bai, gu bion artean. Lotura berezi bat sentitzen dut...
- Z. Arima** Ulertzen dizut, bien arteko lotura sendoa da eta tinko dago. Zuk sentitzen duzuna, nik ere sentitzen dut eta zu pozik zaudenean, nire hostoak berdeagoak bihurtzen dira... *(Aitorren masaila laztanduz)*
- Aitor** Batzuetan, nire inguruan zaudela uste dut eta nire bizitzaren poza sentitu eta hitz egiten didazula pentsatzen dut. Biok bat garela...

5. eszena

(Aitorren gurasoak ezkerretatik agertzen dira eta zuhaitza ezkutatu egiten da. Aita, bi eskuak poltsaz kargatuta eta ama, bakar batekin)

- Aita** Orain ere bakarrizketan?
- Ama** Ez zinen hoztuko? Izardituta al zaude?
- Aitor** *(Zutiturik)* Ez, ama, lasai. Nondik zatozte?
- Ama** Eroskitik. *(Bitartean aita etxeko atea ireki eta sartzen ari da)*

- Aitor** Zer bait erosi al didazue?
- Ama** Sartu etxera eta ikusiko duzu.
- Aitor** (*Amari besotik helduaz*) Itxoin pixkat, ama, galdera bat.
- Ama** Bai?
- Aitor** Noiztik dago zuhaitz hau hemen?
- Ama** 1980-ko apirilaren 16-tik.
- Aitor** (*Harrituta*) Jaio nintzen egunetik?
- Ama** Aitak, hain zuzen ere, herri honetako ohitura zahar bati jarraituz, zu jaio zinen egunean aldatu zuen.
- Aitor** Zer ohitura da hori? Nere lagunek ez dute horrelakorik...
- (*Bankuan eseritzen dira biak*)
- Ama** Aspaldiko kontuak dira eta ez dakizkitez denek. (*Bizkar atzetik besoaz inguratzen du*) Amezketan istorio bat dago, istorio zaharra, oso oso zaharra... (*Mendialdera seinalatuaz*) Begira han urrutian (*Zutiturik*) Aralarko mendi haie-tan gordeta, herensuge erraldoi bat bizi omen zen. Ingurua zuhaitzez jositako baso itxi eta ilun iluna zen. Herensugea azaltzen zen bakoitzean ehundoko kaltea erakartzen zuen: etxeak erre, ganaduak jan eta bertakoak ihesean jartzen zituen. (*Batera eta bestera hasten da eszenatokian zehar*) Hemengo biztanleak oso kezkatuak zeuden, zer egin asmatu ezinik.
- Gauzak horrela, mutil bat jaio zen, eta berarekin batera, bere etxe ondoan zegoen zelaitxoan, haritz bat sortu omen zen, baina ez arrunt horietakoa, ez, oso berezia baitzen (*Ikusleei begira jarraitzen du*) Inork ez zekien nola demontre sortu zen hura, baina segituan ohartu ziren besteak baino askoz azkarrago hazten ari zela, eta herensugea

azaltzen zen bakoitzean, nahiz eta bere inguruko guztia txikitu, berak bertan jarraitzen zuela zutik, tinko.

Jendea nazka nazka eginda zegoen, etxe berriak eraiki bezain pronto herensugeak suntsitu eta txikitzen zituen.

Behin batean bertako gizon jakitunenari ideia bat bururatu zitzaion: zuhaitz miresgarri hura bota eta herriko etxe guztiak bere zuraz eraikitzea, horrela herensugearen erasoari eustea lortuko zutelakoan.

Aitor Baina, ama, zenbat etxe eraiki daitezke zuhaitz bakar batekin?

Ama (*Aitorri bizkarretik adizkidetsu helduz*) Kontuak atera, Aitor; zuhaitza hain zen handia ez zitzaiola enborren azken punta ikusten, eta hain zabala herriko enparantza osoa betetzen zuela. (*Ikusleei bizkarra emanaz*) Nolanahi ere, ondo iruditu zitzaien herritar guztiei eta bertako berrogeita hamar haizkolari trebeenak aukeratu zituzten. Bezperan aizkorak ondo zorrotzu eta biharamunean, goizean goiz, haritz enbor zabal haren inguruan jarri ziren. Denak batera zerurantz altxa zituzten beren aizkora zorrotz eta distiratsuak, baina..., lehenengo kolpean..., aizkora den denak joan ziren pikutara, kirten ta guzi, txiki txiki eginda. Zuhaitzaren azalean ez zen inongo arrastorik gelditu, eta gizon haiek bertan behera utzi behar izan zuten euren asmoa.

Aitor Beno, ama, zuhaitzaz ari zara gogotik, baina, mutila zer?

Ama (*Eseri egiten da*) Bai, Aitor, bai. Begira. Aitor ez zen hain azkar hazi, ezta hainbeste ere. Bere adineko beste mutilak baino txikixeago zela esan daiteke. Baina tamaina eta indar aldetik ezer asko ez bazen ere, bizkorrena eta azkarrena zen denen artean. Bera zen zuhaitz erraldoi hartara igotzeko gai zen bakarra eta askotan goiko puntaraino igo eta bertan egoten zen begirale. Behin eta berriro ikusi ahal izan zituen herensugeak egindako sarraskiak, pentsakor eta bihotz minez. Gauzak horrela ezin zutela jarraitu eta, herensugeari aurre egitea erabaki zuen.

(Berriro zutiturik) Herritarren barrei batere jaramonik egin gabe, aizkora bizkarrean hartuta zuhaitzera igo zen eta bertako adar zuzenenak moztu eta gezi zorrotz eta luze mordoa prestatu zuen. Aukeratutako beste adar luze batekin arku bat egin zuen. Herritarrok bertan ikusten zuten ia beti, herensugea noiz azalduko ote zen zain.

(Ikusleei begira) Halako batean, berealdiko istiluak entzun ziren, ezohiko marrumak, eta, beti bezala, denek mendi aldera, iheska, alde egin zuten. Handik ikusi ahal izan zuten gertatzen ari zena. Herensugea, ahotik hats gorria zeriola, eta zuhaitza, haizerrota antzera adarrak astintzen zituela; bi erraldoiak hil ala biziko borroka ikaragarrian ari zirela zirudien.

Bat-batean istiluak bukatu ziren eta sekula ezbezelako isiltasun beldurgarria nagusitu zen basoan. Jendea herrira itzuli zen fidakaitz. Han zegoen hankaz gora, elizako dorrea baino altuago, geziz josita, herensugea. Zuhaitzak Babelgo dorrea zirudien. Ez zitzaion adar bakar bat ere gelditzen eta.

Aitor Zer da Babelgo dorrea.

Ama *(Poltsa hartzen duen bitartean)* Beno, Aitor, hori beste istorio bat da eta hobe dugu beste egun baterako uztea.

Aitor *(Zutiturik, kromoak biltzen hasten da)* Aizu, eta mutilarekin zer gertatu zen?

Ama Mutil hartaz ez zen gehiago inoiz ezer jakin. Ez zen bere arrastorik inon aurkitu. Batzuek diotenez zuhaitzaren arima bilakatu omen zen.

Aitor Eta hori benetan gertatu al zen?

Ama *(Farre txiki bat eginez)* Ez dakit. Istorio zaharra da.

(Heldu ezinik, Aitorri ihes egiten dio baloiak)

Ama Eman baloia, Aitor.

Aitor (*Baloia ematen dio*) Zer dago afaltzeko?

Ama Ez dakit, aitari galdetu.

Aitor (*Leihorantz oihuka*) Aita!

Aita (*Leihotik*) Bai.

Aitor Zer dago afaltzeko?

Aita Oilaskoa.

Aitor Oilaskoa? (*Saltoka*) Iupi!.

Aita Ala, igo lehenbailehen. (*Desagertzen da*)

Aitor (*Amari*) Eta bihar bazkaltzeko, zer?

(*Aitor eta ama etxeratzen diren bitartean, argiak itzaltzen dira eta haur musika alaia entzuten hasiko da, bizitzako une zoriontsuak kantatzen dituen*)

II. EKITALDIA

1. eszena

(*Aita eta ama jangelako mahaian ari dira bazkaltzen. El-karrizketan ari dira eta irratia entzuten dute arreta handirik gabe. Musika gelditzean irratiko hizlariak bidaiei buruz hitz egiten du. Amak gai honi heltzen dio*)

Ama Zer, pentsatu al duk aurten nora joan?

Aita Begira, Antonioren karabana hartu eta, zergatik ez gaitun Extremadura aldera joaten?

- Ama** Extremadurara? Bidai hain luzea egin, gero han kixkaltze-ko...? Ezta pentsatu ere!
- Aita** Zer? Proposamen hoberik?
- Ama** Nire ustez, Pirineotara joaten bagaituk, askoz hobeto.
- Aita** (*Haserre, zutiturik*) Urterokoa... Kanpotik ez ezik, barrutik ere erabat erreta itzultzeko!
- Ama** Beno, Julian, ez hadi horrela jarri. Gainera, kontuan hartu beharko diagu Aitorren iritzia ere.
- Aita** (*Baretuaz, berriro esertzen da*) Egia... Dagoeneko hamasei urte beteak ditin eta.... auskalo!
- Ama** (*Baikor*) Hamasei urte bai, eta hamazazpi ezkondu ginela. Gezurra zirudik... (*Bat-batean, kezkatu*) Zer berandu datoren gaur... Zer arraro...
- Aita** (*Garrantzirik gabe*) Aizan, gaur goizean esan din, beranduago etorriko zela, saskibaloi partidua zeukala eta.
- Ama** (*Haserretu gabe*) Esan zezakean lehenago... (*Aurpegia aldatuz*) Hi, bazkari ederra prestatu duk gaur...
- Aita** (*Ziniko samar*) Eta noiz ez?
- Ama** Jesus, gizona!
- Aita** Ba, hire laguntxo bizardun horrek prestatu zinan atzo, telebistaz... Bere txiste txatxu eta batere grazi gabekoak besterik ez duzue aditzen. Jakin nahi niken zeri begira egoten zareten. (*Maleziaz*) Eta zuen barne barneko pentsamenduak ezin direlako irakurri...
- Ama** (*Julian laztanduaz erdi broman*) Ai, nire bihotzeko kuttuna, ez haiz orain jeloskor jartzen hasiko? Politta (*Musukatzen du*) Azken zirrikitura arte naukak buru bete bete.

- Aita** *(Platerak biltzen hasten da)* Beno, beno..., orain ez gauden berriketarako, ahaztu al zain jadanik Aitorren irakaslearekin gelditu naizela?
- Ama** *(Mahaia jasotzen lagunduaz)* Egia! Orduan, kotxea behar-ko duk?
- Aita** Dudarik ez..
- Ama** *(Kupiturik)* Ba ... pasatuko al haiz Eroskitik, handik bueltan?
- Aita** *(Sukaldetik, bastidore artean, etsipenaz)* Baaai..., idatzi paperean ekarri beharrekoak.
- Ama** Ez zegok munduan hi bezalako senarrik *(Ontziak bi eskutan dituela sukaldeko bidea hartzen du, baina, keinu txiki bat publikorantz eginaz, eta hitzak azpimarratuaz)* Ikusiko duk zelako pasarea ematen diadan gaur gauean... *(Senarra sukaldetik bueltan datorrelarik musu zaratatsu bat ematen dio)*
- Aita** *(Amore emanaz)* Sorgin galanta haiz hi.
(Kale erantzungailuak jotzen du)
- Ama** Aitor izango duk.
- Aita** Seguru...
- Ama** Hartu platerak eta, ni joango nauk. *(Aita sukaldean sartzen da eta ama erantzungailua hartuaz)* Bai... Bai *(Atea irekitzeko botoia sakatuaz eta sukalderantz ozenki)* Aitor da.

2. eszena

(Ama mahai gaineko hondarrak jasotzen dituen bitartean, aita erratza pasatzen ari da. Aitor sartzen da, aurpegia txuri txuri eta balantzaka)

- Aitor** Kaixo. (*Pertxeroari eutsiz*) Ez nago batere ondo. Buruko minez eta dardarka.
- Ama** (*Esertzen laguntzen dio*) Kalentura izango duzu seguruenik. Egon zaitetz lasai eserita eta termometroa jarriko dizut.
- Aita** Oheratzea ez al da hobe izango?
- Ama** Hobe izango da, bai. (*Aitorri lagunduaz*) Eta han jarriko dizut termometroa. Gose gutxi izango duzu?
- Aitor** Batere ez, ama.
- (*Eskubialdera hartzen dute eta bat-batean Aitor erori egiten da*)
- Ama** (*Garrasi handi bat eginaz*) Jesus! (*Aita hurbiltzen zaie eta bion artean altxatzen dute*) Zu ez zaude batere ondo. Hobe izango dugu ospitalera eramatea. Joan hadi kotxe bila, Julian.
- (*Lehenago aulkian esertzen dira berriro*)
- Aita** (*Eskubialdetik irtenaz*) Segituan nator.
- Ama** (*Aitorren kopetan musu eginaz*) Kopeta kiskaltzen daukazu. Termometroa jarri behar dizut. (*Termometroaren bila joaten da*)
- Aitor** Lasai, ama, ez da ezer izango.
- Ama** (*Sukaldetik*) Makina bat aldiz esan dizut baina. Ez dakik zertarako hainbeste ahalegin. (*Termometroa eskuetan duela azaltzen da, termometroa aztertu eta astinduaz*) Ekipoko bakarra zarela dirudi. Beti a tope. (*Termometroa besapean ipiniaz*) Besteak ere zer edo zer egin beharko dute ez da?

Aitor Begira, ama, gaur partidua utzi beharra izan dut, eta ez dakit ez ote naizen hoztu.

Ama Betiko leloa. Esan eta esan, dena alperrik. Astakeriak besterik ez. *(Termometroa kenduaz)* Akordatuko zara handi egindakoa, akordatuko zara, bai. *(Termometroari begira)* Berrogei. Hau ez da berriketakoa.

(Aita sartzen da)

Ama Goazen azkar, Julian, berrogeiko kalentura dauka eta.

(Eskubialdetik irteten dira. Argiak itzaltzen dira)

3. eszena

(Aitor eta bere aita egongelan daude sofán eserita. Aitorrek aulkitxo baten gainean ditu hankak eta muleta pare bat bere alboan. Zerbait irakurtzen ari dira, bere gurasoen gazte garaiko euskal kantautore baten musika entzuten duten bitartean: Benito Lertxundi, Mikel Laboa, etab. Ateko erantzungailuak jotzen du. Altxatzeko keinua egiten dute biek batera)

Aita Lasai, ni joango naiz. *(Erantzungailua hartzen du. Aitorrek, interes gehiegi jarri gabe, irakurtzen jarraitzen du)* Bai... *(Etentxo bat. Adorez)* Sartu, sartu. *(Atea irekitzeko botoia sakatzen du. Aitorri)* Jon da.

Aitor *(Adoretsu)* Joino! Bazen garaia...

*(Aita eskubialdetik irteten da. Aitor, irakurtzeari utzi eta bere muletaz baliaturik zutitu egiten da. Eskubialdeko bidea hartzen du eta justu une horretan Jon azaltzen da aita-
ren aurretik)*

Jon *(Besoak zabalduaz)* Kaixo, Aitor!

Aitor *(Oso pozik) Aspaldiko! (Elkar besarkatzen dute. Bata beste-
teari begira) Zer moduz?*

(Nekane eta Jone azaltzen dira)

Aitor *Koño, zuek ere bai? (Elkar musukatzen dute) Pasa hona,
benga! (Esertzeko keinua egiten die) Ez dakit denak kabi-
tuko garen baina!*

*(Txaketak eta gabardinak pertxeroan utzi eta, Jone sofan
esertzen da eta Aitor bere atzetik; Jon, bere aurrean, esze-
natokiko ezkerraldera, Aitak eskaintzen dion aulkian; Ne-
kanek, berriz, ez du eseri nahi. Jonek eskuetan zekarren
gaileta kaxa irekitzen hasten da. Aita sukalde aldera joa-
ten da)*

Aitor *Ez al duzu eseri behar?*

Nekane *(Koketa) Lasai, ni hementxe eseriko naiz (Sofaren beso-iz-
kinan esertzen da bere hanka zuztarrak erakutsiaz)*

Aitor *(Nekaneri belaunetik helduaz) Hauek dira hankak,
hauek...*

Nekane *(Batere garrantzirik eman gabe eta, pikardiaz, ezker es-
kuarekin Aitorren ileak astinduaz) Jolaserako grina ez
duzu batere galdu, e?*

Jone *(Jeloskor eta ireki berri duen gaileta kaxa eskainiaz) Hobe
izango dugu gaileta batzuk jaten hastea.*

Aitor *(Irripartsu) Ez horrela jarri, Jone. (Bizkar atzetik heldu eta
beregatanuaz) “Celosilla...”*

(Aita azaltzen da edari bandeja bat eskuetan duela)

Aita *Beno, zerbait nahi al duzue? Coca-Cola-ren bat? Fanta?
Pasta batzuk?*

- Jon** Beno... (*lotsaturik. Aitorrek moztu egiten du.*)
- Aitor** Benga, aitta, utzi hemen mahai gainean. Majo jarri behar gara...
- (*Aita sukaldera itzultzen da bandeja mahai gainean utzita. Hizketa egiten duten bitartean, pastak jateari ekingo diote*)
- Aitor** (*Eraginkor*) Benga, benga, kontatu azken berriak.
- Jon** Lehenengo zuk kontatu beharko diguzu, ez? Zuri gertatutakoaren berririk apenas dugu. Zer moduz zaude? Zer gertatu zitzaizun?
- Aitor** Ez dakit. Kriston buruko mina jarri zitzaidan eta ospitalera eramane ninduten, baina ez omen da ezer garrantzitsua. Laster, muleta nazkagarri hauek gabe ibiliko naiz.
- Nekane** Ea egia den, zer ni nazka-nazka egin nago pareja honekin juergara joateaz. (*Jone eta Ion, parrezka, elkarri begiratzen diote. Nekane, zutiturik, jenio bizi xamarrean...*) Juergarako nik dudane gorputzarekin, ba al dakizu zer den hauek musutxo bat hemen, esku bat han, ji ji ji, ja ja ja...? (*Etxeko bazter guztiak miatzen hasten da, lotsa galduta*)
- Jon** (*Barrezka*) Ez iezaiozu kasorik egin. Exageratu hutsa zara, Nekane!
- Nekane** Ni exageratua? Beno, beno, aditu beharko dittugunak! (*Aitorri begira*) Mutilen bat bilatu beharko dut; bestela... ez dakit zer egingo dudane. Beno, noizbait mutilen bat aurkitzen badut, ze gauzak dauden bezala... (*Denek irrifar egiten dute*)
- Aitor** Lasai, Nekane, laster zuekin izango naiz eta. Ah, zer inbiri ematen didazuen!

- Jone** Sendatuko al zara hurrengo ostiralerako?, Tolosako Leido-
rrren, Mikel Markez-ek jotzen du eta nahiko merke dago
gainera. Joango gara, ez da?
- Aitor** Ostia! Joan beharra daukagu! Han izango naiz suerte pixka
batekin. Kriston juerga botako dugu. (*Hori esaten duen bi-
tarte an aita sukaldetik dator kalerako asmotan*) Entzun al
diezu aitta? Mikel Markez! Utziko didazu, ez da?
- Aita** (*Aita nahiko serio jartzen da*) Ikusiko dugu.
- Jon** Beno, denok goaz eta! Utziko diozue, ez?
- Aita** Ikusiko dugu nola doan, bale? (*Kazadora hartu eta kale-
rantz abiatzen da*) Enkargu batzuk egin beharra dauzkat.
Zuek ondo portatu, e?
- Aitor** Bai, lasai joan. Gu hemen, zintzo egongo gara. Agur!
- Jon** Bai, agur!
- Nekane eta**
- Jone** (*Aldi berean*) Gero arte!
- Aita** Agur. Laster etorriko naiz. (*Irten egiten da eskubialdetik*)
- Aitor** Beno, kontatu bada kotileoak! Zer berri dago?
- Jone** Berri gutxi, egia esan. (*Nekane zeharka begira*) Beno...,
Edurne mutil batekin ibili zen aurreko larunbatean. (*Aitor
serio begirada zorrotza botatzen dio*)
Sentitzen dut. Neska hori ez da betea. Barkatuko didazu,
baina ez da betea. Beti zurekin tontoena egiten eta zu falta
zaren bi egunetan, zast!, Eskua beste bati jarri. Tonta hutsa
da, ez du zugandik ezer merezi.
- Aitor** Zer nazkagarria! Beno, berdin dio, egia esan, tonta hutsa
da. Berak galtzen du. (*Barrenak erretzen dauzka, baino ez*)

du nahi giroa aldatu. Gaiaz aldatu nahian) Beno, eta zer egin behar duzue asteburu honetan?

Jone (*Nekaneri begira, mesprezatuz*) Beno, neska honek ez dakit zer pelikula ikustera eraman nahi gaituen Tolosara.

Nekane (*Tonu ironikoan eta Jonen esandakoari iseka*) Nola, “ez dakit zer pelikula ikustera”. (*Aitorri begira*) “La Letra Eskarlata” ikusi behar dugu. Ez dauzka kritika oso onak, baina oso erromantikoa omen da... (*Publikoari begira, beste mundu batean balego bezala*) Ai!, desiatzen ari naiz, joan beharra daukagu! Zuk ere etorri egin beharko zenuke.

Aitor Pelikula hori ikustera ezin dut joan, baina zuk esango didazu noiz den hurrengo (*Maleziaz*) super pelikula erromantikoa..., ez da? (*Denak barrez hasten dira*)

Nekane (*Koketa eta bere gorputzari jiro airoso batzuk emanaz*) Zuek, barre egin, baina ikusiko dugu aktorea famatua bihurtzen naizenean...; orduan ikusiko dugu...

Jon (*Iseka*) Horra hor gure super Sharon Stone... (*Ahots xelebreaz, eta mahai gainetik paperezko serbiletan eskainiaz*) Autografoa? (*Denek barrez segitzen dute.*)

Nekane Zuek barre egin bai, barre egin!

(*Pixkanaka baxuago hitz egiten hasten dira, jan eta edaten jarraitzen duten bitartean. Musika aditzen hasten da geroz eta altuago, argiak itzaltzen doazen bitartean*)

Jone Aktorea ederra eginga zaude zu...

Nekane (*Joneri aurre eginaz*) Inbiri galanta zurea...

Aitor (*Pakea jarri nahian*) Beno, beno..., ez dugu haserretu behar.

(Bakarrizketan jarraitzen du bakoitzak bere buruarekin... Giroa ez da erabat baretu eta tarteka jesto txarrak sumatzen dira beraien artean)

4. eszena

(Musika eteten da eta argiak pizten. Aitor, gurpilezko aukian eserita, jangelako leihotik kanpora begira dago)

Aitor

(Ezker eskuarekin ilea atzerantz eramanez, buelta hartzen du) Nire amak (Barre faltsu bat eginez) lagunak galtzen ez den altxorra direla esan zidan, (Mugitzen hasten da) baina, ez dakit..., nire kasuan behintzat, desagertzen hasiak dira. (Serio jarriaz) Egia esan hau ez da egoera atsegina, dagoeneko bi hilabete pasa dira eta, aurrera egin ordez, (Sillaren bi besoak indarrez helduaz) atzeraka noala dirudi. Lagun kontsideratzen nuen inork ez du nire etxeko txirrini jo aspaldi honetan. (Kitarra hartzen du sofa gainetik. Akorde bat jotzen du) Ez elkarrizketa bat, ez telefono dei bat, ez esaldi bat, ez hitz miserable bat. (Kitarra sofa gainera botatzen du atzera) Hauek al dira benetako lagunak? (Sukaldean sartzen da ezkerretik irtenaz)

(Aita eta ama eskubialdetik sartzen dira. Biak oso kezkatu-rik daude. Berokiak pertxeroan jarri eta ama eseri egiten da)

Aita

Nahi al den tila bat, Maria Luisa? Lasaitu egingo hau!

Ama

Hau jasan ezina dek, ez zegok ni lasaituko nauenik. (Negarrez) Momentu honetan mirari bat beharko nitek buruan daraman zama kentzeko. (Desesperatua, esku batekin malakoak kentzen saiatzen da baino gero eta ugariagoak dira.)

Aita

(Lasaitu nahian) Lasai, Maria Luisa, dena ondo aterako dun, Aitor mutil gogorra dun eta lortuko dinagu, denon artean lortuko dinagu.

Ama *(Bere onetik aterata, eskuak batera eta bestera mugituaz)*
Zer lortuko diagu? Ez al haiz ohartzen honek irtenbiderik ez duela, gure semea ez dela inoiz gehiago bi hanka gainean ibiliko! Mingarria duk bai, baina egia!

Aita *(Bere emaztearengana hurbiltzen da, eseriaz, eta besoa bizkar atzetik pasatzen dion bitartean...)* Ez ninan uste guri horrelakorik gertatuko zitzaigunik! Nola dun posible! Ez dinagu hau merezi!

Ama *(Aita beste eskutik helduaz, oso kezkatuak)* Nola erreakzionatuko ote dik gure Aitorrek hau jakiten duenean, zer egingo ote dik, zer?

Aita Nahikoa dun Maria Luisa! Momentu honetan Aitorrek bere gurasoen laguntza behar din, baina, ez ume baten moduan... Barnean daramagun beldur ikaragarri hau kanpora atera behar dinagu eta sendo jokatu, bere ondoan edozertarako gaudela erakutsi behar zionagu.

Ama *(Etsita)* Arrazoia duk, Julian, baina gogorra duk, hain polita zuan dena!, Politegia agian bizitza osoan zehar irauteko. *(Negar zotinka)* Baina arrazoia duk, bai, saiatuko nauk beldur hau alde batera utzi eta Aitor laguntzen. *(Maria Luisak bi eskuekin malkoak kentzen ditu. Aitak mukizapia eskaintzen dio)*

Aita Maria Luisa, ez al zain iruditzen laster Aitorri kontatu egin beharko diogula gertatzen zaiona?

Ama Agian bai, baina nola kontatu? *(Iseka)* Aitor sentitzen dugu, baina gaitz galopantea duzu... *(Burua ezker eskubira mugituaz eta negarrez berriro)* Ez, gogorregia izango luke, ez diat uste egokiena denik, agian ez.

Aita *(Amore emanaz)* Beno itxoingo dinagu ba, pixka bat.

(Ateari danbateko handi bat emanaz Aitor sartzen da amorrerri biziaz. Amak hori ikusitakoan burua eskuartearen ezkutitzen du)

- Aitor** Zergatik ez didazue kontatu...?
- Aita** (*Aitorren hitzak moztuaz*) Kontatu behar genizun, baina...
- Aitor** Ez dut bukatu oraindik! Gainera ez esan gezurrik, oraintxe entzun dizuet momentu egokia ez dela eta. Inoiz ez da momentu hori iritsiko... Lehenengoa zen, behar bada, horretarako egokiena. Nire bizitza da, ez da? Nork du nik baino eskubide gehiago hori jakiteko, nork?
- Aita** (*Eserlekutik altxa eta Aitorrengana hurbiltzen da*) Aitor, guk zuretzat egokiena iruditzen zitzaiguna egin dugu. Gainera zu egon lasai, aurrera aterako gara eta...
- Aitor** (*Sukaldeko bidea hartzen du bere aitarengandik ihes eginaz*) Aurrera atera? Ez esan tontakeriak. Nire bizitza osoan silla honi lotuta egon beharko dut. (*Ateari izugarrizko dantatekoa emanaz irten egiten da*)
- Ama** (*Ama, negarrez, bere atzetik abiatzen da, baina Julianek ez dio uzten*) Aitor, Aitor, zatoz hona!
- Aita** Lasai, bakardadea behar din momentu honetan. (*Biak elkar besarkatzen dute. Erreakzionatuaz eta emaztea animatu nahian*) Lagunduko al didan kaxa igotzen
- Ama** Zer kaxa?
- Aita** Aitorrentzako ekarri duguna, emakumea. Ea pixkat animatzen den...
- Ama** (*Oraindik bere onera etorri gabe*) Beno...
- Aita** (*Eraginkor*) Benga, goazen! (*Sukalderantz*) Garajera goaz, Aitor. Segituan gatoz.
- (*Aitor azaltzen da baso bat ur eskuetan eta pastila frasko bat magalean duelarik*)

Aitor *(Basoa eta fraskoa mahai gainean utziaz)* Ez du merezi. Horrela zertarako bizi? *(Pentsakor leihotik begira jartzen da tarte batez. Buelta hartu eta fraskoan tapa kentzen hasten da)* Egunetik egunera inutilago sentitzen joango naiz, nire hankak gero eta gutxiago mugituko dira, baita nire eskuak ere... Eta zer da bizitza hau esperantzarik gabe?

(Pastila mordo bat hartzen du, basotik ur trago bat edanaz. Handik pixkatera, konortea galdu eta ezker eskuan duen pastila fraskoa lurretik erortzen zaio. Segidan, gurasoak azaltzen dira, kaxa handi bat eskuetan. Ama da aurrena konturatzen)

Ama *(Garraxika)* Jesus!

(Kaxa bertan utzi eta Aitorrengana hurbiltzen dira)

Ama Ez mesedez, Aitor, hau ez! *(Aitorren masailak astinduz)*
Esnatu!

Aita *(Aitorren atzekaldetik, bere gorputza zutitu nahirik, negarrez)* Aitor, esna zaitez, ez ezazu aldegin, hori ez mesedez! *(Aitor besarkatzen du eta hizketarik gabe bere samina adierazten jarraitzen duen bitartean)*

Ama *(Telefonoz deika. Hiru zenbaki. Oso urduri. Argiak itzaltzen doaz eta musika egokia entzuten hasten da gero eta nabarmenago: Benito Lertxundi...)* Anbulantzia, mesedez... Bai, bai...Sekundino, 7, ezkerra... Bai, bai... Amezketeta...

III. EKITALDIA

1. eszena

(Aitor burumakur gurpilezko sillan eserita, zuhaitzaren ingurura hurbiltzen da)

e) Gelan agertuko diren gaionentzeko gauzak:

—Pertxeroa

—Paragueroa (klasekoa)

—Zenizeroa

—Termometroa(amak Aitorri sukarra hartzen dionean)

—Alfonbra.

—Kitarra

3. ESZENA (parkean)

—3. ekitaldian ondo zehaztugabe dagoenez ezin dugu ondo zehaztu baina parkean ematen denez gauzak ez dira asko aldatuko.

—Kitarra.

ATREZZO

1. ESZENA (PARKEA)

a) Eszenaren ezker aldean BANKU bat dago.

b) Pertsonak behar duten materiala:

—Agureak: periodikoa, bastoia, pipa.

—Aitorrek: kromoak, baloia.

—Aitak: erosketen poltsak.

—Haurrak:

- panpinak (neskak)
- kromoak (mutilak)

2. ESZENA (egongela)

a) Aurreko eszenak parkeko bankua zena oraingo eszenak egongelako SOFA bihurtuko da.

SOFA: bankua manta edo tela eta kojinaz apaindua izango da.

b) Mahaia: gurasoak bazkaltzen dutena.

—Aulkiak: bi edo hiru.

c) Bazkaltzeko orduan behar den materiala.

—platerak

—kubiertoak

—edalontziak

—txarroa

—serbiletak

d) Kanpotik, sukaldetik, ekartzen dutela imaginatuz.

—ogia zesto batean.

—fruta ontzia.

—gatz potea (norbaitek elkarrizketan ari direla, gatza eskatzen badu).

—bazkaltzen ari diren mahaietan LORONTZI bat egongo da.

Aitor

Zergatik ez ote naiz txori bat? (*Zuhaitzari aurpegi alaiatz begiratu eta bere besoak zabalduz*) Imaginatzen duzu zer izango litzatekeen txori bat izatea? (*Bere besoak hegaka mogituaz*) Ez, neuk ere ez dut neure burua txori ikusten. (*Kitarra jotzen hasi eta bat-batean, abesten ari den bitartean, beste ahots bat, abesten eta jotzen ari den kanta abesten hasten da. Zuhaitzaren arima irten eta Aitorren inguruan dantzan hasten da. Aitorrek zuhaitzaren ahotsa entzuten du baina zuhaitzaren arima ikusten ez duenez, harriturik gelditzen da. Kanta jotzeari uzten dio eta hala ere zuhaitzaren arimak bertan jarraitzen du. Handik pis-katera alde egiten du*)

Aitor

(*Aurpegi oso tristea. Lurretik zuhaitzaren adar txiki bat hartu eta eskuartean erabiliaz*) Ez naiz honetatik inoiz aterako. (*Zuhaitzari begira*) Ni ere zu bezala sustraiak finkatzen hasia naiz. (*Eskuak begiratuaz*) Batzuetan nire eskuak dardarka jartzen dira etengabe. Momentu horietan beldurra egiten da neure gorputzaren jabe. Heriotzaren irudia ikusi eta bere segaren ziztada ene barnean sentitzen dut, zizt eta zizt (*Eskuarekin keinuak eginez*) Bakarrik sentitzen naiz. Ene gorputza deabruaren menpe erortzen da eta nire burmuina hamar mila piezatako puzzle osatugabea bezala geratzen da. Momentu horietan hil egin nahi dut, baina bizitzak aurrera jarraitzen duela ohartzen naiz. Ez ote da ate argi bat egongo inguratzen nauen inguru beltz honetatik irteteko? (*Ixiltasun momentu bat. Barre egiten du*) Gogoratzten al zara? (*Bere eskuarekin adieraziaz*) Horrelako txikia nintzela, lagun bat edo bestekin borrokatu ondoren hona etortzen nintzen, zure babesera, beldurra uxatu nahian edo...

KAIKO. ZER MODUZ? LAPURKETA ARRAROA

Urko Palacios eta
LMH 3. mailako ikasleak
Itzalak
Zestoa herri ikastetxea
Zestoa
1996

GAIA

Itzalen bidez asmatuiko istorioa kontatuko da.

PERTSONAIAK

- 1. aurkezlea
- 2. aurkezlea
- 1. lapur txikia
- 2. lapur txikia
- 3. lapur txikia
- Dirua
- Lapur handia
- Ertzain 2
- Epailea
- Abokatua
- Fiskala
- Kartzelaria

(Taldeko bi partaidek antzerkiko pertsonaia guztiak aurkeztuko dituzte banan-banan. Batzuk ezkerretik irtengo eta sartuko dira eta besteak eskubitik)

- 1. aurkezlea** Arratsaldeon jaun andreok, oraintxe bertan 5. eta 6. mailetako ikasleok antzerki bat aurkeztuko dugu. Bere izenburua LAPURKETA ARRAROA da.
- 2. aurkezlea** Eta zergatik izenburu hau? Ba, adi egon eta ikusiko duzue. Ondoren antzerkiko pertsonaiak aurkeztuko dizkizuegu.

- 1. aurkezlea** Lapur txikiak (*hiru*) beti bezala jarraitzen dute, hau da: gutxi lapurtzen eta zigorrak pairatzen (*Hauek ezker aldetik agertuko dira*)
- 2. aurkezlea** Lapur handia altueraz handi eta lapurketak ugari (*Hau eskumatik azalduko da hankapalu gainean*).
- 1. aurkezlea** Abokatua lan asko eta sarritan frakaso (*Ezkerretik*).
- 2. aurkezlea** Epailea, lege gordin eta hotzaren zaintzaile (*Eskuma aldetik agertuko da hankapalu gainean*)
- 1. aurkezlea** Ez txarra, ez ona. Hori da Dirua, gauza bat bakarrik (*Ezkerretik aurkeztuko da eskumatik ateratzeko, hau ere hankapalu gainean*)
- 2. aurkezlea** Hau dugu fiskala. Bere lana akusatzea, beti abokatuaren aurka.
Hurrengoa kartzelaria. Ixila, serioa eta tristea.
Hauek ertzainak: Lanean gogor, seguru eta ordenaren jabe
- 1. aurkezlea** Besterik gabe eta zuen gustukoa izango delakoan, hemen gure antzezlan xume hau.

1. AGERRALDIA

(Lapur txikiak agertuko dira ezker aldetik, zarataka, elkarrekin hitz egiten)

- 1. lapur txikia** Aizue, lanik ez, dirurik ez, hau da marka. Dirua lortu beharra daukagu, kosta ala kosta.
- 2. lapur txikia** Nonbaiten lapurtuko dugu.
- 3. lapur txikia** Hori ideia ona.
- 1. lapur txikia** Non, nola eta nori?

2. lapur txikia (*Urrutira begira*) Begira nor datorren han

3. lapur txikia Alde honetara dator, harro asko

1. lapur txikia Horrixe kenduko diogu poltsa

2. lapur txikia (*Algaraz*)Joango zaizkio harrokerian ibiltzeko gogoak bere diru poltsa gure eskuetan dugunean.

1. lapur txikia Oso beltza ikusten dut. Ez dut kartzelara joan nahi. Baina.... Tira aurrera! Ez daukagu beste erremediorik!

2. lapur txikia Hementxe ezkutatuko gara bera etorri arte, eta gero....

(Lapur txikiak ezkutatu egiten dira eta Diru jaun handia agertzen da eskubitik, sekulako diru zaratekin eta barre handiak eginez)

Dirua Jo! Jo! Jo! Hemen nator nire aberastasun, trikimailu eta handitasun guztiarekin. Dirua, dirua eta diru gehiago behar dut. Hori da izatea.

1. lapur txikia (*Ixilean*) Diru poltsa bat guretzat izango da. Diru jauna poltsa bat gutxiagorekin geratuko da. (*Algara isila*)

2. lapur txikia (*Ixilean*) Goazen azkar! Oraintxe da gure aukera. Orain edo inoiz ere ez.

(Lapur txikiak ezkutalekutik atera eta diru poltsa bat lapurtzen diote Diru jaunari)

Dirua Dirua lapurtu didate! Heldu lapur madarikatu horiek! Ezagutzen zaituztet ikusiko duzue zer den ona! Bai horixe!

(Lapurrak ihesi doaz zarata eta irribarre artean ezkerretik. Lapur txikiak joaten direnean, lapur handia azalduko da eskubitik)

Lapur handia Egunon Dirua! Dirua irabazteko egun ederra gaurkoa, ez da?

Dirua Egun ederra? Baita zera ere. Oraintxe bertan lapur txiro eta txepetx batzuek diru poltsa bat lapurtu didate, ondorioz lur jota nago. Hau da hau bizitza txorua.

Lapur handia Etorri nirekin eta nik lagunduko dizut. Nirekin ez duzu horrelako arazorik edukiko, eta oso lagun handiak egin gaitzake. Gainera biok batera diru poltsa gehiago lor ditzakegu. Zer diozu?

Dirua Ez da ez ideia txarra. Ondo deritzot. Lagunak harremanetan, lagunak irabazietan. Zurekin elkartuko naiz.

Lapur handia Eman bostekoa orduan eta kide izango gara une honetatik aurrera.

(Elkarri ematen diote eskua. Segidan lapur handiak lepoa ematen dio Diruari eta irribarre maltzurra botatzearekin batera eskuak igurtzitzen ditu)

Lapur handia Orain, ertzainarengana joan eta lapur txiro horiek salatuko ditugu, ea nire dirua berreskuratzen dugun

Dirua Gure dirua esan nahiko duzu, ezta?

Lapur handia Um... Bai, bai

Dirua Orduan, goazen azkar! Lapur gizajo horiek zigor gogorra merezi baitute.

(Azkar batean joaten dira biak batera, eskutik helduta, eskubitik. Lapur txikiak zelatan agertzen dira ezkerretik)

2. AGERRALDIA

1. lapur txikia Joan dira.

2. lapur txikia Goazen diruak kontatzera.

(Halako batean...Lapur txikiak eskuin aldean zelatan egon dira luzaro, Lapur handi eta Diru urrutian ezkutatu diren arte. Ondoren, lurrian eseri eta diruak kontatzen hasten dira. Halako batean bi ertzain agertuko dira, korrika eszenategira, zarata eta txistu hotsen artean, lapur txikien bila)

Bi ertzainak Geldi! Geldi! Ertzaintza!

2. lapur txikia Korri, korri lagunok. Harrapatuko gaituzte bestela. *(Zalapatari abiatzen dira)*

Bi ertzainak Geldi edo tiro egiten hasiko gara!

(Hiru lapur txikiak hori entzuteaz batera gelditu egiten dira, eta ertzainek atxilotu egiten dituzte)

1. lapur txikia Banekien kartzela ilun batean bukatuko genuela. Guk daukagu guk zorte txarra. Beste batzuk bizi guztia lapurretan ematen dute eta inoiz ere ez dira kartzelara eramana izaten. Guk ordea behin hiru sos lapurtu eta zuzen barrura.

3. lapur txikia Ixil zaitez, behingoz. Nire iloba txikia dirudizu. Joku arriskutsu batean jokatu eta galdu egin dugu. Orain galtzaileen zigorra baino ez zaigu geratzen.

2. lapur txikia Lasai, lagunok. Era batera edo bestera gaudituko dugu arazo tamalgarri hau. Beharbada, ihes egiteko aukeraren bat izango dugu, nork daki.

Bi ertzainak Ixil zaitezte behingoz, oraintxe bertan eramango zaituztegu kartzelara. Hori baita zuek egotea merezi duzuen leku bakarra.

(Denak eszenatokitik aterako dira Lapur handia eta Dirua eskutik helduta eszenan azaltzeko)

Lapur handia *(Ixilean)* Munduko diru guztiaren jaun eta jabe naiz, harrokeria osoz paseatzen ibiltzeko. Bitartean, beste hiru lapur txiki eta txiro horiek kartzelara doaz inozo hutsak bezala, diru poltsa txiki bat lapurtzearren.

Dirua Txiroak txiroago eta aberatsak aberatsago.

Lapur handia Bestalde, diru poltsa hori orain nirea da, inolako lanik eta esfortzurik egin gabe.

Dirua Gutxi batzuentzat irabaziak, besteentzat zigor guztiak.

Lapur handia Negozioak beti negozio, azken baten, ni negozio gizon arrunt eta umil bat besterik ez naiz.

Dirua Nahiz eta umil hitzetan, harroa harro ekintzetan.

Lapur handia Hemen bestea. Astoak mandoari belarri handi. Ez etorri niri atsotitz eta esaera zahar merkeekin, gero...

(Biak paseatzen jarraitzen dute eta musika entzuten da)

3. AGERRALDIA

(Epaiketa aurkeztuko da. Epailearen eserlekua erdi-erdian publikoari begira, bere aurrean eta publikoari lepoa emanez lapur txikiak, hauen alboan ertzainak eta epailearen ezker eta eskuma aldean elkarri begira abokatua eta fiskala; abokatua ezkerrean eta fiskala eskubian. Denak hitz egiten eta eserita agertuko dira, epailea etorri arte. Hura etorritakoan zutitu eta ixilik egongo dira. Epailea eserita-koan denak eseriko dira)

Epailea *(Egurrezko mailuari eraginez)* Epaiketa hastera doa, has dadila abokatu jauna eta buka dezagun ahal bait arinen.

- Abokatua** Epaile jaunaren baimenaz. Nire bezeroak errugabe dira. Beraien erru bakarra txiro izatea izan da, eta txirotasun krudel horretatik ateratzeko lapurreta bat burutzea. Gainera, egoera aztertuz gero lapurreta zen beraien aukera bakarra bizi nahi baldin bazuten.
- Fiskala** Epaile jaunaren baimenaz. Hemen ez da epaitzen txiroak ala aberatsak diren. Hemen delitua epaitzen da: lapurreta! Horregatik, abokatuak esan duen guztia lekuz kanpo dago, kontutan hartuz gainera delitua frogatua dagoela, abokatuak berak onartu duen bezala.
- Abokatua** Epaile jaunaren baimenaz. Nire bezeroek behar-egoera bizi dute eta hori benetan kontuan hartzekoa delakoan nago.
- Epailea** Abokatu jauna, epaimahai honek hori kontuan hartuko du, halaz ere delitua hor dago eta hori errefuxatzen saiatu behar duzu. Ados?
- Abokatua** Nire bezeroak errudun badira, delitua egitera bultzatu dituen sistema ere errudun da.
- Fiskala** Protestatu egiten dut. Ez gara sistema epaitzen ari.
- Epailea** Protesta onartzen da. Abokatu jauna hel iezaiozu kasuari.
- Abokatua** Epaile jaunaren baimenaz. Gauzak horrela, nire defendatuen absoluzioa eskatzea besterik ez zait geratzen.
- Fiskala** Epaile jaunaren baimenaz. Lapurreta delituari dagokion kartzela zigorra eskatzen dut hiru akusatuentzako, hau da; bi urte, lau hilabete eta egun bateko kartzela zigorra bakoitzarentzat.
- Epailea** Akusatuek ezer esan nahi badute orain mintza daitezke.
- 2. lapur txikia** Gu errudun bagara, zuek ere errudun zarete. Desoreka ekonomikoa bultzatzen baituzue. Pentsatu horri buruz epaile jauna.

3. lapur txikia Ni ez naiz damutzen egindakoaz, eta berriz ere egingo nuke. Txirotasun osoan bizitzea baino gauza okerragorik ez baitago.

1. lapur txikia Epaile jauna, erruki zaitez. Nik andrea eta hiru seme dauzkat. Nola biziko dira ni gabe? Zer egingo dute?

Epailea Alde guztiak entzun eta gero, asko hausnartu eta pentsatu ondoren, zera erabakitzen eta aldarrikatzen dut: Hiru akusatuetako bakoitza bi urte, lau hilabete eta egun bateko kartzela zigorrera kondenatzen ditut. Hala bedi!

(Abokatua eta lapur txikiak zarataka hasten dira eta fiskalari irrifarretxoak agertzen zaio. Denak joaten dira. Jarraian lapur handia eta Dirua agertzen dira eskutik helduta)

Dirua Bi urte, lau hilabete eta egun batera zigortu dituzte lapur txikiak. Gutxiegi iruditzen zait beraientzako

Lapur handia Jo !Jo! Jo! Horiek inozoak eta gizajoak!

Dirua Nire ustez, hori baino zigor handiagoa merezi zuten, niri egin zidatena kontuan hartuz.

Lapur handia Legea horrelakoa da, motel.

(Eszenategitik irteten dira ixil-ixilik)

4. AGERRALDIA

(Eszenatokian errejazko itxitura, pare bat m. zabal. Eskuin aldean, mahaitxo bat bere aulkiarekin, kartzelariarentzat. Ertzainek kartzelara eramaten dituzte lapur txikiak)

Bi ertzainak Hemen dituzu hiru gaizkile hauek. Denak zuretzako.

Kartzelaria Oraintxe bertan sartuko ditut, ea gutxi kexatzen diren eta ez duten buruhausterik ematen.

Bi ertzainak Zaindu ondo eta gero arte.

Kartzelaria Bai, gero arte.

(Ertzainak joan egiten dira. Kartzelariak erreja baten atzera sartzen ditu)

Kartzelaria Zuek sartu hemen eta ixil-ixilik egon. Argi geratu da?

1. lapur txikia Bai, funtzionari jauna.

(Lapur txikiak sartu eta eseri egiten dira)

1. lapur txikia Hau marka. Orain bi urte baino gehiago eman beharko dugu etxe zikin eta goibel honetan. Gure familia eta lagunak ikusi gabe. Ez dago eskubiderik.

2. lapur txikia Ez zaitez hasi berriz ere. Nahikoa ez banu hemen egotearekin, gainera zure penak entzun behar.

3. lapur txikia Lasai, lagunok. Bi urte laster pasatzen dira. Horretaz gain, nahiz eta preso egon gu kanpoko asko baino askeagoak gara. Gure bizitzari aurre egiteko kemena eta gaitasuna daukagulako, guk erabakitzen dugu gure bizitzaz, ez gara errobot batzuk.

1. lapur txikia Horrekin zu kontsolatuko zara. Zeren gu hemen gauden bitartean, lapur handia hor ibiliko da berak egun argiz lapurtutako diru guztiarekin bereak eta bi egiten. Gu ordea, hemen txiro eta lau hormen artean.

Kartzelaria Ixiltzeko esan dizuet. Ez daukat zertan zuen lelokeria horiek entzun, beraz badakizue.

3. lapur txikia Hitz egin dezakegu gure artean, ez dago hori debekatzen duen legerik.

Kartzelaria Ene, mutil argixoren bat ote daukagu lapur txiro hauen artean. Edo abokatua ote?

3. lapur txikia Ez bata, ez bestea. Gizaki bat besterik ez, bere akatsekin eta bere azertuekin, gizaki konsziente eta askea.

Kartzelaria Hitz gehiegi egiten duzu gauza onerako.

3. lapur txikia Hitz gehiegi? Orduan, hau galdetuko dizut bakarrik: zergatik gaude gu kartzelan eta lapur handia kalean?

Kartzelaria Ez dakit, ezin dizut erantzun. Bestalde, zergatik erantzun behar dizut! Preso bat besterik ez zara.

2. lapur txikia Nik erantzungo dizut: Lapur handia boteretsua eta diruduna delako; gu berriz ez gara ezer.

(Kartzelaria joan egiten da eta lapur txikiak bakarrik gelditzen dira beraien kate eta guzti)

2. lapur txikia Ez dio inori axola guri gertatzen zaiguna edota gerta daki-gukena, gizartearentzat zaborra besterik ez gara baina bihar, edo etzi, edo nork daki noiz, egoera latz eta injustu hau aldatuko da; ez horren zalantzarik eduki. Itxaropena gurea da, hori ez digute inoiz kenduko.

(Lapur txikiak halako poz aurpegi batekin ateratzen dira eszenategitik. Irten aurretik 1. lapur txikia bueltatu egiten da eta publikoari so geratzen da)

1. lapur txikia Itxaropena. Itxaropena. Itxaropena.

(Azkenean pertsonaia guztiak banaka aterako dira eszenategira, eta denak batera, LES MECANICIENS musika taldearen kanta zati hau abestuko dute: «Lapur txikiak zigortzeko nonahi badago kartzela handiak hor ikusten ditut pasilloan dabilzala. (bis)» bitarte horretan lapur handia paseatzen ibiliko da eta lapur txikiak belauniko agertuko dira)

AMAIERA

LAGUN ZAURITUA

Lukas Dorronsoro eta ikasleak

Drama

Aizarnako herri ikastetxea

Aizarna

1995

GAIA

Gure mendietan otsoa dabil bereak eta bi egiten. Ehiztariek, elkartu eta akabatzea erabaki dute. Ustekabeen ehiztarietako bat zauritua suertatu da. Otsoa garbitzea lortu badute ere, gauzak espero baino askoz okerrago joan zaizkie, Ertzantzak bahiturik eraman baititu azkenean.

PERTSONAIAK

Arantxa (Ama)

Joxemai (Aita)

Iker (Semea)

Joxemanuel

Joxantonio

Miel

Joamari

Joxe

Otsoa

Medikua

1. Ertzaina

2. Ertzaina

1. ESZENA

Eszenatokia: EGONGELA

Ikusleari aurrez dagoen paretan eskubitara leiho bat, eta han-hemenka koadro bat edo beste. Ezkerraldeko paretan beste leiho bat.

Lurrean, ezkerraldean, telefonoa, mahaitxo baten gainean. Eskuin aldean, aurreko paretaren kontra, leihopean, ar-

mairu txiki bat. Erdialdean mahaia besaulkiz inguratua. Ezkerrean, sukalderako atea; eskuin aldean, berriz, kanporakoa, bestearen parez pare

- Arantxa** *(Hautsak kentzen)* Aaii! Oraintxe jakingo niken gustora gure gizona zertan ari ote den. Ez dun ariko ez zopak gainez egin ote duen edo begiratzen. Marka dun! gure etxeko gizonak ez din sekula gauza bat onik egingo.
- Iker** *(Kanpotik)* Ama! Ama!
- Ama** Zer behar duk?
- Iker** *(Agertuz)* Ezin ditut behi madarikatu horiek sartu.
- Ama** Non sartu behar dituk? Ez al zebiltzak, ba, larrean ondo?
- Iker** Baita zera ere! Etxe Handiko zelaira pasatu dira.
- Ama** Arbi sorora? Zeinek itzali dik, ba, hesi elektrikoa?
- Iker** Bateria gastatuta dago.
- Ama** Jesus Maria eta Jose! Eta non duk aita?
- Iker** Tabernara joan dela uste dut, laguneren batekin hitz egin beharra zuela eta. Niri behintzat horrelako zerbait esan dit.
- Ama** Eta orain zer egin behar diagu?
- Iker** Zeuk lagundu beharko didazu zelaira sartzen. Gero, handik aurrera konponduko naiz ni.
- Ama** Ez zeukaat, ba, beste lanik!
- Iker** Tira, ama goazen azkar!
- Ama** Zergatik ez diok esan aitari, e?

Iker Beno, goazen txorakeriak esaten ihardun gabe, Behiak auzoko arbi soroan daudela!

Ama Goazemak, ba, bestela ez haiz isilduko eta. (*Badoaz biak*)

(*Irratia, musika amaitu eta, berriak ematen*) Euskal Herriko notiziak: Gure mendietatik berri txarrak datozkigu: aurreko egunetan Urbasa aldean hogeit hamar ardi bota dituen otsoa Ernion agertu zaigu orain. Ala, bat baino gehiago ote dabilta? (*Joxemari agertzen da. Irratia entzuten*) Dena dela bart ere ardiren batzuk boteak izan behar ditu, zenbat diren jakiterik oraindik izan ez badugu ere (*Joxemari itzal beza irratia*)

Joxemari Egunon, Arantxa! (*Inork ez dio erantzuten*) Non ote dabilta? (*Bazterrak miatu ondoren*) Joxemanueli hots egingo zioat. (*Telefonia hartu eta markatzen ditu zenbakiak esanaz*) 14.43... Ez, ez duk hau. (*pentsatzen*) Ahaztu egin zaidak! Listinean begiratu beharko diat. (*Begiratu eta esanaz*) Garmendia, Gontzalez, Gorrotxategi J.M., Joxemari. Hauxe duk: 14.46.76.

(*Telefonia, hartzerako doala, jotzen hasten da. Hartu eta...*) Bai. Zein da? Joxemanuel. Ez didak sinestuko, baina oraintxe nindoakian hots egitera... Bai, ondo zegok. Ni Kolibarko Mielekin egon nauk... Bai. Izarraitz aldean ikusi omen ditek atzo otsotzar hori... Bai, hala esan zidak Mielek... Gaur Zelatunen?... Keixetari?... Hiru ardi esan al duk?... Akabatu!... Hi joateko moduan al haiz?... Bai, bai ni bai, eta Miel ere etorriko duk gurekin... Noski... Nola, Joseluis?, hanka hautsita zegok eta?... A, Joxanton bai. Baina hik hitz egin beharko diok... Bai... Eta Alkatearekin egon al haiz? Kanpoan?... Herrian zerbait gertatzen den bakoitzean ihes egiten dik horrek... Ordu bi ta erdietan?... Bale... Herriko Ostatuan... Bai, gero arte! (*Ama sartzen da eta azkeneko hitzak entzuten ditu*)

Arantxa (*Haserre*) Hemen al zaude?

Joxemari Bai, hemen nago!

- Arantxa** Lapikoari begiratu al diozu?
- Joxemari** Lapikoari nik? Ederki eman ere! Eta, non izan zara zeu, etxea, zabal zabal, inor gabe utzita, e?
- Arantxa** Non izan naizen? Ez al dizu lotsarik ematen hori galde-
tzeak?
- Joxemari** Tira, bakea behar dugu!
- Arantxa** Zerean izango nintzen, semeari laguntzen!
- Joxemari** Semeari laguntzen? Zertan?
- Arantxa** Nola utzi duzu hesi elektrikoa?
- Joxemari** Arraioa! Ahaztu egin zait bateria kargatzea. Oraintxe noa.
- Arantxa** Oraintxe? Non izan zara orain arte?
- Joxemari** Beno Arantxa, nahikoa dugu! Zaude, esango dizut eta.
- Arantxa** Bai, bai, aitzakiaren bat izango duzu oraingoan ere.
- Joxemari** Aitzakia besterik ez balitz! Otsoa kristoren txikizioak egi-
ten omen dabil Ernio aldean.
- Arantxa** Zein zenuen telefonoan?
- Joxemari** Joxemanuelek deitu dit.
- Arantxa** Eta, jakina, gaur arratsaldean ehizara, ez da hala?
- Joxemari** Horretan gelditu gara, bai.
- Arantxa** Burutik jota zaudete zuek.
- Joxemari** Zer, ba?

- Arantxa** Ez al dakizue otso-ehiza galarazia dagoela?
- Joxemari** Orduan ardi denak akabatzen utzi behar al diogu? Ez halazankoa!
- Arantxa** Eskatu al duzue baimena?
- Joxemari** Alkatea ez omen dago herrian.
- Arantxa** Alkateak herritik alde egin duela eta, zuek, hala., otso ehizara!
- Joxemari** Noski! Haren zai jartzen bagara, akabo gure mendietako ardiak.
- Arantxa** Ba, orain ni izango naiz hemengo alkate.
- Joxemari** (*Parrez*) Zeinek eta zuk herrian agindu? Ederki eman ere!
- Arantxa** Zu behintzat ez zara gaur ehizara joango.
- Joxemari** Ez ezazu txorakeriarik esan, joateko hitzemandako nago eta.
- Arantxa** A, bai e?
- Joxemari** Bai. Bazkalondoan Ostatuan biltzekotan gelditu gara.
- Arantxa** Ez zara joango. (*Telefonoa erakutsiz*) Hots egiezu lagunei eta, andreak ez dizula uzten, esaiezu.
- Joxemari** Zer ari zara esaten? Barre ederrak egingo lituzkete!
- Arantxa** Zuk nik esandakoa egingo duzu, eta kitto!
- Joxemari** (*Onean*) Alperrik ari zara, Arantxa, ezin dut neure hitzik jan. Eta joan egingo naiz.
- Iker** (*Sartzen da*) Zer iskanbila dabil hemen?

- Joxemari** Sartu al dituk behiak?
- Iker** Ez behintzat zure laguntzaz. Amak lagundu behar izan dit, etxeko lanak utzita.
- Arantxa** Otso ehizara joan behar omen dik hire aitak.
- Iker** Aita, zuk badakizu ondo otsoa akabatzea debekaturik dagoela.
- Joxemari** Hi ere nire kontra al haiz. Kokoteraino naukazue. (*Eskopeta hartu eta bihoa*) Agertuko naiz iluntzean.
- Arantxa** Joango gatzaizkizu kartzelara bisitan.
- Iker** Ederra daukate Ertzainak harrapatzen baditu.
- Arantxa** Ojala! Besterik ez ditek merezi! Goazemak bazkaltzera.
- (*Bihoaz*)

OIHALA

2. ESZENA

Eszenatokia: BASOA

Fondoa: Haitzez, belardiz eta zuhaitzez osaturiko paisaia. Eszenatokian zuhaitzak, enborrean gora huntza eta ipurdian sasia eta sastrakak dituztela. Zoruan belar handi samarra. Ezkerreko atea haitzuloa izango da: hantxe dago ezkutaturik otsoa. Sarbide gehiago ere baditu, ezker nahiz eskuineko zuhaitz arteetatik.

(Ehiztariak, bata bestearen ondoren eskuin aldetik, bazterretara begiratu eta aldegin. Dena bizkor eta urduri, zaratarik ez ateratzeko eginahaletan)

- Joxemanuel** *(Besteen atzetik agertzen da, alde guztietara begira, baina, besteak baino lasaiago)* Hemen egon behar duk ba nonbait! *(sasira begira)* Irten hadi!, jo eta bertan akabatu behar haut eta! *(berekiko)* Ez, ez zegok hemen. *(Beste bazter bat miatuz)* Zarba arte honetan egongo duk. *(Joxantonio eta Miel agertzen dira ezkerretik, zalaparta bizian)* Zabilzate isilik, bestela, ihes egingo ziguk otsoak.
- Miel** Susmoren bat ba al duk?
- Joxemanuel** Ez, baina inguru honetan izan behar dik nonbait.
- Joxantonio** Nik ezkerralde hori miatuko diat.
- Miel** Ni goi aldera noak.
- Joxemanuel** Ni hementxe geratuko nauk, zuek ateratzen duzuen zaratak jaikiarazten badik alde honetara joko dik eta.
(Bakarrik geratzen da, inguru guztia urduri zaintzen duela. Halako batean, haitzuloaren ezkerraldeko sasiartean zarata entzuten du eta zerbait mugitzen ere bai. “dannn-ba!!!” tiro egiten du)
- Joxemari** *(Aihumaz, izterrari helduz agertu eta etzan egiten da)* Ai
- Joxemanuel** *(Laisterka hurbilduz)* Zer duk?
- Joxemari** *(Zauria erakutsiz, aihumaz eta haserre)* Ikus ezak ondo!
- Joxemanuel** *(Beldurrez)* Nola egin duk?
- Joxemari** Hori duk azala! Nora egin duk tiro?
- Joxemanuel** Sasi artera, otsoari.
- Joxemari** Otsoari, e? *(Izterra erakutsiz)* Hau al duk otsoa? Alde egin ezak bistatik!

- Joxemanuel** Barka nazak. (*Otsoa haitzulotik irten eta eskuin aldetik ezkututzen da*)
- Josemari** Barkatu..! Non duk eskopeta. Ez al duk ikusten otsoa ihesi doala?
- Joxemanuel** Joan zaizkidak ehizarako gogoak. Ederra egin diat! Odol hori gelditzeko zerbait egin beharko diagu. (*Tiroa entzuten da*)
- Joxemari** Bai! Lokarririk ba al daukak.
- Joxemanuel** (*Poltsilotik atereaz*) Hau nahikoa ote diagu?
- Joxemari** Goitik lotzeko bai; baina, behetik ere lotu egin beharko diagu. Begira ezak nire txamarraren poltsikoetan.
- Joxemanuel** (*Poltsiloak miatzen dizkio. Beste soka bat ateratzen du*) Ea, ba, nola moldatzen garen.
- Miel** (*Zalapartan agertuz*) Bota diat! Bota diat! Ez dik gehiago... (*Lotura egiten ikusten ditu*) Baina, zer gertatzen da hemen?
- Joxemari** Otsoa naizelakoan tiro egin ez zidak, ba!
- Joxemanuel** (*Mieli*) Lagun iezaadak lotzen. Jaso iezaioak hanka, poliki poliki. (*Egin beza*)
- Joxantonio** (*Zalapartan agertzen da hau ere*) Tiro hotsa entzun diat. Bota al duzue?
- Miel** Hago isilik eta hator laguntzera.
- Joxantonio** (*Beldurrez hurreratzen zaie*) Medikuari deitu al diozue?
- Joxemanuel** Ez. Joan hadi heu.

- Joxantonio** Odriatik deituko zioat.
- Miel** Keixetaren txabolara etortzeko esaiok. Guk bitartean haraino eramango diagu Joxemari.
- Joxantonio** *(Abiatuz)* Ondo zegok. Banoak.
(Angailak prestatzen dituzte euren txamarrak, egur pare bat eta gerrikoak erabiliz)
- Joxemanuel** Angarilaren bat antolatu beharko diagu. Bestela nola eraman haruntzaino?
- Miel** Bai, egia diok.
- Joxemari** *(Min-itxura handiak eginez)* Egin ezazue behintzat zerbait agudo; ez nagok batere ondo eta.
- Miel** Hesola pare bat ikusi diat nik hor aurreraxeago.
- Joxemanuel** Ekar itzak azkar. *(Gerrikoa kenduz, Joxemariri)* Hire gerrikoa ere beharko diagu.
- Joxemari** Ea, ba! Kentzen hasi da. *(beti minez)* *(Joxemanuelek laguntzen dio)*
- Miel** *(Hesolak dakartza)* Ekarri dizkiat.
- Joxemanuel** *(Hesolak hartu eta haietan gerrikoa lotuz)* Ken ezak hik ere gerrikoa, eta, hasi lotzen. *(Bien artean gerrikoiez angarila osatzen dute, gainean txamarrak ezarriz)*
- Miel** Bion txamarrak gainean jartzen badizkiogu hobe, ez?
- Joxemanuel** Arrazoi duk.
- Miel** *(Angarila gertu dutenean)* Ea Joxemari, alimo! *(Joxemari)* Heldu hik galtzarbeetatik.

- Joxemanuel** (*Helduaz*) Ondo.
- Miel** (*Bizkarraren azpiraino angarila sartuz*) Etzan gainera. (*Etzan bedi*) Orain hanka aldetik altxatu behar diagu. (*Altxatzen dute*) Poliki!
- Joxemari** Ai!!! Kontuz!
- Joxemanuel** (*Angarila gainean poliki ezarri ondoren*) Ondo al hago?
- Joxemari** Ondo... Hobeto nahi!
- Miel** (*Joxemanueli*) Heldu hik atzetik. Ni joango nauk aurretik eta.
- (*Biek heldu eta abiatzen dira*)
- Joxemanuel** (*Harri batekin estropezu egin eta erori egiten da angarila eta guzti, besteak etzetik daramatzala*) Ai, ai, ai!!! Hau duk suertea hau!
- Joxemari** (*Aihuma artean*) Suertea? Hik akabatu egin nahi nauk ni. Hori duk guztia.
- Miel** Ez hadi horrela jarri, Joxemari! (*Joxemanuelek min-aurpegi tristea jartzen duela ikusirik*) Min hartu al duk?
- Joxemanuel** (*Triste*) Bai, hanka bihurritu diat.
- Miel** Honi heltzeko modun al haiz?
- Joxemanuel** (*Poliki zutitu eta helduz*) Saiatuko nauk.
- Miel** (*Heldu eta jasoz*) Ea, ba, goazen!
- (*Bihoaz, Joxemanuel errenka nabarmen doala*)

3. ESZENA

Eszenatokia: *Borda barrua: murala fondoan. Alboak beltz. Sarbidea eskubitik*

- Miel** (*Kanpotik*) Kostata, baina, ailegatu gaituk.
- Joxemari** (*Sartzerakoan*) Aaai! Kontuz ibili hadi!
- Miel** Beno! Non jarriko haugu?
- Joxemari** Belar ondu gainean ondo egongo nauk. Belar ondua biguna izaten duk eta.
- (*Ezar bezate ohatila eta guzti belar gainean, boru aldean azpi altxagarriren bat duela*)
- Joxemanuel** (*Errenka sartu da*) Ondo al hago?
- Joxemari** Piska bat txorabiatuta, baina... Hik nola daukak hanka?
- (*Miel atetik begira dago*)
- Joxemanuel** Minbera. Baina hau ez duk ezer! (*Joxemariaren izterra aztertuz*) Ederra egin diat gaur!
- Joxemari** Lasai! Sendatuko duk hau ere.
- Miel** (*Urduri*) Hemen dituk!
- Joxemari** (*Harriturik*) Azkar!...
- Miel** Zelatuneraino todo-terrenoan etorriko hituen eta.
- (*Datozenei begira. Joxantonio lasterka zetorrek, besteak atzean utzita*)
- Joxemari** Besteak? Zenbat zetozek, ba?

- Miel** Medikua eta (*ondo begiratzuz*) hire andrea dela uste diat bestea.
- Joxemanuel** Arantxa?
- Joxemari** Ez diagu gauza onik!
- Joxantonio** (*Arnas-estuka sartuz*) Ertzaina gure bila omen zebilek, eta, mendira jo omen dik.
- Miel** Nola azaldu behar ziegu tiroarena?
- Joxemari** (*Serio*) Estropuz egin duela eta tiroak aldegin diola. Hori duk gertatu dena eta kitto!
- Miel** (*Ate ondotik besteengana bilduz*) Zaudete isilik, hemen duk eta!...
- (*Lurrean botata dauzkaten eskopetak eta arropak jasotzen hasten dira*)
- Arantxa** (*Arnasestuka, erdi-negarrez, haserre*) Non dago?
- (*Denak isilik, behera begira*)
- Joxemari** (*Lotsazko irribarrea dariola*) Lasai zaitez, ez dut gauza handirik eta.
- Arantxa** (*Negarraldi bat egiten du isilik. Ondoren*) Zertan zaude, orduan ohatila horretan etzanda. (*Zauria begiratzeko dio. Besteak ere hurbiltzen zaizkio begiratzera*)
- Medikua** (*Hau ere arnasestuka azaltzen da*) Ea! Kendu hortik mesedez! (*Presaka begiratzeko dio zauria. Maletatxotik benda bat atera eta lotu ondoren, odolik ez galtzeko lotu dizkio ten lokarriak askatzen dizkio*) Hezurrik ez dio harrapatu, baina perdigoï mordoia dauka haragian eta eritetxera eram behar dugu.

- Arantxa** Jesus, Jesus, Jesus! (*medikuari*) Luzarorako izango al du?
- Medikua** Ez dut uste... Konplikazioen bat sortzen ez bada, behintzat.
- Miel** Joxemanuelen hanka horri ere begiratu bat eman egin beharko diozu.
- Medikua** Zer ibili zarete, ba, gaur? (*Azter biezaio arreta handiz*)
- Joxemanuel** (*Medikuak begiratzen dion bitartean*) Aaai!
- Medikua** Zaintiratua daukak. Ez daukak hautsirik (*Benda bat lotzen dio honi ere*) Makila baten arrimuan ondo joango haiz poliki-poliki.
- Miel** Anbulantzia...
- Arantxa** Zelatunen zegok zai.
- Joxantonio** (*Ohatilari helduaz*) Goazen, ba! (*Mieli*) Heldu Miel!

(*Joxemanuelek, errenka, eskopetek hartu eta banatu egiten ditu: bat Arantxari, bestea medikuari eta beste biak berak hartzen dituela*)
- Miel** (*Ohatilari helduta*) Goazen!

(*Ibiltzen hasi orduko, bi ertzain agertzen dira zalapartan atearen bi aldeetan*)
- 1. Ertzaina** (*Haserre*) Geldi denok hor! (*Denei begiratu ondoren*) Zein da Joxemari?
- Joxemari** (*Izutua*) Neu.
- 1. Ertzaina** Eta... Joxemanuel?

- Joxemanuel** (*Burumakur*) Neu.
- 2. Ertzaina** Atxilotuak zaudete. (*Ohatilara hurbilduz, Mieli eta Joxantoniori*) Zuek ere bai.
- Joxantonio** (*Lotsagabe*) Zergatik?
- 2. Ertzaina** Otso ehizean ibiltzeagatik!
- 1. Ertzaina** (*Medikuari*) Ez nekien zu ere ehiztaria zinenik!
- Mediakua** Eta ez naiz. (*Behatzez ohatila seinalatuz*) Ez al duzu ikusten zertara etorri naizen hala?
- 1. Ertzaina** Eskerrak!
- Miel** Gu erbi ehizean ibili gara eta ez otso ehizean.
- 2. Ertzaina** Hori epaileari azaldu beharko diok, hor goian hilda utzi duzuen otsoaren aurrean. (*Ohatiladunei*) Ea, segi aurretik, eta inork ez dezala txorakeriarik egin, lotuta eramatea nahi ez badu.
- (*Badoaz ohatileroak, Joxemanuel medikuari helduta, Ertzainak, eta, azkena, Arantxa*)
- Arantxa** (*Berekiko*) Hutsa esan ez banie! (*Isilunea*) Ez zuten besterik merezi! (*Bihoa besteen atzetik*)

OIHALA

MIRENI LAGUNTZEN

Nekane Aranzamendi, Arantza Mugika
eta OHO 7. mailako ikasleak

Komedia

Aitxuri herri ikastetxea

Zegama

1996

GAIA

Miren oso gaizki dabil ikasketetan eta familian ezin dute arazoa konpondu. Inork ez dakiela neskameak lagunduko dio etxeko lanetan eta gauzak ulertzen.

PERTSONAIAK

Maritxu (neskamea)
Arantxa (Ama)
Juan (Aita)
Juantxo (semea)
Miren (alaba)
Kepa (Juantxoren laguna)
Ane (Mirenen laguna)
Andereñoa
Txakurra
Liburu-saltzailea

(Miren familia aberats bateko alaba da. Ikasketetan oso gaizki dabil eta familian ezin dute arazoa konpondu. Inor ohartu gabe neskameak lagunduko dio etxeko lanetan eta, gauzak ulertzen. Azkenean, nota onak aterako ditu eta neskameak soldata igoera izango du)

1. EGOERA

(Etxeko txakurra, aitaren aulki ondoan etzanda. Familia osoa mahai inguruan eserita bazkariaren zain)

Maritxu Ona al zegon bazkaria?

- Juantxo** Gaur notak eman behar dizkigute eskolan.
- Juan** Ni gaur ehizean joango nauk eta afaltzerakoan erakutsiko dizkidazue. (*Aitak txakurra igurtzitzen du*)
- Miren** A, aita! Nik ez dakit gaur emango dizkiguten notak.
- Juan** Zuk, beti daukazu aitzakiaren bat notarik ez erakusteko. Aiii! Zer nota edukiko ote dituzu?
- Arantxa** Ala, orain postrea jan, eta eskolara. (*Tinbre hotsa entzuten da, neskameak atea irekitzen du eta liburu-saltzaile bat sartzen da barrura*)
- Saltzailea** Kaixo! Ba al duzue eskolan dabilen seme-alabarik? (*Txakurra zaunkaka*)
- Arantxa** Ixo! Bai, biok! (*Seme-alabei*)
- Saltzailea** Eta, zer moduz zabilzate ba? (*Gazteei zuzenduz*)
- Juantxo** Oso ondo!
- Miren** Pssss.....
- Saltzailea** Lasai! Nire liburu hauekin dena aprobatuko duzu, mirariak eragiten dituzte liburu hauek
- Juantxo** Gutxixeago izango da!
- Saltzailea** Estatistikoki konprobatuta dago, liburu hauek dauden etxeetan ez dagoela katerik.
- Miren** Ama, erosi egin beharko ditugu.
- Juan** Beno, ni ordu bi ta erdietan geratuta nago, Aran, eta, banoa.
- Arantxa** Baino, zer egin behar dugu liburu hauekin?

(Aita gelara joaten da eskopeta bila eta jangelan agertzen da. Txakurrak berarekin egiten du buelta osoa)

Saltzailea Ene! Zer da hau! *(Maleta hartu eta korrika aldegiten du mahai gainean zeuden liburu biak utzita)*

2. EGOERA

(Tinbrea jotzen dute neska-mutilen. Arantxak atea irekitzen du eta hiru lagunak barrura sartzen dira) (Denak parriz uzten ditu)

Juantxo Ama, eskolara goaz, lagunak etorri dira eta! *(Eskolako trasteak hartuz)*

Arantxa Bale, gero arte.

Ane Miren, zergatik hago hain triste?

Miren Puff!, gaur notak... eta nolakook! Denak kateatuta zeuzkenat eta aittak bizirik jango nain.

Ane Neska, ez ezan esajeratu, hik zer uste den? Nik ere badinat bat edo beste...

Miren Bat edo beste! Bat edo beste! Nik... bat, bi, hiru, lau... neuk ere esku batekin ezin dizkinat kontatu !. *(Mutilak badoaz)*

Kepa *(Atetik)* Benga neskak, mugitu, ordua da eta! Egun guztia hizketan pasatu behar duzue ala? *(Laurak korrika eskolara joaten dira)*

3. EGOERA

(Ama kezkatuta agertzen da, neskamea atzetik duela)

- Arantxa** Jo! Hau da hau zoritxarra! Gure neska oso urduri zebilen bazkaltzeko garaien. Ez zekinat zer ikusi behar dugun gure alaba honekin.
- Maritxu** Lasai, emakumea, aterako du eta! Hemendik ekainera badu astia zeozertarako. Gainera, Arantxa, beste gauza batzutan pentsatzeko edadea ere bazeukan, txoriren batzuk erabiliko zitinan buruan bueltaka eta, zer egingo zionagu ba, emakumea?
- Arantxa** Horixe behar dinagu orain! Eskolan gaizki ibili eta gainera txoriak buruan bueltaka. Ai! Ene! Ume honekin ez dinagu karrerarik aterako!
- Maritxu** Arantxa, garaien garaiko kontuk! Hik ere edade horretan zer edo zer izango huen ba buruan? Ala hi mojatarako hintzen? (*Arantxa eta Maritxu barre algaraka hasten dira*)
- Arantxa** Baaiiii! Majo akordatzen naun garai haiekin! Nola etortzen ziren mutilak eskolako leiho azpira! Makina bat aldiz zigortuta egondakoa naun mutilekin hitz egiteagatik. Ez naun ba akordatuko?
- Maritxu** Hori, ba, hori. Konturatzen al haiz, orain, zer edade pasatzen ari den Miren?
- Arantxa** Bai, arrazoia daukan, konturatu gabe nengonan. Pakean utzi beharko dinagu, nahiko lan bazeukan bere buruarekin....
- Maritxu** Notak ikusitakoan pentsatuko dinagu zer egin. Beno, orain ontziak garbitzera noan, hi joan hadi ohera eta lasaitu hadi.

4. EGOERA

(*Afaltzen ari direla*)

- Arantxa** Maritxu!! Pronto gaude afaltzeko. Zer zeukanagu, ba, gaur?

- Maritxu** Hemen daukazue, lehenengo, zopa, barruak berotzeko.
- Miren** Joooeee! Ez dago ba batere hotzik! Jooo! Beti berdin etxe honetan.
- Juan** Ixo e! Bestela bi platerkada jan beharko ditun. (*Juantxo parrez hasten da*)
- Juan** Hi egon hadi isilik, bestela, platera kenduko diat eta. (*Mirenek barreari ezin dio eutsi*)
- Maritxu** Gainerako hemen daukazue hanburgesa!
- Juan** Zer, Miren, honentzat ez al daukan aitzakiarik?
- Miren** Hombre, ez dago konparatzerik. Maritxu, zer dago postre-rako?
- Maritxu** Zer egongo den, ba? Fruta, dudarik gabe, neska!
- Juantxo** A! Gaur eskolan notak eman dizkigute. (*Mirenek Juantxori mahai azpian ostikada ematen dio*) Aiiii!!
- Arantxa** Zer pasatzen da hor? (*Ixiltasuna da nagusi, seme-alabak amari begira daude ahoa ondo estututa*)
- Miren** Ikusiko duk! (*Ahopeka eta ukabila erakutsiz*)
- Juan** Nota horiek non daude ba? Ikusiko al ditugu?
- Juantxo** Koartora noa notak hartzera.
- Miren** Ba, guri ez dizkigute eman.
- Juan** Ebaluaketak denok batera edukitzen duzue, ba! (*Juantxo ailegatzekotan dago eta hanka sartzen du barruraino*)
- Juantxo** A, ba nik Aneri, hire lagunari, ikusi zionat ba boletina

esku artean. (*Begirada maltzurra luzatzen dio. Miren negarrez hasten da eta gelara aldegiten du*)

- Arantxa** Juan, etor zaitez, hitz egin behar dugu eta. (*Txakurrak mugitzera egiten du baina Juantxok geldiarazten du. Eszenatik alde egiten dute gurasoek eta Juantxo bakar-bakarrik gelditzen da mahaian. Hola dagoela Maritxu etortzen da platerak jasotzera*)
- Maritxu** Zer ? Baino baino... Zer arraio pasatu duk hemen? Tximistak jota aide egin al ditek ala?
- Juantxo** Bai zera! Sekulako trumoia izan dugu hemen. Ni bakarrik geratu naiz osorik izan dugun ekaitzean.
- Maritxu** Baino, baino, zer... zer... zer, zer izan duzue ba?
- Juantxo** Betiko kontuak. Mirenen kateak. Ixxxxxxx! Aditu, aditu! Aditzen al dituzu gurasoen builak?
- Juan** (*Urrutiko hitzak*) Gogorrago egin behar zaio, bestela ez du inoiz ikasiko
- Arantxa** (*Urrutiko hitzak*) Igoal laguntza pixka bat behar du, emaiizu beste aukera bat!
- Maritxu** Gaixoa, zuk lagundu behar zenioke pixka bat!
- Juantxo** Txotxolo horri lagundu! Eztaaa!
- Maritxu** Motel, zure arreba da, ba!!
- Juantxo** Horregatik ba, arreba, arreba, arreba delako ba, ez dit kasurik ere egiten!
- Maritxu** Frogatu ezazu behintzat, igoyal kasu pixka bat egingo dizu. (*Aita sartzen da jangelan*)

Juan Oraindik hemen al hago? Bihar goiz jaiki behar diagu eta segi ohera!

Juantxo bale ba, banoa...

5. EGOERA

(Denek aldegiten dute. Berehala, Arantxa agertzen da triste, eta telefonoaren erantzungailua martxan jartzen du)

Andereñoa Egunon, Arantxa! Mirenen andereñoa naiz. Begira nik zure alabaz hitz egin nahi dizut. Ez da ezer graberik, ikasketen martxa komentatu nahi nizuke eta gizona eta biok bazatozte hobe. Lasai, lasai, datorren astelehenean, zazpitan edo behar denean, berdin zait. Notak entregatu al ditu etxean? Atzo banatu genituen. Bale ba hitz egingo dugu. Ez hartu gogorregi, hori ere ez da ona. Agur, astelehenera arte. *(Erantzungailua itzali eta eseri egiten da negar isilean, burua eskuartean duela)*

(Iluna) (Argitzean, Mirenen logela)

6. EGOERA

(Miren ohean ametsetan)

Miren *(Lotan ari da eta ametsetan)* Ez!! Ez!! Bale!! Bale!! Ikasiko dut. Aaaaaaaaaaaaaa!

Maritxu *(Maritxu kamisoian eta tokilarekin korrika Mirenengana joaten da, bukaeran estropuz eginez. Buruan ruloak eta sarea dauzka)* Ai, ai, ai, ai, ai, hauxe da hartu dudana! Baina, zer duzu ba, umea?

Miren Amesgaiztoa izan dut, pooooof!!!!!! Eskerrak egia ez zen!

Maritxu Zer zen ba? Nolakoa zen ba? Kontaidazu

- Miren** Ba eskolan nengoen eta andereñoa notak banatzen ari zen, eta, niregana ailegatu zenean, sekulako monstroo bihurtu zen. Besoak arbola baten parekoak egin zitzaizkion, beste zortzi hanka irten zitzaizkion, eta buruak, ez dakit zenbat. Begiak txintxilaka jarri zitzaizkion, eta, ahoa ikusi nio-
nean, korrika aldegin nuen.
- Maritxu** Jesus, neska! A zer ametsa! Lasai, hemen ez dago horrela-
korik.
- Miren** Seguru al zaude?
- Maritxu** Egongo ez naiz, ba! Etxean gaude.
- Miren** Bai, ba.... etxera ailegatu naizenean gurasoak neuzkan
zain, kutxiloa eskutan zeukatela. Ahoa zabalik geratu nin-
tzen. Atzeraka begiratu nuen, eta, munstroa zetorren, or-
duan, garrasi egin dut eta esnatu egin naiz.
- Maritxu** Jesus, Maria eta Jose! Nik ere horrelako ametsekin izerdia
aterako nuen (*Maritxu pentsakor egoten da hiru edo lau
segundotan*) A! Orduan, zure problemak notak dira. Ni es-
kolan ona nintzen eta nahi baduzu lagunduko dizut.
- Miren** Lagundu! Baino, nola? Non? Eta zure lana? Zer esango
dute nire gurasoek?
- Maritxu** Nire ordu libretan lagunduko dizut. Eskolatik irtendakoan,
isil-isilik, ganbarara joan,eta, ni han egongo naiz. (*Miren
berriro oheratu egiten da eta luze baino lehen iratzargai-
luak jotzen du*)(*Iluna*)

7. EGOERA

(*Maritxu eta Miren ganbaran elkartu dira, eskola bukatu
ondoren eta Maritxu ulertzen ez dituen gauzak argitzen ari
zaio*)

- Miren** Maritxu, oraingo gai hau ez dut batere entenditzen, plus eta minus, eta puffl!!! Gontzal horrek sartzen digun roila-
zoa buruko kable guztik erretzeko modukoa da!
- Maritxu** Jesus neska! Kableek ere ba al dauzkan buruan?
- Miren** Kablek bakarrik ez, kable gainean txoriak geldituta ta.....
- Maritxu** Bialdu itzan txoriak, eta, egien tokia minus eta plus horiei!
- Miren** Bai, goazen harira. Nik ez ditut entenditzen ardatz korte-
siarrak.
- Maritxu** Ardatz, zer?
- Miren** Kortesiarrak!!
- Maritxu** Nere garaian kartesiarrak ziren
- Miren** Kartesiarrak edo kortesiarrak, igual dio.
- Maritxu** Goazen apuntetan begiratzera. Hemen kartesiarrak jartzen
din, ba.
- Miren** Bale ba, kartesiarrak!!!
- Maritxu** Beitu!, gurutze bat egin behar dun. Bertikalari “ordenada”
esaten zaion, eta, “Y”-z adierazten dun. Erditik gora balore
positibook ipintzen ditun, plusak, eta erditik behera, balore
negatibook, minusak. Horizontalari “abzisa” esaten zaion;
ekixaz edo ixaz adierazten den. Hemen ere berdin; erditik
eskubira balore positibook eta erditik ezkerreara balore ne-
gatibook.
- Miren** A! Hori al da dena? Orain entenditu dut.
- Maritxu** Lehenengo zenbakia abzisan jartzen dun eta bigarrena or-
denadan. Lau kuadrante zeuden: goiko eskubikoa (+,+)

dun, lehenengo kuadrantea; goiko ezkerrekoa $(-,+)$ dun, bigarren kuadrantea; beheko ezkerrekoa $(-,-)$ dun, hirugarren kuadrantea; eta beheko eskubikoa $(+,-)$ dun, laugarren kuadrantea.

- Miren** Bueno, erreza da, goian ariketak egiten hasiko naiz.
- Maritxu** Hori dun lanerako gogoia, neska! Horrela egin bahunan hasiera-hasieratik!
- Miren** Galduta nebilen eta, maisuari ez nion ezer ere entenditzen, zer egingo nuen, ba?
- Maritxu** Ahotik kendu indar hori eta eragion boligrafoari.
- Miren** Bale, bale! Ez zaitetz horrela jarri, isilduko naiz eta. (*Miren ixil-ixilik ariketak egiten hasten da eta Maritxu matematikako liburua begiratzen ari da*) (*Iluna*)

8. EGOERA

(*Afalordua da eta mahaian eserita dago familia osoa*)

- Juantxo** Aitta, zer ordu da?
- Juan** Hamarrak hogeita bost gutxi. (*Erlojuari begiratzuz*)
- Juantxo** Joeeee! Honez gero hasita egongo da!
- Juan** Zer hasita? Orain ere telebixiora joateko prest?
- Miren** Egia, "Goenkale" hasita egongo duk! Goazen, Goazen!
- Arantxa** Geldi hor biok, yogurra jan arte ez zarete mahaitik mugituko. (*Biak yogurra irentsi egiten dute*)
- Miren** Jan dugu. (*Korrika eszenatik alde egiten dute*)

- Arantxa** Nik umeei esan zieat, baino, niri ere gustatzen zaidak.
- Juan** Nik ez zekinat, ba, zer daukan kulebroi horrek? (*Txakurra, edo aita, zutik jartzen da eta kuskuseatzen hasten da, halako batean Mirenen motxilara ailegatzen da eta liburu guztiak ateratzen ditu, hortzetan, eskuan, noten kartila hartzen du eta aitaren ondora bueltatzen da. Maritxu kafea banatzen hasten da*)
- Arantxa** Ummm! Zer ondo sartzen den kalera afaldu eta gero. Orain ni ere “Goenkale” ikustera noak. (*Ama Goenkale ikustera joaten da eta jangelan aitta eta txakurra, biak bakarrik gelditzen dira*)
- Juan** Ai, ai ai... Hiregatik ez balitz hemen egongo ninduan bakar-bakarrik. Argi!, Baino, zer daukak hor? (*Esku artean hartzen du kartila eta aurpegi txarra jartzen du*) Mireeeennnn!!!
- Miren** (*Mirenek dagoen tokitik, salatik, erantzuten dio*) Zeeerr?
- Juan** Hator segituan!
- Miren** Itxoin, hau onenean dago eta.
- Juan** Hor beharko din onenean, hemen txarrenean zegon eta.
- Miren** Bukatu da Goenkale.
- Juan** Horixe bukatu dela hiretzako ditxosozko Goenkale (*Notak erakutsiz*)
- Miren** Aitta, baino oraingoan hobetzen ari naiz.
- Juan** Hobetzen, nondik nora?
- Miren** Ba, bai, oraintxe ekarriko dizut azkeneko kontrola. Horiek lehenagokoak dira.

- Juan** Bai, ekarri, ekarri, ikusi behar dinagu kontrol hori. (*Miren gelara joaten da kontrol bila, bien bitartean ama eta Juantxo jangelan sartzen dira, ondoren Miren sartzen da*)
- Miren** Beitu, beitu, ze notak atera ditudan! (*Aita harrituta dago eta sinestu ezinean Arantxari erakusten dio*)
- Juan** Miren, ezin dinat sinestu hireak direnik. Juantxok lagundu al din?
- Juantxo** Nik ez, niri ez dit kasurik egiten.
- Arantxa** Eta nolatan egin dun ba horrelako kanbioa?
- Miren** Norbaitek lagunduta.
- Arantxa** Baino, zeinek lagundu din, ba? Lagunen batek?
- Miren** Ez, etxe honetako batek. (*Ama, aitta eta semeak, hirurak batera "Nik ez" esaten dute*) Beraz, badakizue, Maritxuk lagundu dit.
- Juan** Maritxu!!!! (*Maritxu jangelan sartzen da eta Mirenen gurasoek eskerrak ematen dizkiote*) Eskerrik asko Maritxu.
- Arantxa** Ene! Maritxu! Nola ordaindu behar dinagu fabore hau?
- Juantxo** Aitta, badakizu. (*Hatzekin diru keinua eginez*)

NONBAIT, EZ OSO URRUTIAN

Itziar Otamendi eta
LMH 5. mailako ikasleak
Ikuskizuna
Langile Ikastola
Hernani
1995-96

GAIA

Jauregi eder batean bizi den Kondea aspertu egiten da. Egun batean, malabareak, dantza eta musika egiten duen talde bat iristen da jauregiko atera. Hauek Kondearen bizitza alaituko dute.

PERTSONAIAK

1. Kontalaria

2. Kontalaria

Kondea

Doroteo

Kattalin

Mattin

Anttoni

Tomax

Pantxika

Braulio

Mattina

Agustina

Ipuin kontalaria (Ip.Kon.)

Mikel

Juakintxo

1. Asmakizun kontalaria (1 Asm.Kon.)

2. Asmakizun kontalaria (2 Asm.Kon.)

3. Asmakizun kontalaria (3 Asm.Kon.)

1. Bertsolaria

2. Bertsolaria

3. Bertsolaria

1. Kontalaria Orain dela urte batzuk, eta ez oso urruti...

2. Kontalaria Nafarroako lurraldean beharbada?

- 1. Kontalaria** Agian! Oso gizon aberatsa bizi zen.
- 2. Kontalaria** Baso izugarri baten erdian zegoen bere jauregia, mota askotako zuhaitzez eta lorez inguraturik: gaztainondo, pago, haritz, lizar, zumar, urki, sahats...
- 1. Kontalaria** Pinurik ez zegoen garaian!
- 2. Kontalaria** Ibai eta errekek garden bezain garbiak zirenean...
- 1. Kontalaria** Zelai zabal, berdexka, loretsu eta errekatxoak zeharkatuak, barnealdeko mendipeen babesean
- 2. Kontalaria** Zenbat lore! Lirioak, arrosak, amapolak, nabarloreak (acisco), osterzuriak (achicoria), latxaskiak (agninomia), azantzioak (ajendo), hosteiskak (bellorita), enara-belarrak (celandonia), andere-mahats (grosellero)...
- 1. Kontalaria** Baita sagarrak, udareak, pikuak, urrak, intxaurrak, mizpirak...
- 2. Kontalaria** Horiek fruituak dira, ez loreak!
- 1. Kontalaria** Bai, baina fruitu izan aurretik loreak ziren, ala ez?
- 2. Kontalaria** Noski, bai, bai... noski baietz, baina...
- 1. Kontalaria** Horixe! Txori mota pila bat ere bazegoen, txantxangorriak, jilgeroak, kardantxiloak, zozoak, beleak, kixkixuak...
- 2. Kontalaria** Lurralde guztiko fruituen laurdenak jaten zituzten.
- 1. Kontalaria** Bai, jauregi inguruko zelai eta baso...
- 2. Kontalaria** Jauregia! Ene! Baina zer da kontatu behar genuena?
- 1. Kontalaria** Egia! Jauregian bizi zen jauntxo baten aspergarritasuna!

2. Kontalaria Asper - garri - tasuna?

1. Kontalaria Bai, edo gogaitasuna, bere sinonimoa nahiago baduzu!

2. Kontalaria Puf! Bai! Aurreko hori behintzat oso gaitz luzea edo astuna izango zen, e! Eta jauntxo hori zer zen, kondea edo?

1. Kontalaria Ez dakit! Jauntxoa behintzat! Eta jauntxo guztiak ez al dira ba berdinak?

2. Kontalaria Ez, emakumea, ez. Nire amonak esan zidanez, ez. Begira, ea gogoratzen ditudan denak: baroia, bizkondea, kondea, markesa, dukea eta printzea.

1. Kontalaria Aizu! Zenbat dakien zure amonak! Ba, begira, printzea ez, hori seguru. Dukea eta traketsa ere ez!

2. Kontalaria Ze traketsa. Markesa esan dut!

1. Kontalaria Eta horren aurrekoa?

2. Kontalaria Horren aurrekoa, kondea.

1. Kontalaria Aaaaa! Hori, hori. Kondea izan behar zuen jaun horrek. Eskerrak gizarajoa ez zela zerbait gehiago, bestela zeukan gaitz hori ere ez zen txantxetakoa izango.

2. Kontalaria Esanak esan, jaun andreok...

1. Kontalaria Konde jaun baten istorioa.

(Eszenatokian konde jauna diban batean luze bezain zabal, erdi eserita, erdi etzanda. Janaria ere badu bere inguruko mahai gainean)

Kondea *(Ahoa zabaltzen du)* Au! Au! Au!. *(Leihotik begiratzen du)* Oraindik hirurak besterik ez? Doroteo! *(Bi txalo jotzen ditu)*

- Doroteo** Zer nahi du berorrek, jauna?
- Kondea** Ez al duzu gaur ezer berririk? Edo ez al da inor etorri?
- Doroteo** Ez pajerik, ez berririk. Ez al du nahi berorrek zerbait? Jatekorik edo?
- Kondea** Besterik ez badago ekar ezazu ba...!
- Doroteo** Bai, jauna. Berehala, oraintxe, segidan.
- Kondea** Ai, ai, ai! Zer egin nezake denbora azkarrago pasatzeko? Zer!
- Doroteo** Hemen du denetik, jauna. Berorrentzako aukeratuz bilduak, begira, begira beza eta eskatu..
- (Andre-gizonak sartzen dira platera handitan fruitu ezberdinak dakarzkite)*
- Kattalin** Hemen, jauna, zure mahasti ederrenean bildutako mahats mordo mardulenak.
- Mattin** Tori, jauna. Zure jauregi ondoan dagoen sagastian jasotako errege-sagar mikatz-gofoak, zuk dasta ditzazun.
- Anttoni** Beno, nik ere badakarzkit mokadu gaxoak, gorri-gorriak, bihotzaren tankerakoak, txikiagoak, noski! Fruitu eder hau ez da nonahi aurkitzen e! Eguzkiak ongi goxatzen dituen leku babesak gustatzen zaizkio, hezetasuna sustraietan. Bai! Benetan bikaina lore txurixkatik sortzen den zapore fineko fruitu hau, gosea asetzeko txikiegia bada ere, ahoa gozatzeko...
- Kondea** Jango ez badut ere, zer den jakin gabe ez dut gelditu nahi, esaidazu, beraz, zer fruitu den, arren!
- Anttoni** Gustoz, jauna. Mailukia izenez ezagutzen da hor eta han; marrubia deritzogu, ordea, orain eta hemen.

- Kondea** Marrubiak, beraz, umm, umm. Bikainak! Arrazoi zenuen.
- Tomax** Nik ere badut zerbait, eee! Ez bat, ez bi, hiru fruitu baizik. Denbora pasatzeko onenak. Udazkeneko fruitu lehorrak: urrak, intxaurrak eta mizpirak, ño!
- Pantxika** Ene otarretxoan izanen diren madari urtsu-urtsuak nahi nizkioke eskaini. Zuhaitzean bertan sasoituak. Dasta, dasta! eta erranen dit segidan nola ontsa, biziki maite dituen
- Braulio** (*Atzerritar beltzarana*) Hemen zerbitzariak pozik banana urrutikoak ekarri.
- Doroteo** Aukera beza, jauna.
- Kondea** Ea, emaidazu sagar bat, Bai, bai. Sagar bat.
- Doroteo** (*Sagar bat hartzen du. Zapiarekin igurtziaz dizdiratsu jartzten du sagarra*) Hemen du sagarra.
- Kondea** Ez, ez. Sagarraren orde, hobe mahats mordotxoa.
- Doroteo** (*Uretan pasatzen du eta ematerakoan...*) Har beza, garbi eta frexkatua, jauna!
- Kondea** Beno, ondo pentsatuta, gose handirik ez dudanez, marrubi horietako batzuk...
- Braulio** Nik esan, jauna Lehenengo hobe probatu banana. Horia, luzea, urruneko fruitua izan, hau banana, jauregi inguruan egon ez... Probatu, probatu! Gero esan... nik beste bat nahi! Eta nik hemen eduki asko, asko, ugari eta pozik jango.
- Kondea** Hara, gizona! Arrazoi duzu. Uste dut horixe jango dudala. Bai, bai, horixe.
- Braulio** Ongi, jauna. Ni gizona izan bai. Gizon honek izena bai. Braulio. Brau-lio.

- Kondea** Ongi, ongi. Brau-lio. “Vaya lío”!
- Braulio** Ez, “vaya lío” ez. Brau-lio, ulertzen?
- Kondea** Nahi duzun bezala, horrela nahi baduzu, horrela izan dadila: Brau-lio.
- Doroteo** Banana, orduan?
- Kondea** Ausarta benetan gizon hau, barkatu, barkatu Brau-lio.
- Braulio** Horrela bai. Ondo ikasi. Niri izenez deitu hobe. Berdin bestea. Izena esan, ikusi: hau banana izan, ez? Ba denak banana deitu; ez esan: hori fruitua. Ez! Banana izan, banana deitu. Sagarra izan, sagarra deitu. Ulertu?
- Kondea** Ulertu dut, ulertu dut, Brau-lio. Ez zait zure izena inoiz ahaztuko. Beraz, orain, BANANA probatuko dut. Umm! Umm! Gozoa. Bai, bai. Oso gozoa. Eta zuk, Braulio, zer egiten duzu? Alegia, zer lan?
- Braulio** Nik sukaldean lan egin, hauekin, bai. Hauek ere izena eduki! Begira, hau...
- Mattin** Ni Mattin nau, nahi duenerako.
- Anttoni** Ni, berriz, Anttoni, badaki, Anttoni.
- Kondea** Ez, ez nekien. Eta zuk? Zein da zure izena?
- Pantxika** Pantxika, Pantxika. Zenbaitetan zutik, ahal dudanean eserita...!
- Braulio** Ulertzen? Ondo ulertzen? Nik bai. Begira, orain zutik, ez? Ba, Pantxika, hobeto egon eserita. Hori nahi esan.
- Pantxika** Mila esker, Braulio, erran duzunagaitik. Agian bestea ere nekaturik egonen dira...

- Tomax** Bai, bai... ez, ez...beno, ez dugu denborarik, ordea, ez eserita, ez zutik egoteko. Sukaldean lan ugari dugu eta... A! Ni Tomax nauzu. To-max. Orain goazen guztiok sukaldera lanari ekitera, bestela, bazkaria, non? Etxekonean!
- Kondea** Ongi da, bai. Ez dizuet hori galerazi nahi. Zoazte, zoazte.
(Bat-batean, ateko aldaba entzuten da)
- Doroteo** Nor izango ote da orain? Banoa atea irekitzera. *(Itzultzean)* Jauna, emakume bat dago hor, ate ondoan, neska-mutil talde batekin janari eske, zer egingo dut? Izan ere, asko baitira!
- Kondea** Esaiozu, Doroteo, emakume horri etor dadila honuntza janaria zergatik eskatzen duen jakin dezadan.
- Doroteo** Zatoz, zatoz, emakume. Pasa aurrera.
(Emakumea burumakur sartzen da)
- Kondea** Nor zaitugu?
- Mattina** Ni Mattina naiz. Janari pixka bat hartuko nuke nirekin dauden neska-mutilei emateko.
- Kondea** Nolatan ez duzue, ba, jatekorik? Nire lurraldean ez da inorentzat janaririk falta.
- Mattina** Begira, ni seme-alabekin basoan zehar, ondoko herri batera nindoala, bidean beste haur multzo bat topatu genuen galduta, gaixoak, atsekabeturik. Gurekin elkartu ziren eta, denbora batez, herriz-herri ibili gara janariaren edo aterpearen ordainez dakiguna egiten; herri honetara iristean gauza bera egin dugu, baina...
- Agustina** Egunon Konde jauna.
- Kondea** Hau ez da oso gaztetxoa. Zu ere galdu egin al zara?

- Agustina** Begira, gu Gipuzkoan dagoen herri batetik gentozen, zure lurraldea ezagutzeko asmoz. Hain zabala izanik, ordea, galduta genbiltzan eta egun batzuk pasatu ditugu gosez eta logalez, emakume honi esker hona iritsi garen arte.
- Mattina** Hala ere, herri honetan, jende guztia oso lanpeturik dabil eta inork ez dauka astirik guk egiten duguna ikusteko. Beraz, jenderik ez, janaririk ez! Horretan genbiltzala, jauregi ingurura etortzea otu zaigu.
- Kondea** Zer egiten duzue ba, zuek, jendeak janaria eman diezazuen?
- Mattina** Ba, malabareak, dantzak, musika pixka bat, abestu...
- Kondea** Oso ondo! Hori oso ondo dago. Hemen egiten baduzue aste beterako ostatua izango duzue.
- Agustina** Hori egina dago, hori baita gure lana! E! Neska-mutilak! Sar zaitezte! Etorri, etorri!
- (Soinua eta txirula joaz sartzen dira. Borobilean jarri eta talde bat dantzan. Horiek bukatzean, beste talde batek abesti pare bat kantatzen ditu. Ondoren malabareak ere egiten dituzte)*
- Kondea** Oso ondo, oso ondo. Zeinen erraz pasatu zaidan denbora, aspaldian ez bezala. Gustatuko litzaidake bihar ere antzeko saio bat egingo bazenute. Doroteo! Ekarri hauei nahi adina janari.
- Doroteo** Ongi, ongi. Oraintxe bertan esango diet sukaldariei. Zatozte nirekin sukalde ondoko jangelara. *(Badoaz)*
- 1 Kontalaria** Afal ostean logelan elkartu ziren taldekideak, tripa ondo beteta, baina, kezkatuak.

2 Kontalaria Zeren, berriro egun horretan egindako gauza berak errepikatzen bazituzten, konde jauna aspertu egingo zela pentsatu baitzuten.

1 Kontalaria Hori zela eta, gauean zati bat hurrengo egunean burutu beharreko lanak prestatzen aritu ziren.

2 Kontalaria Biharamunerako zer prestatu ote dute...

(Musika entzuten da)

Kondea Atzoko talde hori berriz ikusteko desiatzen nago, hain ondo pasa nuen... Lo ere askoz hobeto egin dut. Doroteo!

Doroteo Bai, jauna. Zer nahi du?

Kondea Atzoko talde horri eman gero gosari ona, merezi dute, eta! Ah! Eta Brau-lioren bananak ere emaizkiezu. Ondoren, zai nagoela esan eta nahi dutenean etortzeko.

Doroteo Ongi da, jauna.

(Ipuin kontalaria sartzen da)

Ip.Kon. Egun on, jauna! Besteek gosaltzen duten bitartean nik zer-bait kontatuko nioke, entzun nahi al du?

Kondea Bai, noski! Hasi kontatzen.

MARTEKO OILO BERDEA

Bazegoen Marten oilo berde bat, Mikel izenekoa, bere gurasoekin bizi zen Mikel, eta egunero, beste oilo guztiak bezala, eskolara joaten zen.

Oilo gizarajoa, ordea, oso triste bizi zen, lagunik ez zeukalako.

Gau batean, lagun piloa zuela egin zuen amets. Esnatu zenean, ordea, ez zeukan ezta lagun bakar bat ere. Mikel oso triste jarri zen. Oilo berdea ez zen ondo bizi eta Lurrera joatea erabaki zuen, inori ezer esan gabe, bakarrik eta isilean.

—Ez daukat espazio untzirik, esan zuen hegaztiak, baina, aitaren kotxetik kenduko ditut behar ditudan gauza guztiak.

Hurrengo egunsentian espazio untzia prest zegoen. Gau guztian lanean aritu ondoren, oso handia ez zenez, amaituta zegoen.

Mikel espazio untzian sartu eta Lurraruntz abiatu zen. baina ezusteko akats bat eduki eta Jupiterren aterrizatu zen, buruz behera, izan ere presaka egindako lanak...

Zutik jarri eta bere onera etorri zenean oilo berdeari hantxe bertan ikusi zuen etxe batera inguratzea otu zitzaion.

—Lana eskatuko dut eta irabazitako diruarekin, untzia konpondu.

Pentsatu eta egin.

Tok, tok, tok! atea jo zuen. Ireki zioten orduko hitz egin zuen gure oilo bizkorrak:

—Lana egin nahi dut jauregi honetan.

Trato egin ondoren, ekin zion lanari gure hegaztiak.

Jauregi hartan nabea konpontzeko adina diru lortu eta, gainera, aspertuta zegoela ikustean, Lurrera joatea erabaki zuen.

Oraingo honetan, ordea, ez zuen akatsik izan eta pare bat egunetara Lurrera iritsi zen. Iristean, atea ireki eta ateratzean

zer ikusiko eta... bai, bai! Oilategi bat ikusi zuen. Barrura sartzea erabakiaz, han, banan banan, galdetu zion:

—Nahi al duzu nire laguna izan?

Azkenekoari galdetu zionean...

—Bai. Zure laguna izan nahi dut.

—Nola duzu izena?

—Nik Juakintxo dut izena, eta zuk?

—Nik Mikel dut izena.

Biak, oso lagun egin ziren. Gauza guztiak elkarrekin egiten zituzten. Hilabete batzuk pasa ondoren, ordea...

—Juakintxo, nahi al duzu nirekin Martera etorri?

—Bai, baina zer dela eta? Ez al zaude gustora?

—Bai, gustora nago baina ama, aita eta lagunak ikusteko gogoz naiz.

Orduan Juakintxo eta Mikel espazio untzira joan, ondo akomodatu eta han joan ziren. Meteorito zaparrada bat pasa ondoren Halley kometa ikusi zuten. A zer bidaia!. Ilargian gelditu zirenean atsedena hartu zuten. Bitartean, Juakintxok arrautzak egiten irakatsi zion Mikeli. Atsedeen hartu ondoren, Martera iritsi eta handik bost minututara Mikelen etxean zeuden. Hegaztiak ama ikusi orduko esan zion:

—Erregearengana joan nahi dut.

Esan eta egin, hantxe joan ziren Juakintxo eta Mikel erregearengana.

Jauregira iritsi zirenean, Mikelek, aguro, hauxe esan zion erregeari:

—Apostu bat egin nahi dizut, errege jauna. Irabazten badut ni izango naiz errege, eta galtzen badut 17 neskame ekarriko dizkizut.

—Bota ba apostu hori!
—Baietz arrautza bat egin.
—Ja, ja, ja! Hori ezinezkoa da. (*Algaraz*)
—Utzi bost minutu bakarrik eta , eskura emango dizut arrautza.

Horrela... minutu bat pasa zen, bi minutu, hiru minutu, lau minutu eta, azkenik, bost minutu betetzear zirenean...

—Tori arrautza! Hemen duzu, hartu.
—Arrautza hau ez da benetakoa!
—Hau benetako arrautza da!
—Itxoin, konprobatuko dut, izan ere, ezin baitut sinetsi.
Bai, bai, arrazoi duzu. Benetakoa da!

Eta halaxe izan zen Mikel Marteko errege.

Kondea Ene, aizu! Baina... hori zer zen? Egia ala gezurra?

Ip.Kon. Zer nahiago du berorrek: egia ala gezurra izatea? Ba, berorrek nahi duena.

(*Mattina, Agustina eta beste taldekideak sartzen dira*)

Mattina Gustatu al zaio, konde jauna? Ba... interesatuko zaion beste zerbait ere badakite neska-mutil hauek. Entzun, entzun!

GALILEO GALILEI

Astronomolari eta fisiko italiarra Pisan jaio zen 1564ean. Galileoren gurasoak florentziarrak ziren, aita musikografo ezaguna, gizon kultoa, literatura greziarrean eta latinean oso zaletua, ama famili ilustre bateko alaba.

Florentzian heziketa ona izan zuen, baina gehiago ikasi zuen bere kabuz irakasleei esker baino.

Hamasei urte zituela hasi zen Pisako Unibertsitatean, eta, 19 urtekin penduluaren legea aurkitu zuen katedraleko argimutil baten joan-etorria ikusiz.

Gorputzek hutsean duten erortzeko moduari buruzko teoria bat eman zuen, gorputzek hartzen duten abiadura eta bere pisuaren artean loturarik ez dagoela ziurtatuz.

Kopernikoren ideien alde azaldu zen, lurra eguzkiaren inguruan mugitzen zela esanez, horregatik, Inkizizioko auzitegiak hil arteko kartzela zigorra ezarri zion eta bere teoriak ukatu behar izan zituen barkatua izateko.

Berak asmatutako teleskopioarekin Jupiterren lau satelite handienak, Eguzkiaren orbanak eta Ilargiko mendiak eta haranak aurkitu zituen Galileok.

Hirurogeita hamazazpi urte zituela bihotzeko gaitz batek jota hil zen Arcetrin, 1642an.

Kondea Interesgarria, benetan! Ez nuen nik “Manivelo” honen berririk.

Agustina Baina... Zer Manivelo eta Makiavelo! Galileo, konde jauna, Ga-li-le-o!. (Agustinak bere buruari): Beno, beno. Zerbait ikasi du gaurkoan, behintzat, honek. Hala ere, konde jauna, oso azkarra dela entzun dugu. Beraz, berorrentzat bereziki prestaturik... Asmakizunak!

1 Asm.Kon. Abereak asko maite ditut. Etxean baditut batzuk.
Katuak dira denak bi izan ezik.
Zakurrak dira denak bi izan ezik.
Loroak dira denak bi izan ezik.
Beraz, konde jauna, zenbat animalia daukat etxean?

Kondea Erraza da hori asmatzea, lagun. Ia: Bi... lau...zazpi... Hamar bat edo?

1. Asm.Kon. Ez, konde jauna. Hiru besterik ez ditut: katua, zakurra eta lora.

Kondea Jontxo, jontxo! Hala da, bai! Ez dit ba ziria sartu txikito honek! Beno, beno. Bota ba bigarrenā, ea asmatzen ote du-dan.

2. Asm.Kon. Itsasuntzi baten leihoak uretatik 3 metrotara daude, baina, iluntzean marea 2 metro igo da. Zenbat metro egongo dira orain uretatik leihoetara?

Kondea Hau bai erreza! Zenbat metro egongo dira, ba? Bat besterik ez!

2. Asm.Kon. Ez, konde jauna. Oraingoan ere ez duzu asmatu. Orain ere 3 metrotara egongo dira leihoak, marearekin batera itsasontzia ere igo egingo delako.

Kondea (*Algaraz*) Bai tontoa naizela. Nola ez naiz ba konturatu? Izan ere, lehorrekoa naiz ni, bai! Ba al duzue besterik?

3. Asm.Kon. Bai! Hona hemen azkenekoa: Karakol batek 10 metrotako makila igo behar du. Egunez 2 metro igotzen ditu eta gauzez, berriz, metro 1 jaitsi. Zenbat egun beharko ditu makilaren puntara igotzeko?

Kondea Orain bai! Honetan ez nauzue harrapatuko! Ia, ia. Bi metro igo eta bat jaitsi, beraz, metro bat igoko du egun bakoitzean, orduan 10 egun, baina 9. egunean, egunez bi metroak igo ondoren puntara iritsiko da, beraz, 9 egun.

3. Asm.Kon. Hori da, jauna! Asmatu duzu, behingoz!

Kondea Bai, bai! Ederki kostatu zait, baina, azkenean...

Agustina Eta orain, eta gaurko saioari bukaera emateko...

(*Bertsolariak sartu eta kantatzen hasten dira*)

1. Bertsolaria Gizakia naiz duela asko
Hermanin jaiotakoa
Gipuzkoan da Hernani eta
Euskadin da Gipuzkoa
Euskadi, berriz, nola edo hala,
Estatu espainolekoa
Hori Europan, hau lur planetan
Eguzki sistemakoa
Esne Bidea, galaxia ta
Azkenik Unibertsoa.

2. Bertsolaria Badakizue ni neu nor naizen
Ta zein den nire egoitza
Baina hala're mugimenduan
Pasatu nahi dut bizitza
Gu eta beste zortzi planeta
Eguzki ondoan gabiltza
Gure gertuen hauexek daude
Artizar eta Martitza
Ta asteroide eta kometak
Ere hor nonbait dabilta

3. Bertsolaria Litekena da lagun onena
Ilargia izatea
Betidanikan nahi izan baitu
Gure ondoan joatea
Denen artean gordeketako
Jolasa du hark maitea
Orain ilberri baldin badago
Hurrena da ilbetea
Batzutan argi bestean ilun
Hau da hau satelitea!

Doinua: Mutil koxkor bat

*(Kondea eta ikusleak txaloka agurtzen dituzte bertsolar-
riak. Pozez gainezka daude denak)*

(Eszenatokiko ixkin banatik aurkezleak azaltzen dira)

- 1. Kontalaria** Gure konde jauna erabat liluraturik gelditu da talde honekin!
- 2. Kontalaria** Izan ere, ez da gutxiagorako. Horrelako jende jakintsuaren informazio sakonak entzun ondoren...
- 1. Kontalaria** Zer egingo ote du orain gure kondeak? Talde honek alde eginez gero berriz ere asper-asper eginda geldituko da.
- 2. Kontalaria** Ia ba, ikus dezagun!
- Kondea** Zalantzarik gabe, lagunak, zuekin noa munduaren berri ikastera. Goazen, ba! Adio denoi!

ILUNTZEAN

PLANETAK

*Ikastolan gabiltza
Planetak ikasten
Eguzkitik hasita
Urrutienarte
Txikiena Merkurio
Artizarra ondoren
Gero daukagu Lurra
Martitza Laugarren*

*Goazen goazen bai
Kantatzera
ikasi dugun guztia
kantari kantatzera*

*Jupiter handiena
bate duda gabe
Saturnoren txapela*

eroriko ote
Uranoren ondoan
bost bat Satellite
Neptuno azken aurren
Pluton beti azken

Toko toko tok!

Toko toko tok, tolare lanak.
Kupelak beterik ditu etxeko jaunak.

Toko toko tok, txalaparta jo.
Sagardoa probatzera auzotik datoz.

Toko toko tok, onak badira,
pitxar bat hustu eta lotara segidan.

SAGARRAK SAGAR,
BEDERATZI HAMAR
HAMAIIKA GURDIKA
GANBARAN NITUEN BART.

RAMONTXU HERENSUGEA

Miren Jauregi eta
LMH 2. mailako ikasleak
Ipuin antzeztua
Erguin herri ikastetxea
Arrasate
1996

GAIA

Herri bateko biztanleak ez ziren sekulan basoan sartzen herensugearen beldurrez. Pello basoan galtzen da, herensugea aurkitzen du eta ona dela ohartuta herrira doa berria hedatzera.

PERTSONAIAK

Kontalaria

Pello

Ama

Aita

Tomás

Iñaki

Untxia

1. Txoritxo

2. Txoritxo

Ramontxu

1. Biztanle

2. Biztanle

3. Biztanle

4. Biztanle

Egurgilea

ESZENATOKIA:

Ezkerraldea: Basoa.

Fondoa eta eskuinaldea: Herriko etxe-atariak.

Ezkerraldeko lehen mailan, txokotxo bat, kontalariarentzat bereziki girotua.

- Kontalaria** Orain dela urte asko, baso baten ondoan herritxo bat zegoen.
- Herritxo hartako biztanleak ez ziren inoiz baso hartan sartzen herensuge bat zegoelako eta amorratzen zuen edonor jaten zuela esaten zutelako.
- (Ama atarian josten eta aita aria egiten ari direla, Pello agertzen da)*
- Pello** *(Agertuz)* Ama! Ama! Basora joan nahi dut jolastera!
- Ama** Ez, Pello. Ezin zara basora joan, han herensugea bizi da eta.
- Pello** Nolakoa da herensugea? Oso handia al da?
- Ama** Ez dakit ziur. Baina oso gaiztoa da. Aitatxok esango dizu.
- Aita** Nik ere ez dut inoiz ikusi, baina entzun dudanez bere ahotik sua botatzen du eta basora sartzen den jendea erre egiten du.
- Pello** Nik ezagutu egin nahi dut. Nork esango dit nolakoa den?
- Aita** Ez dakit. Tomás egurgileak, beharbada.
- (Arotza ere bere etxe-atarian ari da. Harengana doa Pello)*
- Pello** Tomás, Tomás! Nolakoa da basoan bizi den herensugea?
- Tomás** Ez dakit. Inoiz ez dut ikusi, baina gaiztoa dela diote. Beharbada Iñaki ehiztariak ikusiko zuen.
- (Pello Iñakiren etxera doa. Hau ere atarian dago)*
- Pello** Iñaki, ikusi al duzu inoiz herensugea? Esango didazu nolakoa den?

- Iñaki** Ez, nik otsoak eta azeriak harrapatzen ditut. Ez dut inoiz herensugea ikusi. Baina oso gaiztoa dela esan didate.
- Kontalaria** Pello herensugea inork ez zuela ikusi ohartu zen. Denek herensugea gaiztoa zela esaten zuten baina ez zekiten zergatik.
- Eta dena egia edo gezurra zen jakiteko, basoan sartzea erabaki zuen.
- Bidean zihoala, untxi bat ikusi zuen, basoaren ertzean.
- Untxia** *(Agertuz)* Ume! Kontuz ibili, baso honetan herensuge bat bizi da eta.
- Pello** Eta nolakoa da?
- Untxia** Ez dut inoiz ikusi, baina ziur aski txoritxo horiek jakingo dute.
- 1. Txoritxo** *(Agertuz)* Pio... Pio... Ez, nik ere ez dut inoiz ikusi. Baina gaiztoa dirudi.
- 2. Txoritxo** Bai,... pio... pio... bai, oso gaiztoa baina nik ere ez dut ikusi.
- Kontalaria** Bat-batean, Pello arbol baten adarrekin trabatu egin zen.
- Pello** Lagundu! Lagundu!
- (Zuhaizka batzuen atzetik hots arraro batzuk entzun ziren. Ramontxu herensugea Pelloren aurrean azaltzen da)*
- Pello** Ai, hau beldurra...! Denek oso gaiztoa zarela esan didate.
- Ramontxu** Ez beldur izan! Ramontxu naiz. Zure arrantzak entzun ditut eta laguntzera nator.

- Pello** Ez nauzu jango?
- Ramontxu** Ez! Nik ez dut inor jaten. Nik denon laguna izan nahi dut.
- Pello** Ez zaitez larritu, Ramontxu. Atera nazazu hemendik, etorri nirekin herrira eta denoi esango diegu zein ona zaren.
(Herrira ailegatu direnean, jendea beldurtu egiten da)
- 1. Biztanle** Kontuz! Herensugea dator!
- 2. Biztanle** Pello preso hartu du!
- 3. Biztanle** Denok jan eta erreko gaitu!
- 4. Biztanle** Lagundu! Ezkuta gaitezen
- Ama** Nire umetxoa! Herensugeak jango du!
- Pello** Trankil, trankil. begira... hau Ramontxu da, nire laguna da.
- Biztanleak (batera)** Ez! Ez! Ez! Oso gaiztoa da!
- Pello** Ez, gaiztoak, zuek zarete, herensugea ezagutu gabe txarto hitz egiten ibili zarete eta.
- Ramontxu** Bai, nik zuen laguna izan nahi dut.
- Iñaki** Benetan ez gaituzula erreko?
- Ramontxu** Ezetz ba! Alderantziz! Neguan nire suaz berotuko zaituztet.
- Aita** Txarto jokatu dugu zurekin. Barkatuko gaituzu?
- Egurgilea** Bai, mesedez. Eta nik enbor batzuk emango dizkizut zure ahoaz jolas dezazun.

Ama Geldi zaitez herrian betirako eta festa bat ospatuko dugu!

Pello Bai! Iupiii! Ramontxu betirako nirekin geldituko da!

Kontalaria Eta horrela Ramontxu betirako herrian gelditu zen. Herrikoek ez zuten ezagutu gabe inori buruz txarto hitz egin.

Eta herensuge onak neguan bere ahoaz beroa eman zien.

Eta hau horrela bazan edo ez bazan ez niri ezer esan.

SEI ANAIAK

Santi Barrenetxea.eta
LMH 1. mailako ikasleak
Ipuin antzeztua
La Salle- Isasi ikastetxea
Eibar
1996

GAIA

Sei anaiek batera, bakoitzak bere trebetasunak erabiliz, erregearen alaba salbatzen dute.

PERTSONAIAK

Aita

1. Semea

2. Semea

3. Semea

4. Semea

5. Semea

6. Semea

Astronomoa

Jostuna

Ehiztaria

Soldadua

Lapurra

Zurgin

Erregea

Printzesa

Herensugea

Aita Etorri hona semeak.

1. Semea Zer nahi duzu, aita?

Aita Ni zaharra naiz eta hil aurretik gauza bat eman nahi di-
zuet.

- 2. Semea** Zer aita? Zer da?
- Aita** Ogia da, pobrea naiz eta...
- 3. Semea** Oso ondo, aita.
- Aita** Tori zati hau zuretzat, beste hau zuretzat, hau zuretzat, hau zuretzat, hau zuretzat eta beste hau zuretzat.
- Denak** Eskerrik asko aita.
- Aita** Eta zuek, zer egingo duzue?
- 4. Semea** Lana bilatzera joango gara.
- Aita** Ederki ba, Agur semeak...
- Denak** Agur aita. (*Muxu bana ematen diote*)
- 5. Semea** Baina ezin gara denok joan. Bestela aita bakarrik geldituko da.
- 6. Semea** Ni txikiena naizenez, berarekin geldituko naiz. Joan zuek.
- 1,2,3,4,5 Semeak** Agur...
- Aita eta 6. semea** Agur... Ondo ibili eta kontuz...
(*Musika*)
- Astronomoa** Ni astronomoa naiz eta aparatu honekin izarrak ikusten ditut.
- 1 Semea** Egunon astronomo jauna!
- Astronomoa** Zer nahi duzu?

1 Semea Zurekin lan egin nahi dut.
Astronomoa Ondo da, ondo da!
1 Semea Zer da hori?
Astronomoa Hau teleskopioa da.
1 Semea Zertarako balio du?
Astronomoa Izarrak ikusteko balio du. Begiratu eta ikusiko duzu.

(Musika)

Jostuna Ni jostuna naiz eta arropak josten ditut

2. Semea Egunon jostun andrea!

Jostuna Zer nahi duzu?

2. Semea Zurekin lan egin nahi dut.

Jostuna Ondo da, ondo da.

2. Semea Zer da hori?

Jostuna Hau jostorratza da.

2. Semea Zertarako balio du?

Jostuna Josteko balio du

2. Semea Oso erraza da.

(Musika)

Ehiztaria Ni ehiztaria naiz eta animaliak hiltzen ditut.

- 3. Semea** Egunon ehiztari jauna!
- Ehiztaria** Zer nahi duzu?
- 3. Semea** Zurekin lan egin nahi dut.
- Ehiztaria** Ondo da, ondo da.
- 3. Semea** Zer da hori?
- Ehiztaria** Hau eskopeta da.
- 3. Semea** Zertarako balio du?
- Ehiztaria** Animaliak hiltzeko balio du. Tori, ea hiltzen duzun bakarrren bat.
Ehiztari ona izango zara.
- (Musika)*
- Lapurra** Ni lapurra naiz eta gauzak lapurtzen ditut.
- 4. Semea** Egunon, lapur jauna!
- Lapurra** Zer nahi duzu?
- 4. Semea** Zurekin lan egin nahi dut.
- Lapurra** Ondo da, ondo da.
- 4. Semea** Baina nik ez dut lapurtu nahi.
- Lapurra** Berdin da. Hala ere nik lapurretan erakutsiko dizut.
- (Musika)*
- Zurgina** Ni zurgina naiz eta etxeak egiten ditut.

- 5. Semea** Egunon, zurgin jauna.
- Zurgina** Zer nahi duzu?
- 5. Semea** Zurekin lan egin nahi dut.
- Zurgina** Ondo da, ondo da.
- 5. Semea** Zer da hori?
- Zurgina** Hori zerrauts magikoa da.
- 5. Semea** Zertarako balio du?
- Zurgina** Gauza txarrak desagertzeko.
- 5. Semea** Umm Oso interesgarria.
- (Musika)*
- 1. Semea** Agur astronomoa. Nire anaiekin elkartzera noa
- Astronomoa** Agur bai. Tori hau zuretzako txintxoa izan zarelako. *(Teleskopioa ematen dio)*
- 2. Semea** Agur jostun andrea. Nire anaiekin elkartzera noa.
- Jostuna** Agur bai. Tori, hau zuretzako, txintxoa izan zarelako. Orratz honekin dena jos daiteke.
- 3. Semea** Agur ehiztari jauna. Nire anaiekin elkartzera noa.
- Ehiztaria** Agur bai. Tori hau zuretzako, txintxoa izan zarelako. *(Eskopeta ematen dio)*
- 4. Semea** Agur lapurra jauna. Nire anaiekin elkartzera noa.
- Lapurra** Agur eta ondo ibili.

- 5. Semea** Agur, zurgin jauna. Nire anaiekin elkartzera noa
- Zurgina** Agur, bai. Tori hau zuretzako, txintxoa izan zarela.
(*Errauts magikoa ematen dio*)
- (*Musika*)
- Semeak** Kaixo!
- 1. Semea** Zer moduz?
- 2. Semea** Hau poza hau!
- 3. Semea** Muxu handi bat!
(*Besarkadak*)
- 1. Semea** Begira, nagusiak teleskopioa eman dit txintxoa izan naizelako.
- 2. Semea** Eta niri nagusiak, egurra, burnia eta denetik josten duen orratza eman dit.
- 3. Semea** Eta niri ehizean egiteko eskopeta eman dit.
- 5. Semea** Eta niri zerrauts magikoa eman dit, gauzak desagertarazteko.
- 3. Semea** Eta zuk, zer ikasi duzu?
- 4. Semea** Nik lapurretan ikasi dut.
- 1-2-3-5 Semeak** Zer...?
- 4. Semea** Lapurretan ikasi dudala!!!
- Soldadua** Aizue,... lagunak... Lagundu!!! herensugeak erregearen alaba harrapatu du eta ez dakigu non dagoen!

- 4. Semea** Goazen erregearengana gure laguntza ematera.
(*Musika*)
- Herensugea** Je, je, je... Erregearen alaba hemen dago. Irlara eramango dut eta jan egingo dut. Je, je, je...
- Erregea** Ay! Ay! Ay!... Nire alaba polita herensugeak eraman du.
- 1-2-3-4-5 Semeak** (*Atea jotzen dute*): Pan! Pan! Pan!
- Erregea** Nor da?
- 1-2-3-4-5 Semeak** Sei anaiak gara!
- Erregea** Sartu!
- 1. Semea** Esan digute, zure alaba herensugeak harrapatu duela. Nik, nire teleskopioarekin jakin dezaket non dagoen.
- Erregea** Eta, ikusten duzu?
- 1. Semea** Bai, baina itsasontzi bat behar dut.
- 5. Semea** Nik egurra moztuko dut.
- 2. Semea** Eta nik lokarriak lotuko ditut nire orratz magikoarekin.
- 4. Semea** Nik printzesa lapurtuko dut.
- 3. Semea** Eta nik eskopetarekin herensugea hilko dut.
- 1. Semea** Goazen ba denok.
(*Dena ilun dago*)

- 1. Semea** (*Argitzean*) Begira, han dago herensugea. Lotan dago.
- 4. Semea** Lotan dagoela, erregearen alaba lapurtuko dut.
- Soldadua** Kontuz...! Esnatu egin dela!
- 3. Semea** Tiro bat botako diot! Pun! Pan!
- Soldadua** Herensugeak txalupa puskatu digu.
- 2. Semea** Nik konponduko dut nire orratz magikoaz!
- 5. Semea** Eta nik zerrauts magikoa botako diot desagertzeko!
- Printzesa** Aitatxo... muxu bat!
- Erregea** Nork salbatu du nire alaba?
- 1. Semea** Nik salbatu dut.
- 2. Semea** Nik salbatu dut.
- 3. Semea** Nik salbatu dut.
- 4. Semea** Nik salbatu dut.
- 5. Semea** Nik salbatu dut.
- Erregea** Sari bezala, diru poltsa bat emango dizuet!
- 1-2-3-4-5 Semeak** Eskerrik asko. Agur.
- (*Musika*)

6. Semea Aita, badatoz nire anaiak.

1-2-3-4-5

Semeak Aita

Aita Zer moduz?

1-2-3-4-5

Semeak Oso ondo. Hau gertatu zaigu...

6. Semea Benetan ausartak zarete.

1-2-3-4-5

Semeak Horregatik deitzen digute 6 ANAIK.

SORGINA BASERRIAN

Ana Moral eta
HHko ikasleak
Ipuin antzeztua
San Esteban herri ikastetxea
Usurbil
1996

GAIA

Ohiko pottokien pertsonaien ezaugarrietan oinarriturik, haur bakoitzak horietako baten papera egingo du, guztion artean istorio erraz bat osatuz.

PERTSONAIAK

Narratzailea

Oilarra

Bartolo

Txakurra

Katua

Ardia

Behia

Untzia

Ahatea

Sorgina

Narratzailea Bartolo, Santueneako baserrian bizi den mutila da. Lan handia izaten du baserriko animaliak zaintzen. Egunero bezala, gaur Bartolo oilarraren kukurruarekin esnatu da.

Oilarra (*Kanpotik*) KUKURRUKU!

Bartolo AAAAAOOOOO! Bai ordua da, esnatzen ari naiz. Aurpegia garbituko dut, esnea hartuko dut eta ikuilura joango naiz.

Narratzailea Ikuilura sartu ondoren oilarrarengana hurbiltzen da.

Bartolo (*Agertuz*) Egunon oilarra!

- Oilarra** KUKURRUKU, egunon Bartolo!
- Bartolo** Tori zuretzako arto aleak ekarri ditut.
- Oilarra** Eman, eman! (*Hartu eta janez*) Gozo-gozoak daude, KUKURRUKU!
- Bartolo** Egunon Txuri!
- Txakurra** GUA, GUA Egunon Bartolo!
- Bartolo** Zuretzako hezur handi bat ekarri dut.
- Txakurra** Oso pozik nago GUAU GUAU! (*Hezurra janez*)
- Bartolo** Egunon Mixintxu!
- Katua** MIAU, MIAU! egunon Bartolo!
- Bartolo** Begira, zuretzako arrain freskoa daukat.
- Katua** Ekarri, ekarri. Jango dut eta, MIAU, MIAU (*Janez*)
- Bartolo** Egunon ardia!
- Ardia** BE, BE, egunon Bartolo!
- Bartolo** Tori zuretzako belarra. Jan ezazu!
- Ardia** (*Janez*) Eskerrik asko, BE, BE
- Bartolo** Egunon behia!
- Behia** MU, MU, egunon Bartolo!
- Bartolo** Zuretzako ere belarra dut. Tori!
- Behia** Bai, bota, bota gose naiz eta. (*Janez*) MU MU

- Bartolo** Egunon untxia!
- Untzia** I, I, I egunon Bartolo!
- Bartolo** Ikusi, zuretzako azenario handi bat ekarri dut
- Untzia** Ekarri, ekarri, jango dut eta. (*Janez*) I; I; I.
- Bartolo** Egunon ahatetxo!
- Ahatea** KUA, KUA egunon Bartolo!
- Bartolo** Tori zuretzako artaleak dauzkat
- Ahatea** Bota, bota jango ditut eta. (*Janez*) KUA, KUA
- Narratzailea** Bartolok animaliak agurtzen ditu, eta, eskolarantz abiatzen da. Bitartean animaliak bakarrik gelditzen dira. Handik ez oso urrutira sorgina bizi da.
- (*Bartolok alde egitean, Sorgina agertzen da ikuluan*)
- Sorgina** (*Agertuz*) JA, JA, JA. Ni sorgina Pirulina naiz, eta oso polita naiz. Baietz? JA, JA, JA. O! Zer ikusten ari naiz? Ikui-lua, animaliez beterik. JA, JA, JA. Sorginkeri bat egingo dut. Egunon politok!
- Animaliak** KUKURRUKU, BE, KUA, GUA, MIAU, MU, III (*Denak batera*)
- Sorgina** Isilik!
- Animaliak** BE, KUA, MU, GUA, KUKURRUKU, MIAU, III
- Sorginak** Isiltzeko esan dut. (*erratzarekin jotzen*)
- Narratzailea** Animaliak isiltzen dira.

Sorgina	Ni zuen laguna naiz, eta gonbidatu egingo zaituztet, Coca-Cola emango dizuet. JA, JA, pozima bat egingo dut: «Belar piska bat hemendik, armiarma bat hortik eta igelaren hankak handik» Orain ur piska bat, dena ondo nahastu eta edateko emango diet. Kaixo politak, begira Coca-Cola ekarri dut. Edan! edan!
Animaliak	Glu, glu glu...
Narratzailea	Animaliek pozima zikina edaten dute eta nahaste-borraste bat gertatzen da.
Sorgina	Gustatu zaizue?
Txakurra	MIAU, MIAU
Katua	GUAU, GUAU
Oilarra	BE, BE
Ardia.	KUA, KUA
Behia	I, I, I
Untzia	KUKURRUKU
Ahatea	MU, MU
Sorgina	JA, JA Dena aldatu dut. Hau zoramena! Beno, ni banoa, agur politok.
Narratzailea	Sorginak erratza ahazten du. Bartolo eskolatik etxera itzuli da. Eta ikuiluan sartu denean...
Bartolo	Arratsaldeon.
Katua	GUA, GUA

Txakurra	MIAU, MIAU
Oilarra	BE, BE
Ardia	KUA, KUA
Behia	I, I, I
Untzia	KUKURRUKU
Ahatea	MU, MU
Bartolo	Baina, zer gertatu da? Nire animaliak zoratuta daude. Zer da hau? Sorginaren erratza! Badakit zer gertatu den, hemen atzean ezkutatuko naiz eta sorgina datorrenean DANBA, DANBA emango diot.
Sorgina	Ikuiluan erratza ahaztu zait, bila joango naiz. Non dago nire erratza? Katua, ikusi al duzu nire erratza? GUAU, GUAU Txakurra, ikusi al duzu nire erratza? MIAU MIAU Oilarra, ikusi al duzu nire erratza? BE, BE... Non dago nire erratza?
Bartolo	Hemen dago, tori! tori!
Narratzailea	Eta horrela sorginak ikuilutik alde egiten du eta dena berri bere onera itzultzen da.

TXIN, TXIN, TXIN, TXIN, DIRUAREN HOTSA

Marian Iturrioz
OHO 5. mailako ikasleak
Komedia
La Milagrosa ikastetxea
Ordizia
1995

GAIA

Antzerkia herriko plaza txiki batean kokatzen da. Bizilagunak aspaldi Ameriketara joandako herritarraren zain daude, aberastuta etorriko delakoan, baina amerikanoa emateko baino hartzeko dago. Azkenean, askotan bezala, usteak erdia ustel.

PERTSONAIAK

1. narratzailea

2. narratzailea

Pepi

Miren

Xexili

Lukas

Luzio

Loli

Antton

Pili

Agustin

Anbroxio

(Eszenatokia kale edo plaza bat da, eta han goxoki eta egunkarien kiosko bat dago)

1. narratzailea Arratsaldeon, gaur antzezlan hau ikustera hurbildu zarete-noi, eta mila esker zuen txaloengatik.

2. narratzailea Bai, gogoan izan eskergarria dela noizbehinka txalo batzuk entzutea.

1. narratzailea Gu, ikasleak garenez gure ikastetxeko antzerkia aurkeztera gatoz.

- 2. narratzailea** Urtero bezala lan bat prestatu behar eta aurten zer?
- 1. narratzailea** Txin txin ,txin txin ,diruaren hotsa. Bosgarren mailakoek antzeztua.
- 2. narratzailea** Horretarako, gure herrikoen antzeko edozein plaza edo kaletan aurki ditzakezuen pertsonaiak aurkeztuko dizkizuegu:
- 1. narratzailea** MIREN. Goxoki eta egunkari saltzailea. Eta nola ez mingaina dantzatzea asko gustatzen zaion horietakoa.
- 2. narratzailea** PEPI. Arrantzalea, goizero portura joan eta trapukeria ederrak egiten dakiena. Esaten den bezala SARDINERA HUTSA!
- 1. narratzailea** XEXILI. Haurdun dago. Ia azkeneko egunetan omen da eta lan asko eta komeria pranko!
- 2. narratzailea** LUKAS. Hau medikuen bisitzailea dugu, biajantea edo, begira, begira zer tripa daukan. Ondo jandakoa alegia.
- 1. narratzailea** LUZIO. Aspalditxotik herriko garbitzailea, baina kontu-kontari ibiltzea da bere lanik handiena. Erratza eta pala edozein lekutan ahazten zaizkio.
- 2. narratzailea** LOLI. Erruloak ipinita ere ezin egon kanpora atera gabe. Nola bada, ikusi beharra dago kalean zer berri dagoen!
- 1. narratzailea** ANTTON. Ikasle ona dela dio, baina nik tranposo galanta esango nuke. Ez inori esan e! Niri txuletak egiten berak erakutsi zidan.
- 2. narratzailea** Nik ere hori ikasi beharra daukat ba!
Beno hurrengo PILI. Osaba amerikarrak emango dion herentziaren zain omen dago. Bere esperantzak ez du gutxi balio.

1. narratzailea AGUSTIN. Hau nondik azaldu da? Despiste galanta, honek... hola galduta dabilen beste osabaren bat izan behar du.

2. narratzailea ANBROXIO. Azkenik benetako osaba, Ordiziarra bera, baina miloiak non daude?

1. narratzailea Ba, berehala ikusiko duzue.

2. narratzailea Zuekin...

1. eta 2. narratzaileak TXIN TXIN, TXIN TXIN
DIRUAREN HOTSA

Miren *(Periodikoak, goxokiak e.a. antolatu egiten ditu)* Nire banku txiki honek hizketan baleki! Atzo iluntzean hemen gelditu zen bikote hark nola bukatu ote zuen? Hamaika hola-ko ikusteko gaude oraindik.

(Arrantzalea agertzen da kaxa txuriekin.)

Pepi Egunon Miren, goiz habil! Dagoeneko iritsi al zain prentsa ala?

Miren Bai gaur letxeroa ez datorrela, eta mutil majo batek ekarri dit. Hor joan dun presaka zebilela eta bere furgonetan.

Pepi Ez ezañ diximulatu, bazekinat zergatik hagoen hemen eta.

Miren Zergatik ba?

Pepi Zera... Amerikanoa datorrela eta... Tiburtxio alegia!

Miren Aizan hori ere ba! Hogeita hamar urte joan zela eta, luzetik nengonan nolakoa etorriko ote zen ikusteko.

Pepi Maiordomoarekin omen zetorren. Eta dirua berriz eduki behar din, puzkarra bezala!

- Miren** Bai, bai nik ere aditu dinat. Zeinek esan hura nire aurreneko nobioa izan nuela. Baina orduan mukiak kentzeko painuelorik ere ez zunan eta... Orain harrapa ezan!
- Pepi** Baino zer esaten dun, ni izan nindunan haren betiko maite-miña eta! Kalabazak eman nizkionan eta, ba al dakin zer esan zuen joan zenean?
- Miren** Zer?
- Pepi** Bueltatzen naizenean oso aberatsa izango naiz, eta parean pasatutakoan beste aldera begiratuko dut.
Orain ikusiko dinagu!
- Miren** Niri ere horixe esan zidanan!
(*Eskuak igurtziz*) Gaur horregatio, frexko samar egongo dun ala?
- Pepi** Frexko esaten dun? Ni bezala ibiliko bahintz, goizeko lauretan jaikita, ez huke hori esango, gero! Hor bazegonan Errenderiko arrantzale putrin bat, non heltzen didan zintzurretik. Eta zer! Eta nik txitxarro guztiak erosi ditudalako.
Bai e...! Gogoratuko dun! Heldu zionat tximatatik eta han ibili dinat bueltaka trapu zahar bat bezala.
Hara oraindik bero bero eginda nagon!
- Miren** Ni seguro ote nagon gero? (*Beldurtuta urrunduz*)
Pepi, zer ekarri dun gaur?
- Pepi** Ba txitxarroak, ederrak eta oso prezio onean.

Sardina ere bikaina zegon, eta oso freskoa. Antxoarik berriez, ez dinat ekarri, kanpoko begi gorri horietakoa zegonan eta.
- Miren** Eta bixigurik? Gaur Anttonen urtebetetzea dun eta, horixe erosiko niken.

- Pepi** Bixigua nola ekarriko dinat ba eskatu gabe! Berriketako prezioa zeukan ba
- (Xexili agertzen da. Haurdun dago eta egunkaria erosten du)*
- Xexili** Egunon. *(Aldizkarietara begirada bat botatzen die)*
- Miren** Egunon Jainkoak!
- Xexili** Aizu, Donostirako trena hamarretan daukat ez da?
- Miren** Hamarrak eta bostetan, bai.
Baina, baina aste honetan ere mejora ederra egin duzu e?
- Xexili** Bai? Ni berdintsu ikusten naiz ba... Beno oso handia nagoela ba bai. Ia aste honetarako espero dut eta.
(Ser madre edo horietako aldizkari bat hartzen du)
Zer moduz dago aldizkari hau?
- Miren** Ufff... oso ondo, inoiz ez al duzu irakurri ala?
Ba atzeratutako ale batzuk ba ditut hori gustatuz gero.
Beste hau ere oso ona da eta asko saltzen da.
- Xexili** Ba emaizkidazu biak. Hemendik Donostira nolabait pasa beharko dut denbora.
Zenbat da?
- Miren** Ba berrogei duro eta hirurogei duro... Ehun duro. Números redondos.
(Algaraz) Gaur dena borobil borobila ikusten dut. Eta zu berriz, zer esanik ez, teniseko pelota erraldoi bat.
Aizu ez zenuen bada gaizki hartuko ala?
- Xexili** Keba neska! Halaxe nago eta.
- Pepi** Zer, zer moduz doakizu, Xexili? Bukatzeko gogoak izango dituzu, ez da?

- Xexili** Bai, orain noa ginekologoana ea zer esaten didan.
- Pepi** Honezkero zer den jakingo duzu.
- Xexili** Bai, pitilinduna, pitilinduna.
Futbolistaren bat. A nolako ostikadak ematen dizkidan.
Pepita! Txitxarrik ba al daukazu?
- Pepi** Ederrak gainera.
- Xexili** Jar iezadazu bat hortaz. Ixten baduzu emaiozu Mireni ta bihar ordainduko dizut.
- (Trena etortzen da)*
- Pepi** Eta han zaudela jaiotzen bada?
- Xexili** Ez neska, nahiago nuke hori egia balitz. Beno, trena hemen dut. Gero arte!
- Miren** Horrek gaurkoa ez din pasatuko! Lehertzeko zorian zegon eta!
- Pepi** Bai, nik hala uste!
- (Trenean sendagileen bisitatzailerak iristen da)*
- Lukas** Egunon. Anbulategia, mesedez?
- Miren** Aurreko horixe duzu, baina kontsulta hamaiketan hasten da e..
- Lukas** Hain berandu?
Beno, emaidazu egunkari bat eta hementxe itxoingo dut.
- (Kale-garbitzailea azaltzen da. Bokadiloa jateko garaia du eta bankuan esertzen da)*

- Luzio** Egunon.
- Denak** Egunon.
- Luzio** Begira Miren! Pipa eta txikle zikinok saltzea debekatuta egon behar liken. Begira ezan zer kuxidade orain ere!
- Miren** Hago ixilik motel, hik ere zerbait egin beharko duk eta.
- Gainera guk ere bizi beharko diagu, ala?
- Luzio** Egin esaten den, egin, orain arte goiko kaleko portikoak garbitzen aritu naun, bazter guztietan kaka eta pixa besterik ez zeonan.
Orain, hori bai. Meritua ere baditen hotz hauekin hortxe freskuran aritzen direnak...
- Miren** Hori ere bai... Bost balio dik hemen komun garbiak eta ederrak jartzeak.
- Luzio** Beno hori dena baino hobe dinat, poltsikoan daukaten ha maiketako hau. Ez al zain iruditzen?
- Miren** Hori dena ikusi eta oraindik jateko gogoa badaukak, meritua duk.
Eskuak garbitu al dituk?
- Luzio** Orain ez zeukanat denborarik. Kriston gosea zeukenat. Hau jandakoan garbituko ditinat
- (Bisitatzailleak nazka aurpegiakin begiratzen dio)*
- Luzio** Gustu baduzu?
- Lukas** Ez, eskerrik asko.
- Luzio** Zu kanpotarra zaitugu ala?

Lukas Bai, sendagileen bisitatzaileria naiz, hamaikak arte ez omen da hasten eta hemen nago denbora egiten.

(Pelukeriatik Loli ateratzen da, erruloak buruan. Aldizkari bat erostera joaten da)

Luzio *(Lukasi)* Utziko al zenidake pixkat pixkat, eskelak ikusteko bakarrik da. Nik ez dut erosten periodikoa, dena gezurra eta zikina besterik ez du kontatzen eta. Orain, eskelak bai, beti ere ezagunen bat ote dagoen edo...

Lukas Gauza tristeak begiratzen dituzu zuk ere.

Luzio Tristeak baino egiak! Horiek inoiz ez dute gezurrik izaten!

Loli Begira eta begira nengoan. Hori Lukas duk ba..., baina ez ninduan atrebitzen gehiegi begiratzen. Gero, berriz, itxura honekin ezkutatzeko hobe nagok inori aurpegia emateko baino.

Lukas Oso guapa hago.

Loli Aldizkari guztiak irakurrita nitian eta berri bat erostera atera nauk. Gaur iluntzean ezkontza zeukaat eta badakik gure burua pixkat txukundu egin beharko diagu!

Lukas Lehenago erabateko rubia hintzen eta orain, berriz, ile beltza, zeinek ezagutu emakume honek.

Loli *(Lukasen tripa haundiari begira)* Ezkondu hintzen ala?

Lukas Bai, neska, baditun ia zortzi urte.

Loli Eta zortzi urte elkar ikusi gabe?

Lukas Zortzi edo... hamar ere bai honezkero.

Loli Izango dituk bai, hau ez duk gauetik goizera ateratzen.

Lukas Zer? Tripa esaten al dun, keba... Eserita nagon eta, badakin beti ere postura honetan pixkat atera egiten den.

Loli . Ez, ez, ez ezak sartu. Alperrik duk, hemen behin edade batera ailegatuz gero atera beharrekoak atera egiten dituk.

Lukas Aizan! Hi ere ez hago alperrik galduta e!

Loli Ez ba, ni ere mardul mardula. De buen año, esaten den bezala!

Eta oso pozik gainera.

Beno banoak eta beste batean egongo gaituk lasaiago, nire ile honek lehortzen denbora asko behar dik eta... Bazkaria berriz freskoa zegok oraindik, gaur senarrak entsalada batekin konformatu beharko dik.

Luzio Ezagutzen al duzu ala?

Lukas Loli! Ezagutuko ez dut ba. Hamar urtetan elkarrekin lanean aritutakoak gara eta.

Luzio Lanean? Orduan egin beharko zuen. Orain behintzat egun bizpat pelukeria sartuta dago.

Gero, oraintxe zurekin bezala, hortxe eseritzen da eta ez da herritarrik egongo horren ahotik pasa gabekorik.

Lukas Bai, zuek denok ere uztarritik lotzeko modukoak egongo zarete. A zer kuadrila!

(Altxatzen da eta kontsulta aldera abiatzen da)

(Pili ateratzen da karpetak eskuetan dituela, aldizkariari begirada bat ematen die eta bankuan esertzen da. Mirenek atzetik jesto bat egiten du bere orrazkera burlatuz eta Pepiri begiratz. Antton orduantxe sartzen da eta hori ikusten du)

Antton Egunon Pili.

- Pili** Kaixo!
- Antton** Ikusten denez hauei asko gustatu zaien hire orrazkera.
- Pili** Zergatik esaten duk hori?
- Antton** Ez, ez utz iezaion, ezer ez... Zer egiten dun hemen?
- Pili** Ba hementxe. Nire osaba Anbroxio zetorrek Ameriketatik eta bere zain nagok trena noiz etorriko.
- Antton** Nor dun hori?
- Pili** Nire amaren anaia gazteena izan behar dik. Nik fotografietatik ezagutzen diat eta, hola kapela duen moko-estu horietako bat duk.
Erabat aberastuta omen zetorrek eta, ea niretzat ere zerbait iristen den.
- Antton** Aaa.. ta hi orain pelotea egitera...
- Pili** Pelotea ez, baina opariren bat ekarriko zidak. Kartetan beti hori ipintzen dik: zu zara nere iloba kutuna... gure ama zena ren begiak dituzu... bere irudiko zara.
Ni badaezpada ere agertu egin nauk, beste ilobaren bat azaldu baino lehen.
- Antton** Gauza batzuetako oso azkarra haiz hi ere... Bejoindeinala! Eta... zer moduz doazkin ikasketak? Dena bikain seguro!
- Pili** Isilik egon hadi! Zortzi penko, eta gainera sekulako empollada jo eta gero. Nik sartu ditudan orduak, eta hortarako... Eta hik?
- Antton** Nik denak gainditu ditinat, eta libururik ireki gabe! Hori garbi gelditu dadila.
- Pili** (*Barrez*) Bai, hori sartuko diok etxekoneko Ritari, baina niri ez!

- Antton** Sekretoa jakin nahi al dun? Txuletak egiten eta kopiatzen kriston artea dinat.
- Pili** Bai, hortan ere porruazi ederrak egin nitian behin. Behin hasiko eta, hasi bezain laster ZANPA! baita harrapatu ere! Eta zeinek eta gizarteko mozolo horrek. Nik uste nian botila ipurdizko betaurreko horiekin ez zuela astorik ere ikusten eta, bai zera!
Hori ere niri gerta behar!
- Antton** Aizan, eta hainbeste gorri nola erakutsi behar dizkien gurasoiei?
- Pili** Hiri nola iruditzen zaik? Behar bada bandeja batean jarrita... Orain hurrena bezala, non esaten didan amak: hori den marrubi pila neska, hirekin etorkizuna aseguratuta dinagu! Baino hola e, bi metroko mutur luzea jarritz.
- Antton** Pili, aste buruetan ez haut kalean ikusten. Non sartzen haiz?
- Pili** Zerean, nire etxe-zuloan. Egon gelan pastel bat, hurrena lo gelan gominola batzuk, ta gero sukaldera joan eta harrapatutako guztiak. Hala!... eta gero astelehenean galtzak ezin sartu
- Antton** Bai, eta ... azkeneko nota horiekin, berriz, martxa berdinean ikusten haut.
- Pili** Arrazoia daukak, berriz ere han geratu beharko diat etxezulutik atera gabe. Ta gero nere aitonak esaten didana, JAN DA LO, BETI POTOLO!
- Antton** Gero nobioa esaten dun. Hola ezin dun, ezin dun!
- Luzio** Aizue, aizue... ez duzue ba pentsatuko zuen atzetik ibili behar dudarik egun guztian zuen pipazalak jasotzen ala? Zer erakusten dizuete gaurko gazteei eskolan?

- Pili** Eta ez duzu ba pentsatuko, zuk esan eta, guk piparik jan gabe egon behar dugunik ala?
- Luzio** Bai orain konturatzen nauk zein diren egunero hau zikitzen dutenak. Lotsarik ez duten geldo bi hauek.
- Antton** Argi ibili gero e! Lotsarik ez duena zu zara eta. Zertarako ordaintzen dizue ba... Hor etzanda jarri ta tripa igurtzitzen egoteko?
- (Trena iristen da)*
- Megafonia** Egunon, Jaun-Andreok, hurrengo trena Irundik dator eta Mirandara doa. Ordizian, Beasainen, Altsasun eta Gasteizen geldituko da.
Eskerrik asko.
- Agustin** *(Agertzen da)* Egunon! Hau duk hau nire pixpirrita. Zer moduz?
- Pili** Oso ondo osaba! Eta zu? *(Elkarri musu)*
- Agustin** Hau da haztea, jadanik ni adinakoa zaude. Ia señorita bat eginda zaude!
Bi urte zenituen ni joan nintzenean. Beti negarrez egoten zinen, eta hara, hau da lorea.
- Pili** Ez, osaba, ez. Ni zu han zinela jaio nintzen. Ametsen bat egingo zenuen.
- Agustin** Aizu, zahartuta nago baina burua galdua ez e!
- Pili** Ba, nik bi urte nitueneko gauzak ez ditut gogoratzen eta. Nik dakidana gurasoek kontatutakoa da, barkatu osaba!
- Agustin** Bai, bai, bi urtekin eta amaren titia edaten zenuen; hori ondo gogoratzen dut.

- Pili** Osaba, baina titirik ez omen zidan eman eta. Jaio orduko biberioa, ez omen zuen esnerik.
- Agustin** Hain tontotuta ote nago ba... ez da posible.
- Pili** Badakizu, emozioarekin pixka bat nahastuta egongo zara, barkatzekoa da eta, emaidazu beste muxutxo bat.
- Miren** Baina, baina, zu al zaitugu ba Anbroxio?
- Agustin** Ez, ni ez naiz Anbroxio, ni Agustin naiz.
(Denak bata besteari begira gelditzen dira)
- Agustin** Hau Beasaingo geltokia da ez, ba ni hemen geldituta nago nire ilobarekin.
- Miren** Ez, adiskide, ez. Hau Ordizia da.
- Pepi** Har ezazu taxi hori eta berehala zara Beasainen.
- Agustin** Eskerrik asko, eskerrik asko eta barkatu. *(Joan egiten da)*
- Pili** Beno, beno, hau ere guri gertatu behar.
- Miren** Esaten ninan nik hori ez zela Anbroxio.
- Anbroxio** *(Agertzen da)* Kaixo guztioi! Zu Pili., hi Miren, eta hi, berriz, Pepita. Herriko kutxurik ederrena hemen zaudete.
- Pili** Osaba... zu benetakoa izango zara ba!
- Anbroxio** Nik hala uste dut
- Pepi** Bai neska, hau den Anbroxio. Guk ezagutu genuen Anbroxio bera.
- Miren** Ez gizendu, ez zahartu, berdin berdina zegon

- Anbroxio** Zuek, berriz, zeinek ezagutu!
Aizue toki berdinean zaudetelako, bestela ziur nago ez zintuztedala ezagutuko. Zuek gaztetu egin zarete.
- Anbroxio** Hau den urteak pasatzea hau...
(Denak algara baten hasten dira)
- Pepi** Erabat aberastuta omen hator eta, zer? Gu mantentzeko moduan? Ni arrandegia ixteko prest nagok.
- Miren** Eta ni, berriz, zer esanik ez, asper asper eginda egunkariak eta aldizkariak saltzen.
- Anbroxio** Ta zuek zer? Nere kontura bizitzeko asmotan ala? Ba frexko zaudete.
Xentimorik ere ez zeukanat!
Hara, ikusten duzue, malelarik ere ez dinat ekarri, eta xoxa guztiak bidaia ordaintzen gastatu ditinat.
- Pili** Lasai osaba, oiloak baditugu, arrautzak zer esanik ez, hamar behi eta ehun txahal.....
- Anbroxio** Hainbeste ganadu baduzue? Puff... lan asko ala?
- Pili** Lana aipatzearekin bakarrik ikaratuta?
- Pepi** Anbroxio Euskal Herrian lehen bezala jarraitzen diagu, eta badakik, hemen sabela betetzeko izardia atera behar dik
- Luzio** Kaixo ANBRO! Zer moduz?
- Anbroxio** Ikusten duk, Luzio, ondo. Oraindik erratzarekin jarraitzen al duk?
- Luzio** Beharko, beharko.

- Miren** Aizak Luzio, zer iruditzen zaik gaur gauean afari eder batekin ospatzen badiagu Amerikanoaren etorrera? Hik badakik ba arkumeak ederki erretzen.
- Luzio** Bai, nik arkume parearen erreko ditinat
- Pepi** Arraia nire kontu.
- Miren** Postrea nik egingo dinat
- Pili Anbroxio** Eta guk sabela beteko dugu. Zer demonio!
- Beste guztiak** Eta guk zer jarriko dugu ? (*Besoak zabaldu eta goratuz*)
- Pili Anbroxio** Zuek umorea!
- Denak** Txin txin, txin txin
diruaren hotsa
horretzek ematen dit
maitia bihotzean poza! (*BIS*)

URRESTILLAKO MUSIKETEROAK

Begoña Garai eta
HHko ikasleak
Ipuin antzeztua
Erguin herri ikastetxea
Arrasate
1996

GAIA

Bakarrik gelditzen diren lau abere elkartzen dira musika banda sortzeko asmoz.

PERTSONAIAK

Kontalaria
Baserritarra
Astoa
Txakurra
Katua
Oilarra
1. Lapurra
2. Lapurra
3. Lapurra
4. Lapurra

- Kontalaria** Behin batean baserri batean asto zahar bat bizi zen
Lan asko egin arren, zahartu zenean baserritarrak etxetik
botatzea erabaki zuen.
- Baserritarra** Asto hau zaharra da. Salduko egin beharko dut. Bai, saldu
gingo dut laster.
- Kontalaria** Eta baserritarra etxera joan zen.
- Astoa** Ez nau salduko, Urrestillara joango naiz eta musika banda
bat sortuko dut.
- Kontalaria** Bidean txakur batekin topo egin zuen.

- Astoa** Zer gertatzen zaizu?
- Txakurra** Zahartu egin naiz eta ez dut balio etxea zaintzeko.
- Astoa** Zatoz nirekin eta Urrestillako bandan kitarra joko duzu.
- Kontalaria** Bidean katu batekin topo egin zuten.
- Asto-Txakur** Zer gertatzen zaizu?
- Katua** Zahartu egin naiz eta ezin dut sagurik harrapatu.
- Asto-Txakur** Zatoz gurekin, Urrestillako bandan....(*Aktorek jo dezakeen tresna*) joko duzu.
- Kontalaria** Bidean oilar batekin topo egin zuten.
- Asto-Txakur-Katu** Zer gertatzen zaizu?
- Oilarra** Negarrez ari naiz, zahartu egin naiz eta lapikoan sartu nahi naute.
- Asto-Txakur-Katu** Zatoz gurekin, Urrestillako bandan..... (*Aktorek jo dezakeen tresna*) joko duzu.
- Kontalaria** Ilundu zenean etxe batean argia ikusi zuten.
Lapur talde bat dago hor barruan.
Sartuko gara barrura?
- Katua** Lehenengo bata bestearen gainean jarriko gara.
- Kontalaria** Astoa arrantzaka hasi zen
Txakurra zaunka
Katua miauka
eta oilarra kukurrukuka.

- 1. Lapurra** Zer izan da hori?
- 2. Lapurra** Zer gertatzen da?
- 3. Lapurra** Lurrikara izan da?
- 4. Lapurra** Mamuak datoz! (*Alde egiten dute*)
- 4 abereak** Afaria mahaian utzi dute! Guk jango dugu dena.
- Kontalaria** Eta jan ondoren Urrestillara joan ziren eta musika banda osatu zuten.
- (Abera bakoitzak bere musika tresna hartzen du)*
- (Denek abesti bat abesten dute)*

URREZKO ARROSONDOA

A. Santi Onaindiaren “JOLASKETAN” lana
Fatima Ziluaga eta ikasleak egokitua
Ipuin antzeztua
Amorotoko herri ikastetxea
Amoroto
1996

GAIA

Gaixorik dauden printze eta printzesa sendatzeko urrezko arrosa ekarri behar da.

PERTSONAIAK

Narratzailea
Sendagilea
Erregina
Erregea
Morroia
Burduntxaldi
Jokin
Maitena
Peli
Ines
Luis
Sabin
Sabinen ama

Narratzailea Behin batean Amoretoko herrian gaztelu eder bat zegoen. Bertan errege-erregina eta seme-alabak bizi ziren. Halako batean printzea eta printzesa gaixotu egin ziren.

Sendagilea (*Gaixoak auskultatzen*) Sentitzen dut baina ez dago zer eginik: Medikuntzak oraindik ez du ezer asmatu gaixotasun hau sendatzeko.

Erregina (*Negarrez*) Ai, ene bada eta bada! Zer egin genezake ba?

- Erregea** Ba dago ba Santa Barbaran arrosoho zoragarria, zuhaitzez eta liliz beteta dagoen baratza batean.
- Erregina** (*Negar zotinka*) Bai... snif..
- Erregea** Ba... arrosoho honen jabeak bertan dauka min guztien sendagaia.
- Erregina** Ba...
- Erregea** Arrosoho honetatik arrosa bat ekarrarazi behar da.
- Erregina** Nork ekarriko digu, ordea? Badaki ene bihotzeko gizonak lorategi horretara sartzen direnak betiko galtzen direla.
- Erregea** Ez zaio ardura! Agindu baten bitartez jakinaraziko dugu, arrosa hori dakarkiguna, mutila bada gure alabarekin ezkonduko dela, berriz, neska bada, gure semearekin ezkonduko dela.
- Erregina** Bai, baina hara joaterakoan galduko egingo dira.
- Erregea** Ez, Burduntxaldi jakitunak esan du, gal ez daitezen gauza batzuk kontatuko dizkiela.
- Erregina** Ondo dago, gure umeen lagun guztiei esatera noa; ea nork nahi duen joan.
- Narratzailea** Ia arrosa hura, nork ekarri nahi zuen bando bat jo zuten.
- Morroia** (*Turuta joz*) Errege jaunak jakinarazten dizue: (*Turuta joz*) bere seme alabak gaixorik daudela eta (*Turuta joz*) arrosohoan dagoen sendatzeko arrosa ekartzea lortzen duenak, bere seme edo alabarekin ezkonduko dela.
- Narratzailea** Laster zeuden euren etxean neska-mutil piloa. Erregeak tarteka batzuk aukeratu zituen eta Burduntxaldik honela esan zuen:

Burduntxaldi (*Umeen aurrean jarri, bizar zuria igurtzi, betaurrekoak sudur gainean ipini, bere ile luzea atzera egin*) Ene ume-txook, arrosa hartu nahi baduzue, orain esatera noakizuena entzun eta egin: (*Urruma*) Baratz horretara joateko eskumako bideari ekin eta aurrera jo. Beti aurrera eta gora begira! Atzera eta aldamenara begiratu barik. Bestela, begiratu unean galdu eta aranondo bihurtuko zarete. Aditzen duzue? Esana txintxo bete. (*Zotzak ateratzen ditu eta Jokini tokatzen zaió lehenengokoa joatea*)

Jokin (*Harrotuta*) Ah! niri tokatu zait! Neu joango naiz, eta neuk ekarriko dut arrosa Ikusiko duzue, erregearen alabarekin ezkonduko naiz.

Jokin (*Etxean*) Ama!, ama! arrosoño zoragarri hura dagoen baratzera noa arrosaren bila. Laster erregearen alabarekin ezkonduko naiz eta oso aberatsak izango gara.

Jokinen ama Baina zenbat bider esan behar dizut ez sartzeko halako nahaste borraztetan. Hau da gurutzea daukadana! Lehenengo zure aita defuntuarekin eta orain zurekin, marka da gero e?

Jokin Esaizu nahi duzuna, baina, ni banoa. (*Jokin badoa*) Burduntxaldik esan du, aurrera begiratzeko ba aurrera begira!

(*Pasatzen da arrosodontik eta entzuten du*)

Ahotsak Zorua! Txepela Txokila! Astoa! Matrail handi! Sudurluze! Begilari!

(*Jokinek atzerantz begiratzen du eta aranondo bihurtzen da*)

(*Herrian beste guztiak batzen dira*)

Herritarrak Entzun duzue Jokinena?
Bai gizajoa!

(*Jokinen ama negarrez*)

Burduntxaldi Ba beste norbaitek joan beharko du... Ia... ia... Maitena zeu joango zara.

Maitena Ni?

Burduntxaldi Bai, zu zeu. Badakizu eskumako bideari ekin eta aurrera jo. Beti aurrera eta gora begira. Atzera edo aldamenara begiratu barik. Bestela begiratu unean galdu eta aranondo bihurtuko zara. Aditzen duzu? Esana zintzo bete.

Narratzailea Maitena, neska polita zen, urrea bezain gorrizka, krabelinaren antzera apaindua, baina, bai txantxangorria bezain artoa ere.

Maitena *(Kateari begira)* Bai kate ederra, zintzilik daramadana! Eta oinetakoak... oinetakoak ere Paggisen erositakoak. *(Minigona jantzita)* Beno banoa arrosaren bila. Burduntxaldik esan du, aurrera begira.

(Pasatzen da arrosodotik eta entzuten du)

Ahotsak Ene! Begira neskatilaren ederra. Hori ile gorria! hori jantzia! hori hori pitxidun koilarra! Horiek belarritakoak, ilargia bezain ederra da bera. Entzun neskatila arrosa bat nahi bazenu bular gainean ipintzeko nik emango nizuke.

Maitena Ezin dut gehiago.

(Atzerantz begiratzen du eta aranondo bihurtzen da)

(Herrian beste guztiak batzen dira)

Herritarrak Enteratu zarete Maitenarena?
Bai gizajoa hain polita bera eta aranondo bihurtuta.

Burduntxaldi Ba... Hirugarren batek joan beharko du... Peli zu

- Peli** Ni...? (*Ikaratuta*)
- Burduntxaldi** Bai, zeu. Badakizu, eskumako bideari ekin eta aurrera jo. Beti aurrera eta gora begira. Atzera eta aldamenara begiratu barik. Bestela begiratu unean galdu eta aranondo bihurtuko zara. Aditzen duzu? Esana zintzo bete.
- Narratzailea** Peli oso ikaratia zen. Ekin zion bideari gora eta gora. Bazihoan baina beldurrez. Oraindik ehun oinkada ez zituen eman eta...
- Ahotsak** Horri eman! Eman horri! Makilakada bat! Zast!
- Peli** A zelako ikara!
- (*Atzerantz begiratzen du, esku beltz batek heltzen du eta aranondo bihurtzen da*)
- (*Herrian beste guztiak batzen dira*)
- Herritarrak** Entzun duzue Pelirena?
Bai gizajoa!
- Burduntxaldi** Ba... beste batek joan beharko du... Ia.. ia... Ines, zu joango zara.
- Ines** Ni?
- Burduntxaldi** Bai, zu zeu. Badakizu eskumako bideari ekin, eta aurrera jo. Beti aurrera eta gora begira! Atzera eta aldamena begiratu barik. Bestela begiratu unean galdu eta aranondo bihurtuko zara. Aditzen duzu? Esana zintzo bete.
- Narratzailea** Inesi erakutsi zioten mundu honetan dantzan egitea emakume dotore izatea zela. Horregatik beti dantzan aritzen zen.
- (*Ines dantzan. Musika*) (*Bidetik dantzan doa*) (*Jotari buelta ematea tokatzen zaionean aranondo bihurtzen da*)

- Herritarrak** Entzun duzue Inesena?
Bai gizajoa!
- Burduntxaldi** Ba... beste bat joango da!... Ia... ia... Luis, zu joango zara.
- Luis** Ni?
- Burduntxaldi** Bai, zu zeu. Badakizu eskumako bideari ekin, eta aurrera jo. Beti aurrera eta gora begira. Atzera eta aldamera begiratu barik. Bestela begiratu unean galdu eta aranondo bihurtuko zara. Aditzen duzu? Esana zintzo bete.
- Narratzailea** Luis ez zen mutil gaiztoa, bihurri samarra.

(*Txakurra zaunka*)
- Luis** Txakurra, isil zaitez! (*txakurra zaunka*) Oraintxe ikusiko du txakur horrek! Harri honekin uxatuko dut. (*Harria botatzen dio, buelta ematen du eta aranondo bihurtzen da*)
- Narratzailea** Horrela, batzuk horregatik eta besteak besteagatik makina bat ume galdu ziren. (*Erregea eta erregina negarrez, zotinka*)
- Erregea -Erregina** Ene! Gure seme-alabak hiltzera doaz. Inork ez du ekarri urrezko arrosa.

(*Herrian beste guztiak batzen dira*)
- Herritarrak** Entzun duzue Luisena?
Bai, gizajoa!
- Burduntxaldi** Ba,... Sabintxo, zu joango zara.
- Sabin** Ni?

Narratzailea Sabintxo ez zen ez polita ez itsusia, ez azkarra ez motela, ez gorrixka ez zurixka, denetik erdizka. Baina oso ausarta eta baketsua, bihotz handikoa, oso zintzoa eta gurasoekin maitekorra bera.

Burduntxaldi Badakizu eskumako bideari ekin, eta aurrera jo. Beti aurrera eta gora begira. Atzera eta aldamenara begiratu barik. Bestela begiratu unean galdu eta aranondo bihurtuko zara. Aditzen duzu? Esana zintzo bete.

Sabinen ama Ene Sabintxo laztana! Ez ahaztu Burduntxaldik esandakoa, batera eta bestera begiratu gabe, beti aurrera eta gora begira joateko. Hi beti izan haiz mutil zintzoa eta orain ere halaxe izango da. (*Musua ematen dio*)

Ahotsak Eroa, begi oker, Sabin tirulero.

Ahotsak (*Beste aldetik*) Txorikume, txepela!

Ahotsak (*Beste aldetik*) Polit hori, zatoz jolastera!

Beste ahotsak Hil egingo zaitugu! Eman horri, lotsagabe horri!

Beste ahotsak Sabintxo, Sabintxo, hortik ez zaitez joan! Hemendik, esku-matik!

Beste ahotsak Urrunegi zoaz! (*Sabintxo beti aurrera begira*)

Sabin Amak eta Burduntxaldik esan didaten modura... nik kasurik ez. (*Arrosandoa agertzen da*)

Sabin IUPI! Heldu naiz! Orain arrosa bi hartuko ditut eta berriro lehengo bidetik etxerantz.

Ahotsak Lapurra! Ez duzu arrosarik eramango. Eroa! begi oker, Sabin tirulero.

Ahotsak Txorikume, txepela!

Ahotsak Polit hori, zatoz jolasera! Arrosa horietako bat eman neuri.
(*Ama ikusten da*)

Sabin Ama, ama! (*besoetan jausten da*)

Ama Sabintxo, bai arrosa ederrak ere! Goazen gaztelura erregearengana.

(*Gazteluan. Amak arrosa biak ematen dizkio erregeari*)

ESKOLA ANTZERKIA 1-7: ANTZEZLAN GUZTIEN ZERRENDA

Antzezlanak	Liburua	Orrialdea
Afaria prestatzen	Eskola Antzerkia 4	15
Aintzinakeriak	Eskola Antzerkia 4	23
Altxor arkeologikoa	Eskola Antzerkia 4	41
Amama Benidorrera	Eskola Antzerkia 2	17
Amonaren urtebetetzea	Eskola Antzerkia 2	35
Antonino Apreta	Eskola Antzerkia 4	49
Aramaioren deabrukeriak	Eskola Antzerkia 4	61
Arin-arin erbia	Eskola Antzerkia 4	69
Arraintxo	Eskola Antzerkia 4	75
Asteburu aztoratua	Eskola Antzerkia 7	19
Atrakoa	Eskola Antzerkia 2	49
Axeria eta otsoa lagun ederrak	Eskola Antzerkia 2	61
Azken luzea	Eskola Antzerkia 4	87
Bazasor banda	Eskola Antzerkia 4	137
Bederatzi ez da bederatzi	Eskola Antzerkia 4	149
Bi jango ditut	Eskola Antzerkia 1	23
Bi-bit martzianoa	Eskola Antzerkia 6	25
Bost anai-arrebak	Eskola Antzerkia 6	33
Dena izango da izan behar duen bezala	Eskola Antzerkia 7	45
Diruak sendatu du	Eskola Antzerkia 7	65
Egia bazan, sar dadila kalabazan	Eskola Antzerkia 2	89
Enperadorearen jantzi berria	Eskola Antzerkia 4	171
Errekaloreak	Eskola Antzerkia 6	43
Esne-saltzaileak	Eskola Antzerkia 7	79
Eskale musikariak	Eskola Antzerkia 1	35
Estatua mugikorak	Eskola Antzerkia 1	47
Etxe hau bai dela guai!!!	Eskola Antzerkia 2	111
Gaztarik onenak... Arantzazukoak	Eskola Antzerkia 4	185
Geurea, zaharretxea	Eskola Antzerkia 6	55
Gizon bizarpeituti eta emazte bizastsuti	Eskola Antzerkia 1	61
Haragi egosia saltsan	Eskola Antzerkia 4	203
Herensugearen burua	Eskola Antzerkia 4	215
Iker Miker	Eskola Antzerkia 1	97
Ilun	Eskola Antzerkia 6	79
Intsumisioa	Eskola Antzerkia 6	173
Ipotxaren etxea	Eskola Antzerkia 2	139
Ipotx-kalea	Eskola Antzerkia 2	129
Itsasminez	Eskola Antzerkia 2	151
Itsasoan galduak	Eskola Antzerkia 4	223

Antzezlanak	Liburua	Orrialdea
Itsuak	Eskola Antzerkia 4	249
Iurretoneko madarikazioa	Eskola Antzerkia 2	163
Izen gabekoa	Eskola Antzerkia 7	87
Jontxuren egoera larria	Eskola Antzerkia 2	189
Joxemari Iparragirre	Eskola Antzerkia 1	109
Kaixo, zer moduz? Lapurketa arraroa	Eskola Antzerkia 7	117
Kalamitate baten komeriak	Eskola Antzerkia 6	91
Korsario komeriantek	Eskola Antzerkia 6	115
Lagun zauritua	Eskola Antzerkia 7	129
Lapurtxoa	Eskola Antzerkia 1	141
Lau ipotxen bizimodu ibiltaria		
askatasunaren bila	Eskola Antzerkia 1	165
Lehenengo oporrak	Eskola Antzerkia 1	181
Lekurik bai...?	Eskola Antzerkia 5	15
Liburu majikoa	Eskola Antzerkia 6	143
Lortuko ete dogu?	Eskola Antzerkia 4	261
Magia dela medio	Eskola Antzerkia 4	275
Maite, herri txiki batetako neskatoa	Eskola Antzerkia 4	289
Mak, ikertzaile ausarta	Eskola Antzerkia 3	17
Maritxu nora zoaz?	Eskola Antzerkia 5	65
Martzianoen bisita	Eskola Antzerkia 3	35
Mexikotik Euskal Herrira	Eskola Antzerkia 6	159
Mireni laguntzen	Eskola Antzerkia 7	145
Mosketeroen misio barregarria	Eskola Antzerkia 1	201
Mugako jostailuak	Eskola Antzerkia 3	49
Musu baten bila	Eskola Antzerkia 5	87
Naporen istorio historikoak	Eskola Antzerkia 3	73
Non ote da Sol?	Eskola Antzerkia 3	103
Nonbait, ez oso urrutian	Eskola Antzerkia 7	159
Nontzeberri enparantza	Eskola Antzerkia 5	117
Norentzat ari dira iruten hiru atsoak?	Eskola Antzerkia 3	113
Nueva Zaragozako herritarrak	Eskola Antzerkia 5	127
Orreaga	Eskola Antzerkia 1	215
Osaba Inaxioren azken agiria	Eskola Antzerkia 1	227
Ostadarra ukitu zuen neskatxa	Eskola Antzerkia 1	245
Paisa	Eskola Antzerkia 1	273
Pic-nic	Eskola Antzerkia 3	125
Poti	Eskola Antzerkia 3	151
Printze zorientzua	Eskola Antzerkia 3	173

Antzezlanak	Liburua	Orrialdea
Ramontxu herensugea	Eskola Antzerkia 7	179
Rutinaren itzala	Eskola Antzerkia 5	159
Sei anaiak	Eskola Antzerkia 7	187
Sor-gin hauek!	Eskola Antzerkia 5	177
Sorgina baserrian	Eskola Antzerkia 7	199
Tangala danba	Eskola Antzerkia 5	187
Txibistoren erbia	Eskola Antzerkia 3	195
Tximatoli helia	Eskola Antzerkia 3	215
Txin, txin, txin, txin, diruaren hotsa	Eskola Antzerkia 7	207
Ur tanta baten historia	Eskola Antzerkia 6	185
Urrestillako musiketeroak	Eskola Antzerkia 7	225
Urrezko arrosoa	Eskola Antzerkia 7	231
Urruletako bainuetxea	Eskola Antzerkia 5	207
Zentimetroak 93	Eskola Antzerkia 5	251
Zer eman, hura hartu	Eskola Antzerkia 6	197
Zeroen sorotan	Eskola Antzerkia 3	237
Zubi gizakiak	Eskola Antzerkia 6	215
Zurineren anaia	Eskola Antzerkia 3	251

Hezkuntza Saileko Liburutegia



00001002642

891.69-2 ESK

... inoiz bitarteko bizirik izan badugu hezkuntza lanetan, horixe dugu antzerkia. Bizia bai, bizi egiteko delako, bakoitzak bere barruan, antzezle nahiz ikusle, emozioak, sentimenduak, bizi izaten dituelako.

Estetikak joka dezakeen paper eraginkorra baino are sakonago dira esperientzia kolektibo honen ondorioak. Antzerkiak isladatzen du hizkuntzaren esku dagoen intentsitate sinboliko guztia, emozio, amets eta bizipenak "bizaraziz".

Lurdes Intxausti

Ez dakizu zein eginkizun atsegina den antzerki lan polit bat nork bere etxeko hizkerara edo euskalkira moldatzen saiatzea. Eta ez iezadazu esan ez zarela horretarako gauza....

Berebiziko mesedea egingo dio jende horri, hurbil antzean, bizi-bizirik dagoen hizkera molde horrekin ahalik eta harremanik estuenean bizitzeak, sustraietatik elikatzen den landarearen freskura eta edertasun mardula lortzeko bidean jarriko baita.

Lukas Dorronsoro



Eskola antzerkia EK22090056

